

## Berdintasuna bultzatu gura dute Oñatin | 10

GOIENA 2012-07-06, EGUBAKOITZA 516. ZENBAKIA, 12. URTEA  
DOANEKO GOIENA.NET

TOKIKOM

## "Kultura politizatzea da egin dezakegun txarrena"

Ikerne Badiola

Kultura diputatua | 9



## Elgetako pilota saila desagertu egin da

Ondorioz, lau t'erdiko txapelketa kolokan dago | 20



MAIDER UNDA

## "Urrearekin egiten dut amets, zergatik ez? Horretarako egin dut lan; gogor, gainera"

Maidar Unda | Borrokalaria | 22

Gaur hasiko da Udazabal Arrasaten, udako ekitaldi sorta oparoa | 12



Erramun Martikorena eta Mikel Markez gaur Huhezin | 25



Antzuolako jaiak eguenean hasiko dira, uztailaren 12an | 27

# goiena

## Beharrezkoa eta plurala

Horixe da Aztiker soziologia enpresak 800 herritarri egindako inkestek ondorioztatu dutena | 2

### SINADURAK



Euskadi Modeloa? | 8  
JON ETXEBERRIA

14 | Hirigune historikoa koloretan

AITZIBER AZKONDO



Ideiak desarmatu | 40  
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8  
ELKARRIZKETA 9 | HERRIAK 10 | KIROLA 21  
KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 35  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36  
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

## Irailaren 3an zabalduko dute Aretxabaletako Ibarra kiroldegi berria

Astelehenean hasita ate irekiak izango dira kiroldegian | 16

## Inauguratu dute ibarreko ospitalea

Lehendakaria izan zen ekitaldian, atzo | 6



Patxi Lopez lehendakaria, bestelako agintariek, sarreran. | MIRARI ALTUBE

## Labegaraietako areto futboleko 25. finala jokatuko dute bihar Bergaran

Akabaok eta Desastre izango dira lehian, 19:00etan | 21

# Premiazkoa eta plurala da Goiena hedabide taldea, herritarren ustez

- ▶ Aztiker enpresak 800 debagoiendarri galdetu die
- ▶ Informazio lokala eta euskaraz izatea baloratzen dira
- ▶ Papereko euskarria da nagusi eta erreferentea

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE  
Goienako hedabideak "beharrezkoak edo oso beharrezkoak" dira, debagoiendarren ustez, eta pluralak; hau da, ez daude ideologia edo indar ekonomiko jakin bati lerrokatuta. Horrez gain, *Goiena* papera da Goienako hedabiderik ezagun eta erabiliena; Goienako hedabide erreferentzialena eta jarraitzaile gehien dituen ere bada. Horiek dira Aztiker soziologia enpresak 800 debagoiendarri egin dien inkestaren emaitza esanguratsuenak. Azterketaren berri eman zuen atzo, jendaurrean, Aztikerko teknikariak Arrasaten, Kulturate aretoan.

2012ko urtarrilaren 26tik otsailaren 10era egin zizkieten inkestak, 15 eta 54 urte arteko Debagoieneko herrietako biztanleei; 800 laguni.

Aztikerren azterketaren ondorio nagusiak hauek dira: proiektu sustraitua eta independentea da; beharrezkoa edo oso beharrezkoa; inora ez lerrokatua eta lerrokatuta dagoela diotenen artean, oso banatuta; informazio lokala lehenesten du, euskaraz

izatearen aldean; aldizkaria da hiru hedabideen artean indartsuena; erdaldunek iritzi positiboa dute Goienarekiko eta ulertzen ez duten arren ikusi eta gainbegirutzen dute.

## Sustraitua eta premiazkoa

Goiena proiektua eta bere hedabideak oso ezagunak dira ibarrean. Eta herritarrendako "beharrezkoa edo oso beharrezkoa" da. Hala diote ia herritar guztiek (%96,8), baita euskaraz ulertzen ez dutenek ere.

Azpitarragarria da Goienak herritarren sektore guztietara heltzeko duen gaitasuna: gizonezko, emakumezko, gazte, heldu, euskaldun zein erdaldun...

## Hedabide pluralak

Goienako hedabideak pluralak dira. Hala diote herritarrek. %71,9k, hain justu ere. Indar politiko edo ekonomikoekiko independentea da. Herritarren

%8,7rendako bakarrik daude tendentzia jakin bati lerrokatuta Goienako hedabideak.

Horien artean, iritzia ez da homogeneoa: %21,5endako Bilduri lerrokatuta dago; %20rendako, ezker abertzaleari; %9,2rendako, udalean agintean dagoenari; %4,6rendako, Aralarri...

## Informazio lokala eta euskara

Tokiko informazioa lantzen duten euskarazko hedabideak dira Goienarenak. Eta kalitatezko informazio gertukoena eskaintzeari ematen diote garrantzia, bereziki, herritarrek; euskaraz izateari baino gehiago. Inkestatuen %94,5ek interes handia edo oso handia erakutsi dute informazio lokalarekiko. Edozelan ere, euskaraz izateari ere garrantzia handia ematen diote herritarrek. Eta berri horiek eskuratzeko, Goienako hedabideetara jotzen dute beste hedabideetara baino gehiago.



Azterketa egin duen Aztiker enpresako teknikaria aurkezpena egiten. | XABIER URTZELAI

## Informazio gertuko baloratuena

Herriko gertaerak, informazio gertukoena, da gehien baloratzen dena Goienako hedabideetan, eta bereziki paperekoan. Hau da, norberaren herrikoa.

## Herriko gertaerak eta herritarrak

Herriko gertaerak dira gehien baloratzen direnak (%37,4); ondoren, herriko jendeari eginiko elkarrizketak (%26,6); kultura berriak (%24,9); gizarteko gaiak (%22,8); agenda (%20,9); zerbitzu informazioa (%18,2); ondoren, iritzia, kirola eta, azkenik, politikako kontuak, hau da, udaleko batzarrak, alderdien proposamenak... (%8,2).

## Paperekoa nagusi

Goienako hedabideen artean, paperekoa da nagusi. Debagoiendar guztiek (%99,5ek zehazki)

ezagutzen dute *Goiena* paperekoa. Eta, horien artean, gehiengo handi batek, %91,5ek, aitortu du hura inoiz irakurri edo begiratu duela.

## 25.000 lagunek

Inkestatuen artean, bost irakurletik lauk azken astean irakurri dutela erantzun dute (%82,3). Batez beste, 23 minutu eman dute *Goiena* paperekoa irakurtzen.

Datu hori ibarreko herritar guztietara ekarriz, ondorioa da Debagoieneko herritar guztietatik %73,6k irakurtzen dutela astero *Goiena* paperekoa; hau da, 25.000 lagunek. Horrek bihurtzen du, askogatik, hedabiderik irakurriena Debagoienean, gainerako euskarriekiko alde handiarekin.

## Papera Bergaran

Herrika begiratuta, aldizkariak gehien sartzea lortzen duen herria Bergara da: herritarren %77,1; eta horren ondoren, Oñati (%73,4), Aretxabaleta (%71,6) eta Arrasate (%69,5) daude.

2012  
2013

OK

Lanerako gertu!

**HETEL**

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

**Matrikula**

Uztailaren 5etik aurrera

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioa eta Finantzak</li> <li>• Zuzendaritza Idazkaritza</li> <li>• Salmenta Kudeaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>• Automatizazioa eta Robotika Industriala</li> <li>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa</li> <li>• Mekatronika Industriala</li> </ul>
<p>www.mondragon.edu/ogh</p> <p>info.enpresagintza@mondragon.edu</p> <p>943 71 80 09</p>	<p>www.mondragon.edu/gmh</p> <p>gmhz.mgep@mondragon.edu</p> <p>943 71 21 91</p>



## Papereko 'Goiena' 25.000 lagunek irakurtzen dute astero ibarrean

Zenbat eta informazio gertuagoa, orduan eta gustukoago

'Goiena.net' webgunea herritarren erdiek ezagutzen dute

Euskaraz izateari baino garrantzi handiagoa, informazioari

## 'Goiena.net', herritarren erdiak

*Goiena.net* Debagoieneko Interneteko ataria debagoiendarren erdiak (%48,7) ezagutzen du. Datu esanguratsua da, Goienaren hedabiderik gazteena dela kontuan izanda. 2004an sortu zen. Baina hemen aukera handiak zabaltzen zaizkio Goienari, bere Interneteko ataria ezagutzen ez dutenak berenganatzeko, populazioaren beste erdiak delako langai.

*Goiena.net* ezagutzen dutela esan dutenen artean, %79,5ek diote inoiz bisitatu dutela eta %19k bezperan bisitatu dutela. Batez beste, 15 minutu eman zuten bertan nabigatzen.

## 'Goiena.net' gazteen artean eta Oñatin bereziki

Gazteen artean da bereziki bisitatu *Goiena.net*: %62,8k ezagu-

tzen dute; helduen artean, %37,5ek.

Herrika, Oñatin du sarbide handiena *Goiena.net*-ek: %8,1; ondoren, Arrasaten (%6,8) eta Bergaran (%6,7) eta ondoren, Aretxabaletan: %5,5.

Inkestatuen artean, balorazio positiboa dute erabiltzaileek *Goiena.net*-i buruz: nota 7,4koa da, 0tik 10ekora bitartean. Eta bisitatu duten ia guztiak gustuko dute ataria (%96,6).



**Goiena telebista %91k ezagutzen dute**

Debagoieneko telebista hamar inkestatuetatik bederatzik ezagutzen dute. Eta, ezagutzen dutenen artean, bostetik lauk (%81,4) telebista kate hori noizbait ikusi dutela diote.

Herritarren %14,2k bezperan ikusi dutela diote (9.000 bat ikus-entzule egunerero) eta, batez beste, 24 minutu eman dituzte ikusi eta entzuten.

## Goiena telebistako ikus-entzuleen profila

Goiena telebistaren ikus-entzuleen profila hau da: ikus-entzuleen %57,5 gizonetako dira eta %42,5 emakumetako; ohiko ikusleen %67,5 helduak dira. Adin tarte horrek inkestatu guztien artean duen pisua antzekoa da; ikasketak aldetik, ikusle gehienek (%85,0) erdi mailako edo unibertsitateko ikasketak dituzte; ohiko ikusleen %28,6 oñatiarrak dira. Beste %24,0 arrasatearrak eta beste %19,3 aretxabaletarrak. Goiena telebistaren ikusle gehienak (%83,8) elebidunak dira.

## Telebistak Aretxabaletan du sarbide nagusi

Aretxabaletan du sarbide maila handiena Goiena telebistak (%19,3). Ondoren, Oñati (%17,2), Arrasate (%7,3) eta Bergara (%6,6).

EKHI ZUBIRIA | SOZIOLOGOA

## "Hazteko aukera handiak ditu 'Goiena.net'-ek"

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideei buruz herritarrek duten iritzieren gainean dihardugu Azti-kerko Ekhi Zubiriarekin.

**Inkestaren emaitzetatik, zer nabarmenduko zenuke, zerk eman dizue atentzioa bereziki?**

Deigarria izan da oso papereko *Goiena*-ren nagusitasuna, beste hedabideen aldean. Herritar ia guztiak ezagutzen dute *Goiena* paperekoa eta ia %80k astero irakurtzen dute; hau da, ohiko irakurleak dira.

**Beste eskualde edo herri batzuetako toki aldizkarietara alderatuta?**

Hori ere harrigarria; izan ere, beste toki aldizkari batzuek baino zabalkunde eta irakurle kopuru handiagoa dauka *Goiena* paperekoa. Ezagutza maila antzekoa izan daiteke, baina jarraipen maila handiagoa. Egia da Debagoiena oso eskualde euskalduna dela, eta horrek ere laguntzen duela, baina azpimarratzekoa da, bai, *Goiena* aldizkaria irakurtzeko ohitura eta maiztasuna.

**Krisiak krisi, papera nagusi?** Bai, Goienaren kasuan. Eredu ezberdina da: doanekoa, euskalduna eta unibertsala. Erreferente nagusia Debagoienean.

**Bada beste datu deigarri bat: informazio lokala eskaintzeari garrantzi handiagoa ematen zaio euskaraz izateari baino.**

Bai. Goienaren beharrezkotasunaren gainean galdetu genien herritarrei, eta, horren ostean, arrazoiak ere bai: euskaraz izatea edo informazio lokala eskaintzea. Eta biek ere emaitza onak jaso zituzten, baina gehiago izan ziren baloratu zutenak tokiko informazioa eskaintzea, euskaraz izatearen aldean. Horrek

erakusten du jendeak, militantziagatik baino gehiago, beharrezko duelako, kalitatezko informazio lokala eskaintzen zaiolako, kontsumitzen duela *Goiena* paperekoa.

**Debagoiendarrek beharrezkoak edo oso beharrezkoak dituzte Goienako hedabideak.**

Horixe da azpimarragarria, bai. Debagoiendarren %96,8k uste

**"Gehienendako ez dago inora lerrokatuta Goiena"**



Ekhi Zubiria. | x.u.

**"Eredu ezberdina da Goiena paperekoa: doan, euskaraz..."**

dute *Goiena* komunikazio taldea beharrezkoa edo oso beharrezkoa dela eskualdearendako.

**Eta, horien artean, era berean, pluraltasuna ere nabarmentzen du jendeak, ezta?**

Bai, hori ere oso inportantea da hedabide baten dako eta oso toki onean jartzen ditu Goienako profesionalak. Eta batera edo bestera lerrokatuta daudela esaten dutenen artean ere oso zatituta daude erantzunak.

**Goiena.net-en kasuan, ehuneko erdiak dioez due-**

**la ezagutzen. Aukerak hor, ezta?**

Horrek aukera eskaintzen dio Goienari hobetzeko. Goienaren proiektu berriena da, hazkunde handia izan duen arren. Eta, hori horrela izanik ere, debagoiendarren erdiek ezagutzen dute. Hori datu ona da. Akaso, paperekoa balia daiteke *Goiena.net* ere gehiago ezagutzen laguntzeko.

**Goiena.net'en erabiltze maila, handia?**

Bai. Internetek konpetentzia handia dauka, baina eskualdean webgune erreferentea da informazio lokala eskaintzeko orduan. Nagusi da eskualdean. Eskualdeko berriak sarean jasotzeko hedabide nagusi bilakatu da bederatzitarteotan.

ZURE NEGOZIORAKO MUGIMENDU PERFEKTUA  
**ESZEPTIKOAK, ONGI ETORRI**

**NISSAN NV400**  
FURGOIA 2.3i 100 ZP  
**15.300 €** \*tik hasita



ESPAINIAN FABRIKATUA  
**NISSAN NV200**  
KOMBI 1.5 dCi 90 ZP  
**10.500 €** \*tik hasita



Nissan. Innovation that excites.

**NISSAN GAURSA**

Otaola etorbidea, 22  
20600 Eibar (Gipuzkoa) - Tel. 943 82 09 74  
www.gaurzacars.com

\*FAP gomendatua honentzat: Nissan NV400 Furgoia L1H1 2.3i 100 ZP (74 kW) Oinarrizkoa eta honentzat: Nissan NV200 1.5 dCi Kombi oinarrizkoa 90 ZP (66 kW) penintsulan eta balearretan (BEZA, garraioa eta Nissan Assistance kanpo. Sustapen-kanpaina barne). Eroslearen izenean dagoen okasioko ibilgailua berriz erosita kanal pribatuan egindako salmentetarako. Beste salmenta-kanal edo baldintza batzuetarako joan Nissan kontzesionariora. Eskaintza 2012/07/31ra arte egongo da indarrean. Ikusten den modeloa NV200: Kombi Oinarrizkoa haguekin.

Gama: Kontsumo mistoa: 5,3-9,4 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 138-249 g/km.



Agurtzaine Gaintzarain, Goio Arana, Edorta Arana eta Mikel Irizar.



Jaurilaritzako Xabier Zabaltza, MUKo Josu Zabala eta Arrasateko EAJko Juan Karlos Garitano.



Marijo Deogracias eta Goienako programazio arduraduna, Oihane Agirre.

# Goienaren ohorez, topa!

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Aztikerrek egindako audientzia ikerketaren emaitza bikainengatik animatuta, edo aspaldiko lagun eta ezagunak batu zirelako ekitaldian, edo afaltzeko ordua gertu zegoelako... kontua da ekitaldi osteko lunchera jateko, edateko eta berriketarako gogoz joan zirela gonbidatuak. Monte tabernak zerbitzatutako jan-edan goxoez gozatu zuten.



Goienako Ander Monedero teknikaria, ekitaldian.



Topaguneko hiru lagun: Joxe Rojas, Itxaro Artola eta Rufina Olasagasti.



Aztikerko ikerlariak. | ARGAZKIAK: XABIER URTZELAI



Topaguneko Mikel Irizar eta Arrasateko euskalgintzako Unai Bergara.

**UBANE MADERA**  
GOIENAKO LANGILEA



"%96,8ren ustez gurea moduko proiektu bat beharrezkoa da debagoienarendako. Izan ere, sarri entzuten dugu gurea moduko proiektuak luxua direla. Eta euskarak ezin ditu murrizketa gehiago jasan".

**TXOMIN MADINA**  
GOIENAKO LANGILEA



"50 kateren artean Goiena telebista ikusi izanak pentsatu eragin dit. Zerk bultzatu ditu Goiena telebista aukeratzera? Espezializazioan dago gakoa. Debagoienari buruzkoa gara. Eta jendeak hori baloratzen du".

**GOITZ ARANA**  
GOIENAKO LANGILEA



"Guk uste baina jende gehiago dago *Goiena.net* ezagutzen ez duena oraindik: elkarrizketatuko herritarren ia erdiek ezagutzen dute. Erronka izango da gaur ezagutzen ez gaituztenek bihar ezagutzea eta sarri bisitatzea".

**RUFINA OLASAGASTI**  
GOIENAKO KOLABORATZAILEA



"Arrasatearren %90ek dute Goienaren berri, eta askok jarraitu egiten dute. Eta jarraitzen duten guztien %20 erdaldunak izatea pauso inportantea iruditzen zait denok batera funtzionatu ahal izateko".

**JAIONE ISAZELAIA**  
BERGARAKO UDALEKO KIDEA



"Deigarria egin zait dedikazioaren banaketa; webgunean sartzen direla oso denbora laburrean. Faltan igarri dut jakitea ea ze taletan sartzen den. Bestalde, paperak dauka fideltasun handiena".

**BESTE ALDE**  
rent a car

Tel. 618 88 12 42  
bestalde@bestalde.com  
www.bestalde.com

Hurbil gaude, zeu urrun eramateko.



Autoak



Ibilgailu industrialak



4 x 4



Autokarabana



Eta orain baita ere Eibarren

Ondorengo instalazioetan:  
**NISSAN GAURSA**  
Otaola Etorbidea, 22. 20600 Eibar  
Gipuzkoa

Arriandi Auzoa, 12. 48215 Iurreta-Bizkaia  
Areiltza Doktorea eta Estrauntza kaleen arteko izkina. 48011 Bilbao-Bizkaia



aurkeztu eta gero, gonbidatuek eta Goienako kideek lunchaz gozatu zuten, giro animatuan.



grabatzen.



Iñaki San Miguel eta Joxemari Muxika.



Lehen planoan, Inazio Arregi eta Oñatiko alkate ohi Lourdes Idoiaga.



Iñaki Artxe eta Ixaro Artola, Aztikerko emaitzen aurkezpenari adi.



Jaione Isazelaia –Bergarako Udala– eta Eneko Azkarate. | ARGAZKIAK: XABIER URTZELAI

## IKUSPUNTUA

**ESTEPAN  
PLAZAOLA**  
GOIENAKO  
PRESIDENTEA



### Jarraitzeko bizipoza

**B**ada gaurko ekonomian oso zabaldua dagoen esaldi bat: bezeroak beti du arrazoi. Zenbaiten iritziz, egokiagoa litzateke honela formulatuta: bezeroari beti entzun behar zaio.

Tokiko hedabideon indar nagusietako bat ere bezeroari entzuteko dugun aukera da. Goienak Aztikerren bidez pasatu duen galdeketa bezeroari entzuteko modu bat izan da. Eta uste dut jaso ditugun erantzunak poztekoak direla.

Bi datu ematearren, adibidez, pozgarria da herritarren %97k, erdaldunek barne, Goiena beharrezko edo oso beharrezkotzat jotzea, eta pozgarri da, halaber, prentsa krisian dagoela etengabe entzuten dugun garai hauetan herritarren hiru laurdunek adieraztea *Goiena* astero irakurtzen duela.

Baina galdeketak pozaz haratago aurrera etengabe hobetzen jarraitzeko indarra eman behar digu: Goiena gero eta parte-hartzaileagoa, gero eta biziagoa, gero eta bailaran txertatuagoa... azken batean, gero eta beharrezkoagoa izan dadin lanean jarraitzeko indarra.

Mila esker, Debagoiena, eta animo!

**LOURDES  
IDOIAGA**  
OÑATIKO ALKATE  
OHIA



"Poz handia eman dit ikustek Goienarekiko oñatiarren zintzotasuna, arlo guztietan. Oñati historikoki oso herri euskalduna izan da, eta Goiena proiektuan bere txokoa bilatu duela iruditzen zait".

**JOSU  
ZABALA**  
MU-KO  
ERREKTOREA



"Internet eta telebista gehiago ikusiko zirela pentsatzen nuen; eta paperezko *Goiena*-k zenbaterainoko interesa eta garrantzia duen ikustek harritu egin nau. Goiena proiektu sendotua dela ikusi da".

**XABIER  
ZABALZA**  
EUSKO  
JAURLARITZAKO  
BERRIKUNTZA  
ZUZENDARIA



"Atentzioa eman dit erdaldunek *Goiena* papera hainbeste irakurtzeak. Faltan igarri dut Interneteko datuak Interneteko datu orokorrekin modulatzeari. Telebistaren sarbidea oso desorekatuta ikusi dut herri".

**ARANTZAZU  
IDIGORAS**  
GOIENAKO  
KOLABORATZAILEA



"Gero eta gehiagora joan da Goiena. Oraindik sarea gehiago zabalduko da, eta hori oso ona da. Txostenak oso ondo islatzen du bizi dugun errealitatea: euskara zabaltzen doala eta Goienak lan izugarria egin duela".

**JOXE  
ROJAS**  
TOPAGUNEKO  
KIDEA



"Topaguneak beste hedabide batzuekin egin dituen azterketen emaitzen oso parekoak dira hauek. Indarra paperean dago; akaso frenoak zapaldu behar dugu Interneten, eta paperari gehiago eskaini".



SAN JUAN DE DIOS OSPITALE PSIKIATRIKOA

PSIKIATRIAKO, FAMILIA-TERAPIAKO ETA TERAPIA  
PSIKOLOGIKOKO KANPO-KONTSULTAK

HITZORDUAK



943 79 39 00

PSE 68/97

Gesalibar Auzoa 14  
20500 - ARRASATE

[www.hsjd.es](http://www.hsjd.es)  
[mondragon.admision@hsjd.es](mailto:mondragon.admision@hsjd.es)

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko  
Euskal Fundazioaren babesarekin

**JUAN ZELAIA**  
XII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:  
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren  
industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35  
[soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com)  
Arauk: [www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)



2012

# Ospitalea elkarlanaren eredu jarri du lehendakariak, inaugurazioan

Ekainaren 18a ezkerro martxan izan arren, atzo, eguena, inauguratu zuten Debagoieneko Ospitalea, hori bai, zinta mozketa barik

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Rafael Bengoa Osasun sailburuak eta Antonio Arraiza ospitaleko gerenteak egin zioten harrera ospitaleko sarreran Patxi Lopez lehendakariari, hainbat lagunek murrizketen aurkako elkarretaratzea egiten zuten bitartean. Agintarien artean izan ziren, baita ere, Arrasateko Udaleko ordezkariak, tartean, Amaia Larrañagak funtziotan dagoen Arrasateko alkateak.

Zinta mozketa barik, zuzenean ekitaldirako bigarren solairuan egokitutako aretora jo, eta hantxe hartu zuten diskurtsoetarako tartea agintari eta ospitaleko ordezkariak.

## Eredugarria

Lehendakariak integrazioaren, elkarlanaren eta koordinazioaren eredutzat jarri zuen ospitale berria bere diskurtsoan.

Arrasateko alkate funtziotan dagoen Amaia Larrañaga, berriz, pozik azaldu zen, batez ere, zabalik daramatzan asteotan "iritzi positiboak bakarrik" jaso dituztelako erabiltzaileengandik. Era berean, erantzukizunez jokatzeko eskatu zuen Larrañagak, ospitaleko zerbitzuak gaur egungo eta etorkizuneko beharretara egokituaz joan daitezela.

Bestalde, Antonio Arraiza ospitaleko gerenteak ospitale berriaren ametsa zelari gauzatu den azaldu eta 60.000tik gora diren Debagoieneko biztanleak hobeto atenditzeko egin dituzten berrikuntzen gaineko argibideak eman zituen: sei kirofano, eta suspertze unitatean zortzi ohe egokitu dituzte. Nabarmendu zuen, baita ere, behar izanez gero



Lopez lehendakaria, Bengoa sailburua, Arraiza gerentea eta Larrañaga alkate funtziotan. | M.A.

## ESANAK

**"Integrazioan eta elkarlanean oinarritzen da ospitalea"**

PATXI LOPEZ | LEHENDAKARIA

gauze ere zabalik izango direla ohe horiek, hemengo bizilagunek Gasteizera joan beharrik izan ez dezaten.

## "Hobekuntza garrantzitsuak"

Horrez gainera, larrialdietan egin dituzten hobekuntzak ere garrantzitsuak direla esan zuen Arraizek: aparteko sarrera, zazpi gelatik hamarrerako igoera, eta

gaixoak suspertzeko bi gune aipatu zituen, hain zuzen ere. Eta gogora ekarri zuen erradiologia zerbitzu guztia digitalizatu egin dutela, haren segurtasuna eta eraginkortasuna handituz.

Arraiza gerenteak emandako bestelako datuen artean, ospitalak eskaintzen dituen zerbitzuek ere gora egin dutela aipatzekoa da; bereziki honako hauek aipatu zituen berak: hematologia, endokrinologia, erresonantzia magnetikoko ekipo bat eta zaintza paliatiboaren unitatea.

Horrekin batera, iragarri zuen irailetik aurrera, neurologia eta urologiako kirurgia ere eskainiko dituztela.

## Puntako ginekologia zerbitzua

Eta bestalde, ginekologia zerbitzuak eta erditze unitateak ere berbagai izan zituen Arraizak.

Bi gune horiek izan dituzten hobekuntzek erditze naturala eta errespetuzkoa ahalbidetuko duen gunea ezarrita dagoela adierazi zuen. Xehetasun gehiago ere eman zituen: hori guztia 95 oherekin osatu dute, eta gela eta areto eroso eta modernoekin.

## Murrizketen kontra

Ospitaleko kontuez jardutez gainera, baina, Arrasatera egindako bisitan, Espainiako gobernutik datozen murrizketen kontra egiteko aprobetxatu zuen Patxi Lopez lehendakariak; era berean erforma zerga politika berri baten beharra aldarrikatu zuen.

Bestalde, bisita bukatu baino lehen, eta ekitaldia borobiltzeko, ospitale berriaren hainbat gune erakutsi zizkieten lehendakariari, tartean erradiologia eta larrialdi zerbitzuak.

## 'Busti Zaitetz', esklerosi anizkoitzagatik, domekan

U.M. | ARRASATE

Arrasaten eta Oñatin egin dute hitzordua etziko, domeka, esklerosi anizkoitzaren aldeko *Busti Zaitetz* kanpaina egiteko.

## Diploma eta guzti

Arrasateko kasuan, Musakolako igerilekuan gune bat egokituko dute. Hala, esklerosi anizkoitzaren alde lagundu gura dutenak bertan igeri egitera edo "bustitzera" gonbidatu dituzte.

Jakinarazi dute amaieran igeri egindako metro guztiak zenbatuko dituztela, eta baita ere mahai informatiboa ipiniko dutela bertan, eta kanpainen parte hartzen dutenei diplomak emango dizkietela.

## Oñatin estreinaldia

Oñatin, berriz, lehen aldiz egingo dute kanpaina hori, "elkarreko bazkide eta boluntarioen lanari esker". Iragarri dute materiala saltzeko eta informazioa emateko puntua jarriko dutela herriko plazan.

Ibarrekoetz gain, Gipuzkoako beste 13 puntutan ere gauzatu dute *Busti Zaitetz* kanpaina. Euskadin eta Estatuan esklerosi anizkoitzaren aldeko kanpaina garrantzitsuena dela adierazi du Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartek. Iaz 40.000 lagunek parte hartu zuen. Helburua, gizartea sentsibilizatu eta gaixotasunak sorrarazten dituen arazoez informatzeaz gainera, ADEMGik (esklerosi anizkoitzaren fundazioak) 2007an ireki zuen esklerosi anizkoitza eta beste gaixotasun neurologikoen zentroan gaixoei eskaintzen dien birgaitze zerbitzua finantzatzeko dirua lortzea da.

## Langabeziak apur bat behera egin zuten ekainean Debagoiengan

M.B. | ARRASATE

Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak asteon eman ditu aditzera ekaineko langabezia datuak. Horren arabera, 3.250 langabe zeuden ekainean Debagoiengan (%10,90). 2012ko daturik onena da; izan ere, orain arteko hilabete guztietako zifrek gaintu egiten dute hori, eta martxoan hasitako beheranzko joerarekin jarraitzea dakar.

Herriz herri, joera beheranzkoa izan da Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin; alderantziz, langabeziak gora egin du Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan; eta bere horretan mantendu da Aretxabaletan.

## HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	101	%9,26
Aretxabaleta	309	%9,14
Arrasate	1.322	%12,76
Bergara	801	%11,42
Elgeta	54	%9,96
Eskoriatza	217	%10,65
Leintz Gatzaga	8	%5,93
Oñati	438	%8,35
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.250</b>	<b>%10,90</b>

\*Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoa



AMAIA TXINTXURRETA

## Senpereko hilketa salatu zuten

*Emakumeei erasorik ez!* lelopean zenbait lagunek elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Arrasaten. Aurreko egubakoitzean Senperen gertatutako erailketa salatu zuten Herriko Plazan. Hain zuzen, 85 urteko gizonezko batek emaztea tiroz hil eta bere buruaz beste egin zuten gero.

## Aloña ilunabarrean ezagutzeko irteera egingo dute zapatuan

Aloña ilunabarrean ezagutzeko irteera antolatu dute Arantzazuko parketxeak eta Arantzazuko Adiskideak elkartek. Bihar, zapatua, izango da, *Mendiko paisaia ilunabarrean* izenarekin, eta Aizkorri-Aratz parkeko mendebaldeko mendiguneak eta Aloña mendiaren inguruneak ilunabarrean duten xarmaz gozatzeko aukera egongo da. 18:00etan abiatuko da, Arantzazuko aparkalekutik, Turismo Bulego ondotik. Izena emateko deitu Arantzazuko parketxera (943 78 28 94). Prezioa 3 euro da nagusiendako eta 2 euro, 6 eta 12 urte arteko umeendako.



EH Bilduko ordezkariak eguazteneko prentsaurrekoan. | MAIALEN REGUEIRO

## Zentsura-mozioaren aurkako manifestaziorako deia

Bihar, zapatua, 17:30ean aterako da Donostiako Bulebarretik; ibarretik autobusak antolatu dituzte

UBANE MADERA | ARRASATE

Ezustekorik ez, gaur, egubakoitza, Juan Karlos Alduntzin Ingurumen diputatuaren aurkako zentsura-mozioa onartu dute Batzar Nagusietan, EAJk, PSE-EEk eta PPK babestuta.

### "Birziklatzeari zentsurarik ez"

Bada, horren kontra mobilizatzeko dei egin dute ibarreko EH Bildu koalizioko ordezkariak. Hain zuzen, bihar, zapatua, egingo dute manifestazioa, 17:30ean Donostiako Bulebarretik aterata. Irarri dute autobusak ipiniko dituztela ibarretik. *Birziklatzeari zentsurarik ez; Gipuzkoa aldatzen ari gara* da erabiliko duten leloa.

### "Neurritz kanpoko"

Alduntzini ezarritako "zentsura-mozioa neurritz kanpoko" dela nabarmendu dute EH Bilduko

Debagoieneko kideek. "Horrelako mozioak lapurretak egin dituzten politikarientzat pentsatuta daude. Eta ezin da ukatu Gipuzkoan horrelako ekimena merezi izan duten iruzurrak egon direla, baina inoiz ez da erabili. Bidegin utzitako 900 milioiko zuloa, adibidez. Baina ez EAJk, ez PPK eta ez PSE-EEk ez dute horrelako beharrik sentitu, eta lehen aldiz zentsura-mozio bat bere programa betetzen duen diputatu bati ezarriko diote", salatu zuten eguazteneko prentsaurrekoan.

### "EAJren jarrera kezagarria"

"EAJren jarrera kezagarria" ere salatu zuten agerraldi berean, PSErekin eta PPrekin batu delako "iraganeko *statu quo* mantentzeko (...). Gipuzkoan erabakitze eskubidearen inguruko gehiengo berriak osatzeko urratsak eman behar, herri honen hitza

behin eta berriz ukatzen dutenekin batu da", adierazi zuten.

### Konponbidea esku artean

Orokorrean hondakinen arazoa konpontzeko prestatu eta aplikatu gura duten plana defendatu zuten EH Bilduko ordezkariak: "Konponbidea dugu esku artean, eta gainera, 200 milioi euro gutxiago kostatuko da, erdia alajaina, eta Europako ebazpenetan oinarritzen da, hau da, birziklatzean, eta ez hondakinen errausketan. Horixe da gakoa: plan hau oso egingarria eta errealista da, ez da utopikoa. EAJ, PSE-EE eta PP laster jabetu dira planaren potentzialtasunaz eta hori ezkutatzeko, zaratak eta espantuka hasi dira, benetako eztabaidari ihes egiteko".

### Debagoiena adibide

Eta gure ibarra jarri zuten adibide moduan: "Antzuolan hondakinak biltzeko atez ateko sistema jarri zuten martxan eta dagoeneko %80tik gora birziklatzen dute (...) Orain sistemak gero eta hobeto funtzionatzen du, beraz, zilegiak izango diren kontrako argudioak erabili behar, gezurrak eta argazki manipulatuak erabiltzen dituzte Debagoien osoan".

## Debarroaren defentsan, bizikleta martxa uztailearen 12an

TXOMIN MADINA | ARRASATE

*Debaldea bizirik, enplegua eta eskubideen alde, burujabetza ekonomiko eta soziala* lelopean bizikleta martxa egingo dute uztailearen 12an, LAB sindikatuak deituta. Bi zutabe izango ditu: bata Mutrikutik irtengo da, bestea Eskoriatzatik, eta biek Eibarren izango dute helmuga.

09:30ean irtengo da Eskoriatzako zutabea. Geldialdiak egingo ditu herrietan, bertako egoera ezagutzeko. Langile eta eragileekin elkartzeko dira, baita emakume, gazte eta helduekin ere. 17:00 aldera, berriz, Maltzagan Mutrikutik datozenekin elkartu eta Eibarren 18:30ean manifestazioa egingo dute.

LAB sindikatuko ordezkariak prentsaurrekoan esan dute "ozen" aldarrikatzen dutela sindikatuaren izaera soziopolitiko, "Euskal Herria independente eta sozialista eraikitzea" dutela helburua eta euskal esparru sozioekonomikoaren defentsa egiten dutela.

Eta salatu dute krisi ekonomikoaren aitzakiarekin patronala, banka eta lekuan lekuko gobernuak langileen kontrako neurri onartezinak hartzen dabiltzala. Gaineratu dute balaran egoera hobeto dagoela uste arren, langabeziak asko egin duela gora, enpresek itxi beharra izan dutela eta banakako kaleratze ugari izan direla.



LABeko ordezkariak, prentsaurrekoan. | TXOMIN MADINA

## EkoBira kontsumo jasangarriaren azoka egongo da bihar Bergaran egun osoan

M.B. | ARRASATE

Kutxa Ekoguneak bultzatutako EkoBira azoka jasangarria antolatu du aurten bigarren bez. Gipuzkoako 10 herritan barrena ibiliko da eta bihar, zapatua, Bergarara iritsiko da.

San Martin plazan jarriko dute eta 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era "beste kon-

sumo era bat posible dela" egiaztatu ahal izango dute bisitariak han egongo diren askotariko postuekin. Kontsumo jasangarria eta solidarioa sustatzea da Kutxa Ekogunearen ildo estrategikoetako bat eta horren harira bultzatu du EkoBira azoka aurten bigarren bez.

## Ibilgailuen osagaiak berritzeko proiektuak saritu dituzte MUK eta Maierrek

Colour&Trim Industria Diseinuko sariak banatu zituzten atzo; 50 ikaslek hartu dute parte sariketan

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitatean abiatu berri den Diseinu Berrikuntzako Zentroak (DBZ) eta Maier enpresak Colour & Trim Industria Diseinuko sariak banatu zituzten atzo. Automozio-sektoreari lotutako sariak dira, ibilgailuen osagaiak berritzearen ingurukoak, eta asmoa da ikasleek erabiltzaileen interesa pizteko asmoz autoen

akaberen diseinuan eta material, kolore eta testura berritzaile eta erakargarrietan proposamen hoberenak egitea.

### Lau sari banatu dituzte

Guztira, 50 ikaslek hartu dute parte lehiaketan eta Master saria jaso du Iker Agirre, Elene Cid, Leire Goitia eta Amaia Zapirainek egindako Organic Sophistication



Sarituak, ekitaldian parte hartu zuten hizlariekin. | MONDRAGON UNIBERTSITATEA

proiektuak, material naturalen erabilerrari buruzko ikerketagatik. Graduako lehen saria Xabier Albizuk jaso du Stress Society lanarekin: itsas inguru batean inspiratutako ingurune erlaxagarria sortzeagatik saritu dute. Graduako bigarren saria Laura Julianek eskuratu du Comfort&Welfare lanagatik: Zura eta aromaterapia kontzeptua konbinatzeagatik eta

ibilgailuaren barruan lortu duen material eta koloreen harmoniatagatik.

Bestalde, Materioteka onenarentzako Graduako saria ere banatu zuten eta hori Izaskun Peñagarikanoren Urban Nomads proiektuak jaso du, Urban Nomads eta auto elektrikoaren joeraren inguruan egindako ikerketaren koherentziagatik

Horrekin batera, sari-emate ekitaldian Europako bi industria-diseinatzaile ezagunek ere hartu zuten parte: Gail Patrick, Colour&Trimeko diseinatzaileak, Europako Nissaneko diseinu-estudioan hamar urtez lanean aritutakoak, eta Simon Harrisek, industria diseinatzailea eta Vision Auto Envisioneko diseinuburuak.

## ZABALIK

JON  
ETXEBERRIA  
http://goiena.net/  
iritzia/



## Euskadi Modeloa?

Aurre-kanpainan bete-betean gaude Euskal Autonomia Erki-degoan eta alderdien estrategia elektoralak martxa onean dabilza. Horien artean Patxi Lopezena da ziur aski mediatikoena. Apirilean Egi-gurenak publikoki aurreratu zuen PPrekin apurtu beharra zutela, hau-teskudeetara iritsi aurretik bereiztea komeni baitzitzaizen, bestela alderdi biek botoak galduko baitzituzten. Estrategia perfektua, haserretu diren itxurak egin eta, herritarrek inozoak garenez, denbora gutxian ahaztuko genuen beraien arteko hiru urteko ezkontza. Nahiz eta alderdi biek ez zuten, hila-bete besterik ez zen pasa, maiatzean Basagoitik gobernu akordioa apurtutzat eman zuen arte, Egi-gurenak argitaratu zuen gidioa jarraituz eta aurre-kanpai-nari hasiera emanez.

Orduz gero, Patxi Lopez, PPTik urrutzen saiatzeaz gain, Madrilgo gobernuari oposizioa egiten hasi da murrizketen aurrean gobernatzeko beste modu bat aldarrikatu. Propagandaren arabera (*Ireki* webgunea), "duela hiru urtetik hona", bere gober-nua (PPren laguntzarekin), sozialde-mokraziaren printzipioetan oinarritu-ta, "Euskadi Modeloa" deritzona erai-kitzen ari da eta ondorioz Euskadi "krisiaren aurrean hobeto eusten ari den Europa hegoaldeko komunitate-tako bat bihurtu da". Funtsean, mode-lo hori giza gastuak ez murriztean datza, horretarako zorpetzea handituz eta gastu ez prioritarioak murriztuz.

Krisiari inguruak baino hobeto eusten ari garela nahiko garbi dago, baina hori azaltzeko hiru urte baino askoz atzerago joan beharra daukagu, eta gobernu baten meritua beharrean, hamarkada askotako eta pertsona asko-ren lanaren ondorioa dela esango nuke. "Euskadi Modeloa" zerbaiti deitezketan, gure ekonomia ereduari deituko nioke nik, bertakoa den industria esportaz-zaile eta sendoa oinarritua eta I+Gn inbertitzen ohitua dagoena. Gure koo-peratiba asko horren erakusgarri bikai-nak dira. Estatuan, aspaldidanik ari dira eredu ekonomikoa aldatzearen garrantziak berba egiten. Zapaterok berak 2009an onartu zuenez, 2004tik Madrilgo gobernu eredu ekonomikoa aldatzen saiatu zen buru-belarri, eta guztiok dakigu ze emaitzarekin. Agian Patxiri laguntza eskatu izan balio...

## Nora joan nahi duzu?

Jose Antonio Amundarain  
Oñati

Eskoriatzatik Ander Urrondok sinatutako idatziak behartu nau hitz gutxi batzuk esatera.

Ez baita normala hondakinak nola jaso eta zer egin behar genukeenari buruz iritzia emateagatik iraindu, mespretxatu, kriminalizatu eta, gainera, bide batez guztion aitajaun-amandreak zikindu nahi izatea.

Ze eskubide daukazu zuk pertsonak horrela tratatzeko?

Zuk diozun 35 urteko historia difamatzaile horrekin ez dauka inongo zerikusirik gure gazte honek, jaio gabe zegoelako oraindik, baina mingaina luzea eta lotsagabea edukitzeak horrelako hanka-sartzeak ekartzen ditu eta zu ere harrokeriaren eta ezjakintasunaren zepoan erori zara.

Kontzientziaren zama berriz har ezazu zure bizkar gainean beste inori bota gabe, zeren eta, idatzi dituzunak idatzi eta gero, Lazkao Txiki bertsolari handiaren kontzientziari buruzko bertsoa baitatorkit gogora: *Kontzientzia nolakua dan / nahi nuke esaten hasi / ez dakienak ikasitza / komeni baita lenbizi; zerbait sentitzen dezuten hoek / bazterturikan ez utzi / gaizki eginda sortutzen zaigun / xomorrotxo gaizto hori.*

Eztabaidan dagoen gaia alde batera utzi maltzurkeriaz eta batzuk hain gustuko duzuen inpunitate dialektikoa aprobetxatuz zure pozo guztia bota duzu gaztearen kontra.

Lazkao Txiki esandakoak *-gaizki eginda sortutzen zaigun zomorro gaizto horrek-* seguru nago zure barruko errainak mugiaraziko dizkizula, baldin eta kontzientziarik baldin badaukazu, behintzat, zeren idatzi horretan erakusten duzun amorrua ikusita ez baitirudi kontzientziatik sobran zaudenik.

Aintzane Oiarbideren eta Ander Lizarralderen arteko eztabaida bi ikuspuntu ezberdinen arteko azalpena da. Aintzane errauskailuaren aldeko erabakia defendatzen du eta Anderrek, berriz, errauskailuaren beharrik ez izateko hemen bertan eta munduan martxan dagoen sistema defendatzen du, eta, gainera, inori errespetua galdu gabe.

Azkenik, bukatzeko, ahokada iraingarri horiekin zure asmoa aldeetako bat jokoz kanpo uztea baldin bada, ziur egon zaitez ez duzula lortuko.

## GUTUNAK

## EAJ-PSE-PPren zentsura mozioaren aurrean

Maidier Otamendi, Ander Rodriguez, Rebeka Ubera eta Enrike Letona  
(Debagoieneko EH Bilduren izenean)  
Debagoiena

Artikulu hau argitaratzen denerako, ezustekorik ez badago, Gipuzkoan Ingurumen Foru Diputatu gabe egongo gara dagoeneko, EAJ-PSE-PPk aurkeztutako eta elkar hartuta aurrera ateratako zentsura mozioaren ondorioz. Baina ez gaude, ordea, hiri hondakin kudeaketa integralerako alternatiba edota proiekturik gabe. Ez dagoelako zentsura moziorik proiektu bideragarri eta eraginkorren gainetik pasa daitekeenik.

Aspaldiko urteetan EAJ-PSE-PP makro-azpiegiturak ardatz dituzten proiektuak sustatzen eta garatzen ari dira. Baita hiri hondakin kudeaketarako egin duten planteamenduan ere; lurraldeko errealitatea kontuan hartu gabe, bertako ekonomiarik, gizartearik eta ingurugiroari erreparatu gabe. Azken hilabeteotan, hauteskunde usainean guztiz manipulatu eta politizatu hondakin gaia, beste helburu batzuk begi bistan izanik.

Guk garbi daukagu berandu baino lehen hiri hondakin arazoari bere osotasunean irtenbidea emango diogula, atez ate-bosgarren edukiontzia eztabaida antzu eta faltsuetatik haratago. Eta bide horretan, Aldundiak aurkeztu zuen garapen estrategia.

Saiakera ere egin da egon daitezkeen bi alternatiben inguruan hurbilpen bat lortzen, Foru Diputatu Nagusiak alderdi guztiekin abian jarritako elkarrizketaren bidez. Baina arrakasta handirik gabe.

Hor dugu, esaterako, Aldundiaren barruan sorturiko Hondakin Kontseilua, bertan daude esparru desberdinetako ordezkariak guztiak lehendabizikoz elkarrekin, alde bateko eta beste gehiengoak gaituz. Agian, balizko hauteskunde atari honetan ezinezkoa dena hauteskunde ostean guztiok posible egin genezake.

Gu konbentzitu gaude, guztion artean, herritarrek behar duten eta lurraldera egokituta egongo den irtenbidea bilatu dezakegula, dauden bi alternatiben inguruko eztabaida patxadatsu eta arduratsua mantentzeko

gai bagara, benetan konponbidean zentratzen bagara.

Eta horregatik guztiarengatik, zentsura mozioen gainetik eskua luzatuta lanean jarraituko dugu, arduraz jokatu.

## Antzuolako Udal Gobernu taldearen urtebeteko balorazioa

Ima Beristain  
(Antzuolako Udal Gobernu taldearen izenean)  
Antzuola

Urtea bete da agintaldi berriko Udal Gobernu eratu genuenetik eta Bilduko alkate eta zinegotziok urtearen gaineko balorazioa egin nahi genuke.

Udal Gobernuak pozik dago lehen urte honetan egindako lanarekin.

Guztionez berria izan da Udaleko jarduna, baina Antzuolaren eta antzuolarren alde lan egiteko dugun ilusioak laguntzen digu.

Elkarrekin ikasi dugu eta ikasten ari gara.

Taldean konpartitu dugu guztia, ilusioak eta desengainuak, eta horri esker lantalde ederra sortu dugu.

Dauzkagun baliabideekin, hau da, diru gutxi eta ilusio eta lan asko, ari gara aurrera egiten.

Bagabiltza gaiak bideratzen eta aurrerantzean egiteko asmoz ditugun lanak ateratzeko zutabeak eraikitzen.

Udalan gehiengo edukituen arren, nahiago genuke Udaleko beste taldeekin gehiago joratu, baina hau ez dago gure esku bakarrik.

Ez goaz orain banan-banan urte honetan egindakoak eta egin gabekoak zerrendatzera.

Aurrera begiratu nahi dugu eta askotan hain urrun gelditzen den Udala herritarrengana gerturatu.

Gure asmoa herria eta Udala bateratzea da.

Herritarrekin konpartitu nahi ditugu gure asmo eta nahiak, eta herritarren iritzia ere ezagutu nahi dugu.

Horretarako, uda ostean parte-hartze prozesu bat jarri nahi dugu martxan 2013ko aurrekontuak guztion artean egiteko.

Parte-hartze prozesu hau ez da egun bateko lorea izango, etorkizunean ere auzolanean egin nahi dugu lan, antzuolar guztion artean erabaki dezagun nolako Antzuola nahi dugun.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bane). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñati Lizenziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berbizar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A**  
ARRASATE 20500:  
Oñati Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Ikerne Badiola** | Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua

# "Kultura politizatzea da kulturari berari egin diezaiokegun txarrena; ez da gure asmoa"

- ▶ Ikerne Badiolak Kultura, Kirol eta Gazteria departamentuak kudeatzen ditu Diputazioan
- ▶ Tabakalera hemengo kultura eta kanpokoa batuko dituen zentroa izango dela dio

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ikerne Badiolak (Zumarraga, 1971) urtebete darama diputatu lanetan, Gipuzkoako Kultura, Kirol eta Gazteria departamentuak kudeatzen. Orain arte egindakoen eta aurrera begira dituzten asmoen gainean egin du berba.

**Urtebete honetan aurreikuspenak bete dituzue?**

Poliki-poliki ari gara; etxeari eta hiru departamentuei neurria hartzea ez da erraza izan, baina ari gara markatuta geneukana betetzen.

**Aurrekoek egin zutenetik zeri egin diozue uko eta zerekin egin duzue aurrera?**

Alde batetik, bistan dago egun batetik bestera ezin direla gauzak aldatu. Eta gainera, lehenagotik egindako gauza guztiak ez daude ondo, baina dena ere ez da txarto egin. Dena aztertu ondoren, egiten ari garen lana datorren urtean ikusten hasiko gara.

**Zenbateraino baldintzatu du krisiak Diputazioaren jarduna?**

Bada, baldintzatu du, eta ez kultura arloa bakarrik, baita gestio osoa ere. Diputazioa sartu eta hilabetera jabetu ginen benetako egoera esaten zena baino larriagoa zela. Aurtengo aurrekontuak prestatzen hasi ginen berehala, eta departamentu guztietan izan du eragina. Orain arteko zerbitzu guztiei ahal izan dugun moduan eutsi diegu. Eta gastu ez horren garrantzitsuetan guraizeak sartu ditugu.

**Gizarte Zerbitzuei garrantzi handia eman diezue. Eta ze garrantzi emanen diezue kulturari?**

Foru Gobernu honendako kultura oso garrantzitsua da, baina Gizarte Zerbitzuetan hasieratik esan genuen ez genuela murrizketarik egingo, eta horrela bete dugu. Eta gainontzeko arloetan, beharrezkoak ez diren gastuak murriztu ditugu.

**Kultura arloko hainbat proiektu dituzue esku artean, baina zuen jardunean protagonismo handiagoa izan dute, edo gai zaratatsuagoak izan dira, errepideenak edota hondakinenak.**

Bai, zarata mediatikoa errepideetako bidesarien gaiak atera du, eta baita hondakinen gaiak ere. Baina kultura mailan oso proiektu garrantzitsuak atera ditugu aurrera. Urtetan kaxoian gordeta egon diren proiektuak, polemika sortu dutenak, eta aurrera doazenak. Tabakaleraz ari naiz.

**Orain aukeratu dituzue zuzendaria eta gerentea.**

Nik uste dut joan den astean erabaki garrantzitsuak hartu geni-



Ikerne Badiola, bulegoan. | GOIENA

tuela Tabakaleraren etorkizunarako. Beste etapa bati ekin genion, 2016an Tabakalera errealitate izan dadin.

**Ordurako zabalik egongo da?**

Horiek dira aurreikuspenak. Obrak martxa onean doaz, eta zuzendaritzaren aukeraketarekin eta hiru instituzioen inplikazioarekin programa kulturala abiaraziko dugu.

**Ze aurrekontu duzue Tabakalera martxan jartzeko?**

Aurrekontua 56 milioi euro da; Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako

**"Tabakaleraren eragina Euskal Herri osoan igarriko da, ez hemen bakarrik"**

**"Tabakalerak, Koldo Mitxelenak, Artelekuk... osagarri izan behar dute"**

Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak hartzen dugu esku proiektuan. Aldi berean, oso garrantzitsua izan da Kutxa proiektuan inplikatu izana, eta etorkizunean ez dugu baztertzen esku-hartze pribatu gehiago izatea.

**Eta kopuru horretatik Diputazioak ze kantitate jartzen du?**

Instituzio bakoitzaren ekarpena %30ekoa da. Baina, diodan moduan, esku pribatuetatik dirua sartzen doan neurrian, portzentaje hori txikitzen joango da.

**Zehatz-mehatz, zer izango da Tabakalera?**

Tabakalera European erreferente izango den zentro bat izango da. Gure kultura eta kanpoko kulturak batuko dituen zentroa, eta gure sortzaileendako erakustokia. Hori betetzeko, baina, hiru instituzioek orain arteko apustuarekin jarraitu behar dugu.

**Ze eragin izango du Tabakalerak? Donostiara mugatuko da? Gipuzkoara? Euskal Herrira?**

Nik uste dut Euskal Herri mailako eragina izango duela. Donostian egongo da, eta bistakoa da Gipuzkoan gehiago igarriko dugula Tabakaleraren presentzia. Baina gure nahia Donostiara

doan edonork Tabakalera bisitatu eta askoren elkargune bilakatzea da. Ez bakarrik artista edo sortzaileena, baita herritarrena ere.

**Tabakalera martxan jarrita, Koldo Mitxelenak, Arteleku... Proiektu horiek ondo bereiztuta geratzen dira?**

Proiektu bakoitza bereiztuta geratuko da, baina haien arteko elkarlana bultzatu beharko da, denak uztartu. Zentro horien arteko harremana sustatu beharko da, elkarren artean osagarri izan daitezten.

**"Gipuzkoako museoek kudeaketa berrantolatu egin behar da"**

**"Bergarako Errege Mintegiko zientzia bildumari soluzioa eman nahi diogu"**

**Arteleku berriro ere zabalik dago. Zer eskainiko du?**

Zazpi hilabetez itxita egon da, azaroko uholdeek lehenengo solairuan kalte handiak eragin zituztelako. Eta orain arteko ispiritu berberaz jarraituko du; orain momentuan 20 artista dabilta bertan lanean.

**Kultura sailburu Blanca Urgell kritiko azaldu da Bildurekin; hainbat proiektu patrimonializatu egin nahi dituzuela esan du.**

Bueno, haren adierazpenak dira. Lan egitea, hori da egin dugun gauza bakarra. Gertatzen dena da, lehen, Jaurlaritzan eta Donostiako Udalean sozialistak zeudela, eta orain, jendeak hauteskunderetan hala erabakita, egoera aldatu egin dela. Eta badirudi batzuei oraindik kostatzen zaiela egoera berrira moldatzea. Dena dela, pena da kultura eta kulturaren mundua politizatzea; kulturari egin diezaiokegun kalterik handiena da hori.

**Aurreko agintaldietan, egoera ekonomiko hobea izan direnean, inbertsio handiak egin dira azpiegiturretan. Orain?**

Nik uste dut Gipuzkoan kirol eta kultura arloan azpiegitura politikak daudela. Lehenagoko urteotan asko gastatu da, eta egun, esaterako, herri gehienek dute kultura etxe txukuna. Oraindik egingo dira, aipatzen ari gara Tabakaleraren proiektua eta beste. Baina gehiago zentratuko gara ditugunak ondo mantentzen.

**Museo asko daude Gipuzkoan; ze asmo duzue horiei begira?**

Diputazioak bost museo ditu, eta bakoitza modu ezberdinean kudeatuta dago. Horrekin batera, beste 47 museo ditugu Gipuzkoan, eta horien kudeaketa berrantolatu egin behar dela uste dugu, eta sinergiak aprobetxatu.

**Baialaran bada museo bat, Bergarako Errege Mintegiko Zientzia Bilduma, baina leku fisikoa falta da bertako bilduma erakusteko. Konponbiderik?**

Horretan ari gara, Bergarako jendearekin egon gara, bai ni eta baita diputatu nagusia ere. Gaur egungo egoerarekin ez da erraza, hori da egia, baina ea legealdi honetan soluzio bat aurkitzen dugun.

**Zer duzue buruan? Errege Mintegiko eraikinean bertan kokatzea museoak?**

Bada, ideia hori izango litzateke, baina tartean ere beste arazo batzuk daude, eta guztiei eman behar zaie soluzioa.



# HERRIAK

OÑATI

## Berdintasun planarekin, sentsibilizazioa zabaldu

- ▶ Berdintasunaren diagnostika egingo dute aurretik, lan ildoak zehazteko
- ▶ Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa dela uste du Oñatiko Udalak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko berdintasunerako diagnostika eta plana egin gura ditu Udalak. Plan horrek, gainera, berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa zabaltzen laguntzea du helburu. Maiatzean hasi dira lan hori egiten, eta urtea bukatu aurretik amaitu gura dute.

### Arazoak identifikatu

Diagnosiaren helburu orokorra da herriko gizonen eta emakumeen errealitatearen ezagutza sakona lortzea, euren arazoak identifikatzea eta gizon emakumeen berdintasunean aurrera egiteko oinarrikoak diren esku-hartze eremuak definitzea.

Berdintasun zinegotzi Maialen Urtzelaiaren esanetan, arlo ezberdinak aztertuko dituzte. "Udal baliabide eta zerbitzuen erabilpenean, adibidez, gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak zehaztu eta oinarrian dauden arazoak zeintzuk diren aztertuko dugu. Bestalde, emakumeen eta gizonen ardura eta inplikazio mailak ere aztertuko ditugu; esaterako, etxeko lanen banaketan, aisialdirako denborearen erabilpenean edo zaintza lanetan". Azterketa horiek, gainera, emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak Oñatin duen nolakotasuna ezagutzen ere lagunduko dio Udalari.

### Herriaren inplikazioa

Berdintasunaren diagnostika eta plana egiteko arlo ezberdinetan diharduten herritarren parte-hartzea bultzatu gura du Udalak. Batetik, herritarrek bizi diren esparru ezberdinetan berdintasunaren maila zenbatekoa den eta herritarrek duten ezagutza eta konpromiso maila zein den jasoko du modu horretara Udalak. "Bestetik, Udaleko langileek berdintasun gaien inguruan duten ezagutza eta sentsibilizazio maila ezagutu eta haien zereginetan genero ikuspegia txertatzeko dituzten aukerak eta zailtasunak ere jasoko ditugu", zehaztu du Berdintasun zinegotziak, Maialen Urtzelaiak.

### Elkarrizketak

Berdintasunaren diagnostika egiteko prozesuak finkatuta dituzte dagoeneko. Hiru fase nagusi izan-



Gizonezkoa, umeari jaten ematen. | ANITA PATTERSON

go ditu: lehen fasean, iturri ezberdinak kontsultatuko dituzte familiarren eta lan bizitzaren bateragarritasun, hezkuntza, mugikortasun, osasun, emakumeen aurkako indarkeria edo, adibidez, hirigintzari buruz jakiteko; bigarren fasean, elkarrizketak egingo dituzte; eta hirugarrenean, lehen eta bigarren fasean jaso duten informazioaren irakurketa egingo dute.

### Parte-hartzea

Beste esparru batzuetan egin beza, proiektu hori ere parte-hartze sistemaren bidez egingo du Udalak. "Prozesu guztian zehar harreman zuzena mantenduko da udal teknikariek, herriko elkarteekin eta herritarrekin. Harreman horren bitartez, informazioa, irizkiak eta ekarpenak jasotzeaz gain, prozesuan inplikaturako agente guztiak sentsibilizazio eta formazio lana egingo da", dio Berdintasun zinegotziak.

Horren harira, gizonezkoen parte-hartzearen garrantzia ere azpimarratu gura izan du Urtzelaiak. "Bi alderen arteko berdintasunerako prozesuan alde biek egon behar dute, ezin da bat bazterean utzi. Oso zaila izango litzateke, adibidez, erantzukizunaren gainean aurrera egitea, gizonen jarrera eta pentsaera aldatzeko bultzatu gabe. Gainera, gizonak ere genero sistemaren eraginez sortutako gizontasun eredupean bizi dira. Eredu horien eraginez hainbat arazo jasaten dituzte, eta horiek ere landu egin beharko lirateke".

Duela 20 urte, 1992an, egin zuen Oñatiko Udalak herriko emakumeen inguruko azken ikerketa. Maiatzean hasi zuen herriko berdintasunerako diagnostika eta plan horretarako teknika ezberdinak erabiliko dituzte, baina emakume nahiz gizonen parte-hartzearekin egin gura dute, eta horretarako ezinbestekoa da guztien ekarpena.

MAIALEN URTZELAI | BERDINTASUNEN ZINEGOTZIA

### "Herriko emakumeen argazkia osatzeak lehentasuna du"

Berdintasun batzordea berria da Oñatiko Udalean. Urtebeteko esperientziak galdetu gura izan diogu Maialen Urtzelai zinegotziari.

**Urtebete pasa da Berdintasun batzordea martxan jarri zenetik. Zein da balorazioa?**

Ez da hasiera erraza izan, baina jada hartu diogu eskua udal jardunari. Gurea batzorde berria da eta horrek alde onak eta ez hain onak ere baditu. Gure arloa ez da bat-bateko emaitzak ematen dituenetako bat. Gurea iraupen-lasterketa dela esan dezakegu. Aurrekontuak Herriorran ekime-



Maialen Urtzelai. | O.E.

naren barruan jorratu genituen eta gure batzordeko estrategikoak izango diren zenbait lan ildo definitu genituen. Martxan oñean ari dira horiek gauzatzen, eta oso gustura gaude batzordearen funtzionamenduari.

**Zein da lehentasuna?**

Gaur egun batzordeak duen lehentasuna, herriko emakumeen egoeraren argazki orokorra osatzea da, batetik. Izan ere, hortik abiatuta definituko ditugu lehentasunak eta esku hartze eremua. Bestetik, emakumearen menpekotasun egoera sistema patriarkal era-

giten duen egiturazko zapalkuntzaren ondorio dela uste dugu. Gizarteko eremu guztietan eragiten duen arazoa da, eta, ondorioz, konponbideak ere zeharkakoa izan beharko duela uste dugu. Zeharkakotasun hori gauzatzea da batzordeak duen beste erronka handi bat; gainontzeko batzorde guztietan genero ikuspegia txertatzea, alegia.

**Herritarrengandik zein mezu, kezka, jaso dituzue?**

Orokorrean, batzordearen sorrera eta azken urte honetako jarduna herritarrek begi onez ikusten dutelakoan

nago. Bestetik, aurrera eraman ditugun ekintzen arrakasta ikusirik, arlo hau jorratzeko nolabaiteko egarria bazegoela antzeman dugu.

**Jean den maiatzean hasi zineten berdintasun diagnostika eta plana egiten. Zein pauso eman dituzue ordutik hona? Zertan diharduzue orain?**

Maiatzetik hona, ikerketa iturri dokumentalen azterketa burutzen dihardugu honako gaien inguruan: ahalduntzea eta kultur, politika eta gizarte partaidetza, familiarren eta bizitzaren bateragarritasuna, lana, hezkuntza, osasuna, emakumeen aurkako indarkeria, hirigintza, mugikortasuna eta bazterkeria.

**"arlo hau jorratzeko nolabaiteko egarria bazegoela antzeman dugu"**

# Kaleko argien kontsumoa %14 jaistea lortu du Udalak urteotan

Besteak beste, telegestioan oinarritutako sistema aitzindaria aplikatzen dute


UBANE MADERA | ARRASATE

Argindarraren prezioa etengabe handitzen doan honetan, Arrasateko Udalak herriko argi kontsumoa jaistea eta ondorioz, gastua kontrolatzea lortu du azken urteotan.

Datua esanguratsua da: hiruzpalau urtean %50 handitu da energiaren prezioa. Arrasaten, berriz, iazko gastua 2009koaren parekoa izan zen: 342.000 euro. "Hori lortzeko, kontsumoa baxuagoa izan da, jakina. Eta hori herria handitu egin den arren, auzo gehiago dago eta orain: Zerrajerako urbanizazioa, Gelmakoa, Aldai parkea, Garaiako zati bat... Kontsumoa, berriz, %14 jaitsi da. Hala, instalazio kopuruan igoera izan da, kontsumoan jaitsiera, baina energiaren prezioa igo egin denez, emaitza da gastua mantendu egin dugula", adierazi du Iñaki Agirrek, Arrasateko argiteriaren teknikari arduradunak.

## Efizienteagoa

Hori lortzeko lau neurri hartu ditu Udalak. Batetik, hobetu egin du argi puntuen efizientzia: "Luminariak aldatu eta potentzia eta kontsumo gutxiagokoak jarri



Ordenagailuan dute kaleko argiteriaren eskema, kontrolerako. | MIREIA BIKUÑA

ditugu, argitasun aldetik eman-korrangoak direnak. Eta froga batzuk egin dira teknologia berriekin: led teknologiarekin".

Bestetik, jaitsi egin dute argitasun maila: "Auditoria bidez argitasun maila neurtu dugu, eta ondorioztatu da orokorrean beharra baino argi gehiago dagoela. Hori horrela, 23:00etan jaitsi egin dugu argitasun maila erregu-

ladore batzuen bidez; gutxi gorabehera %40ra jaisten dugu. Baina hori igartzen da oso gutxi. Poliki-poliki jaisten da, eta begia ez da konturatzen".

## Teknologia berriak: led

Hirugarrenik, led teknologia aplikatzen ere badihardu Udalak: "Garagartza sarreran eta Hondarribia kalean bakarrik dago. Izan ere, luminaria (farolaren burua) aldatzea oso garestia da. Oso gaizki ez badago, lanpara eta ekipo elektrikoa bakarrik aldatzen da. Luminaria oso gaizki badago, berriz, jotzen dugu berrietara. Ahal bada, led teknologiarara".

## Telegestioan aitzindari

Eta azkenik, telegestioa (ordenagailu bidezko kontrola) aplikatzeak ere lagundu du aurrezteko bide horretan: "Kaleko argiak piztu eta kentzearen ordua oso kontrolatuta dago. Proiektu pilotua izan zen orain 12 urte Arrasaten. Eta poliki-poliki handitu egin dugu horren erabilera. Horrekin kontrolatzen dira, esaterako, argiteriako matxurak. Orain, argiteria sistemaren %90 telegestioarekin dabil. Euskal Herrian, Iruñean nahiko zabaldua dago, Bilbon eta Donostian ere badago, Eibarren dabilta orain...baina %90eko erabilera duen herri edo hiririk ez dago. Eta gainera, espero dugu datorren urterako %100ean kontrolatuta izatea argiteria telegestioaren bitartez", kontatu du Iñaki Agirrek Arrasate Irratian.



## Gorpuzki gehiago aterako ditu Arrasateko Udalak

San Kristobal hilerriko nitxoetan 2002ko lehen seihilekoan lurperatuta daudenen gorpuzkiak atera egingo ditu Arrasateko Udalak. Bada, gorpuzki horien destinoaren berri uztailearen 15a (domeka) baino lehen eman behar dela jakinarazi du.

Hala egin ezean, San Kristobal hilerriko denon hezurtzian utziko dituzte destino bako gorpuzkiak.

Berez, datorren urriaren leian hasiko dira gorpuzki horiek ateratzen.

## Auzoko jaiak antolatzeko euro bateko eskaera

Uribarri-Erguingo auzo-alkatezak auzotarren kolaborazioa behar du jaiak antolatzeko (abuztuan izaten dira). Dirua da behar nagusia: "Gehiegi da etxebizitzako euro bat eskatzea?", galdetu dute. Helburua argia da: "Guztiantzat erakarria izango den festa egitaraua egitea (...) Jende guztia- ren kolaborazioa eta inplikazioa eskatzen dizuegu". Diru erkarpena egiteko kontu korrantea honako hau da: 21010123940010955185 (Kutxa).



**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

**FAGOR**



Natxo Montero eta beste dantzari bat ikuskizuna egiten kalean. | NATXO MONTERO

# Natxo Monteroren dantzak eta zinea, Udazabal hasteko

Uztailean eta irailean askotariko ekitaldiak egingo dituzte herriko kaleetan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Sanjuanak bukatuta, badator Udazabal. Gaur hasita, uztaileak 6, dantza ikuskizunak, musika, antzerkia eta zirkua izango dira protagonistak irail bukaera arte. Ekitaldi guztiak kalean. Aurten, gainera, herrialde askotariko kulturak eta ohiturak ezagutzeko aukera egongo da: Kubako musika, Venezuelako dantza ikuskizuna, Txinako zirkua eta Kataluniako antzerkia.

Era berean, Udazabal egitarauaren barruan, uztaileko eta abuztuko egubakoitzetan eta irailaren 7an eta 14an zine emanaldiak egongo dira Monteronen, 22:30ean. Lehena Gianni Di Gregoriok zuzendutako *Gianni y sus mujeres* filma izango da. Ikusle guztiendako da.

#### Azala, haragia, soinua...

Udazabaleko lehen ikuskizuna Natxo Monteroren dantza ikus-

kizuna izango da. Natxo Montero Danza taldeak *Carni di prima qualità* delako emanaldia egingo du, 20:00etan, Seber Altube plazan.

Azala, haragia, soinua eta mugimendua, elkarri eragiten dioten elementuak; gizonen eta emakumeen arteko biko antolamendua, eta haien artean ezartzen diren harreman hierarkikoen lekualdatzea dira protagonistak. "Bizitzan denoi gertatu ohi zaiz-

kigun une eta egoerei buruz dihardugu. Nahi ditugunak eta nahi ez ditugunak. Guztiak. Gorputza beste modu batera antolatzeko dugu. Ez dago generorik, talka baino ez dago. Harremanak, kontaktua, azal ukidurak abiadura eta intentsitate ezberdinekin...", esan digu Natxo Monterok.

#### Zirku ikuskizuna

Hurrengo aste bukaeran, zinemaz gain, emanaldi bikoitza izango da: hilaren 12an, sei anaiak osatzen duten Travellin' Brothers Big Band taldeak egingo du kontzertua, 22:30ean, Monteronen; eta hilaren 13an, Iñaki Matak *H, O2TOPOZ* kale antzerkia egingo du, Biteri plazan.

Uztaileko beste ikuskizunak hauek izango dira: *Aupa Quartet* musika emanaldia, Jose Letona plazan, uztailearen 19an; Jon Zabalen ilusionismoaren gaineko ikuskizuna, Seber Altuben, uztailearen 20an; Arrasateko Lore Gazteak eta Venezuelako Compañía Nacional Danzas Guanaguanare taldeen dantzak uztailearen 24an, 22:30ean; eta Xabi Larrearen zirku ikuskizuna uztailearen 27an, herriko plazan.

#### Pintura erakusketa Harresin

Bestalde, Udazabal egitarautik kanpo, Emmanuel Lantxa Fernandezek erakusketa zabaldu da asteon Harresi aretoan. Ikusgai egongo da hilaren 14ra arte: astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara arte; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; domeketan itxita egongo da.

Emmanuel Lantxak pintura lanak ipini ditu ikusgai. Artelan abstraktuak dira batzuk, kolore askokoak. Beste batzuetan, aurpegiak eta biluztutako gorputzak ikusten dira.

## Eskuter klasikoan topaketa bihar Seber Altuben

M.B. | ARRASATE

Mondragoeko Dragoiek antolatuta, MondRally eskuter klasikoan II. topaketa egingo dute bihar, zapatua, Seber Altuben. Iaz zazpi lagun "bakarrrik" elkartu ziren, eta aurten, bultzada handiagoa eman guran, ekintza gehiago antolatu dituzte. "Udalean baime-na eskatu dugu, eta kamisetak eta partxeak egin ditugu. Egitarau zabalagoa osatu dugu. 35 bat eskuter espero ditugu: arabarrak, bizkaitarrak, donostiarrik, eta zaragozarrak ere bai. Guztiak Vespak eta Lambrettak", esan digu antolakuntza taldeko Urtzi Madina-beitiak.

Eskuter topaketako kideak Seber Altube plazan elkartuko dira, 11:30ean. Motorren erakusketa egingo dute han, eta herritarrek aukera izango dute motorrak ikusi eta erretratuak egiteko.

Ondoren, 12:30ean, ibilaldia egingo dute Untzilla, Zabola eta Urkulu aldean. Ojala Zelain hamarretakoa egingo dute, eta Sara jatetxean bazkaldu.

#### Musika ere bai

Musikak ere izango du lekua eskuterren topaketan. Hain zuzen ere, Dat tabernan askotariko estiloak entzuteko aukera egongo da; izan ere, hainbat DJk reggae, ska eta bestelako musika estiloak ipiniko dituzte, egun osoan.

Restaurante  
**UGARAN**  
Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**MONTE TABERNA**  
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

### Parte-hartze prozesuaren emaitzak

Azoka biziberritzeko lehen fasea bukatu dute. Urte hasiera ezkerreko ibilbide oparoa egin dute. Parte-hartze prozesuaren emaitzak aurkeztuko dituzte hilaren 11n, 18:30ean, azokako plazatxoan.



MIREIA BIKUÑA



Garibai 6 ARRASATE  
Tel.: 943 79 97 86

%30eko DESKONTUA



Jarrai gaitzazu  
Facebooken:  
**UME ARRASATE**



Udal Gobernu osatzen duen taldea udaletxeko arkupean. | BERGARAKO UDALA

# Egoera ekonomikoak baldintzatutako urtea izan da Gobernuaren lehena

## Aurrekontua lotzea eta "zero zaborrerantz" bide egitea, erronka nagusiak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Jesus Elortza alkatearen esanetan, egoera ekonomikoak zuzenean eragin du urte honetan egindako lanean. Murrizketa handiak egin behar izan dituzte eta zailtasunak izan dituzte 2012ko aurrekontua lotu eta ordenantza fiskalak abian ipintzeko. Egoera "hilabetetik hilabetera" aldatzen dela eta Udal Gobernuak erabaki du gastua hilerok kontrolatzea. "Ogasun zinegotzia, kontu-hartzailea eta ni neu hileko lehenengo eguaztenetan elkartzen gara gastuaren kontrola egiteko. Momentuz ondo doaz gauzak. Desoreka txiki batzuk daude eta mailegu aldaketa batzuk egin beharko ditugu, baina garrantziarik ez duten desorekak dira momentuz", adierazi du Jesus Elortza alkateak.

Aurrekontua lotzea zaila izan den arren, Udala pozik dago gizarte zerbitzuetan murrizketari ez delako egin: "Gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez egitea lortu dugu eta asebeteta gaude", adierazi du Lauri Askargorta zinegotziak.

### Zero zabor filosofiarantz

Aurrekontu orekatua lortzeaz gain, "zero zabor filosofiarantz bidea egitea" izan da Udal Gobernuaren beste erronka handia.

Asmoa da 2013ko urtarrilean abian ipintzea atez ateko bilketa sistema. Horretarako aste honetan bertan hasi dituzte auzoz auzo herritarrekin bilerak; horrez gain lau informatzaile hasi dira lanean, eta irailean bi informazio bulego irekiko dira. "Oraindik erabat ziurtatu ezin daitekeen arren, asmoa da bulego bat azokan ipintzea eta bestea Martokoko eskolan", azaldu du Leire Iruinek, Ingurumen zinegotziak.

### Konpostagailu komunitarioak

Zero zabor filosofiarekin bat egin duen beste ekimena konpostagailu komunitarioa da. "Labe-garaietan ipiniko dugu lehenengo, baina gero eta eskaera gehiago izaten ari gara. Hasiera baten, aurten bi gehiago jarriko dira; biztanle kopuru gehien batzen diren gunetan ipiniko ditugu bi horiek".

### Plan Estrategikoarekin aurrera

2010-2020 Plan Estrategikoarekin aurrera jarraitzea eta berau gauzatzen joatea izan da gobernuaren beste lanetako bat. Zentzu horretan, besteak beste, arloka kontseilu edo lan-taldeak sortzea da helburua eta dagoeneko sortu dira bi. "Kiriol-kontseilua sortu da eta bertatik lanerako talde iraunkor bat ateratu da. Pozik gaude izan duen harrerarekin. Horrez gain, bigarren sektorea edo industria indartzeko mahaia ere osatu dugu. UNED eta Miguel Altuna institutua daude mahai horretan, besteak beste; azken horrek bergarako industriaren egoeraren gaineko azterketa egin du", dio Elortzak.

### Ondarea balioan jarri

Bergarako ondarea ezagunago eta erakargarriago bihurtzea eta

turismoa sustatzea izan da gobernuaren beste helburuetako bat eta pozik daude bide horretan egindako lanarekin. "Herritarrak herrian daukagun ondarearen balioaz jabetzeko hainbat ekimen ipini dira martxan Bergara Monumentala gida, eraikin historikoe-tan plaka informatiboak jartzea edo *Bergara Koloretan* proiektua", azaldu dute Justina Elexpuru eta Juanje Amasorrain zinegotziek. Horrez gain Bergararen izena

bailaratik kanpo ezagunago egitea izan da eta da gobernuaren beste erronketako bat.

### Webgune dinamikoago bat

Bestetik, herritarren eta Udalaren arteko harremanak errazteko eta informazioa erakargarriago egiteko webgune berria egingo dute. "Azken aldian ahalegindu gara gero eta gehiago eguneratzen webgunea, baina uste dugu erakargarriago egin behar dela eta sare sozialetan ere presentzia areagotu nahi dugu". Horrez gain eta "oso konplikatu" den arren e-administrazioa martxan ipintzea da Udalaren asmoa, hau da, tramiteak on-line egiteko aukera eskaintzea.

### Oposizioarekin harremanak

Lehenengo urte honetan oposizioarekin izandako harremanaren inguruan galdetuta alkateak adierazi du harremanak "naturalak" direla: "EAJ eta PSE-EErekin ondo konpontzen gara. Gai bakar batekin erasotzen gaituzte gogor: hondakinen kudeaketaren gaia. Ez dugu ulertzen oposizioaren jarrera. Bion helburua bada gero eta gehiago birziklatzea lortzea elkarlan gehiago egon beharko litzateke; momentuz birziklapen maila altuena lortzen duen sistema atez atekoa da".

Bestalde, uste du oposizioak osoko bilkurak erabiltzen dituela "erasoak eta salaketak egiteko eta tentsio politikoa sortzeko, beraien adierazpenek proiektio handiago izan dezaten: "Oposizioak aukeratu duen bidea da eta konpartitzen ez dudaren arren esku-bide osoa dute. Nork bere baza politikoa erabiltzen du. Egunerokoan bestela oposizioarekin harremana ona da, batzordeetan parte hartzen dute eta elkarlanean aritzen gara askotan".

### Esperientzia positiboa

Arlo pertsonalagoan, alkatea pozik azaldu da orain arte bizitako esperientziarekin eta urtebeteko lanak emandako emaitzarekin: "Gogoratu behar da nola iritsi ginen Gobernura. Bergaran 200 pertsonatik gora 'zikinak' zirelako udalgintzan eta politikan esperientzia gabeko jendea aurkeztu behar izan ginen. Herritar arruntak gara, baina uste dut lan txukuna egitea lortu dugula. Ehuneko ehuna ematen ari gara, behintzat. Beti dago salbuespenen bat, baina jendeak orokorrean ondo hartu ditu Udal Gobernuaren erabakiak".

#### ESANAK

"Hileko lehen eguaztenetan elkartzen gara gastuaren kontrola egiteko"

"Jendeak orokorrean ondo hartu ditu Udal Gobernuaren erabakiak"

JESUS ELORTZA | ALKATEA

#### ESANAK

"Atez atekoaren gaineko bi informazio bulego irekiko ditugu irailean"

L. IRUIN | INGURUMEN ZINEGOTZIA

"Asebeteta gaude gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez delako egon"

LAURI ASKARGORTA | ZINEGOTZIA

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## UGARTE

AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

*Larrañaga*

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA



Victoriano Gallastegi, Josu Leturia eta Aintzane Oiartide sinadurak entregatzen. | A.B.

## Atez atekoaren kontrako sinadurak aurkeztu ditu EAJk

Udaletxean 1.863 sinadura aurkeztu dituzte; plataformakoei gehituta, 4.691 sinadura dira

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA  
Atez ateko hondakin bilketaren kontra batutako sinadurak eraman zituen Bergarako EAJko Udaltaldeak martitzenean udaletxera.

1.863 sinadura aurkeztu dituzte EAJkoek eta atez atekoaren kontrako plataformak aurretik aurkeztutakoei gehituta, guztira 4.691 sinadura lortu dituzte.

EAJko ordezkariak gogorazi dute *Atez atez ez! 5. edukiontzia-ri bai! Eman hitza herriari* plataformarekin bat egiten dutela. Sinadurei sarrera emateko aurkeztutako testuan eskatzen dute materia organikoa batzeko bosgarren edukiontzia ezartzea: "Gure iritzian, bergararrok geroz eta urrats gehiago ematen ari gara zaborra modu selektiboan jasotzen eta era honetan, birziklapen maila handitzeko bideak ipintzen. Bosgarren edukiontzia bitartez materia organikoa biltzeko egokiena arduratzen kanpaina bati ekitea dela uste dugu. Baina inolaz ere ez dugu onartzen udalaren aldetik inposaketarik herriar guztion eguneroko bizimoduan hainbesteko eragina duen eredu berri bat ezartzeko".

### Herri kontsulta

Hori horrela, Udal Gobernuari eskatu diote atez ateko bilketa "bertan behera uztea beste herri batzuetan gertatu den moduan". Bestela, herri kontsulta bidez bergararrei hitza ematea eskatu dute. EAJko zenbait zinegotzirekin batera, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkate ohiak hartu zuen parte martitzenean.

## Senegalen, Dionewar eskolako bi gela berritzeko lanak egingo ditu Ndank Ndank elkarteak

**E.M.** | BERGARA

Ndank Ndank elkarteak hezkuntza proiektu bati ekin dio Senegalen. Elkarteko zenbait kide apirlean han izan ziren, Dionewar herrian (Bergarako senegaldar gehien jaioterrria) eta hezkuntza eta osasun arduradunekin biltzeko aukera izan zuten, hango premiez jarduteko. Bada, hango eskolan berritzeko dauden bi gela berritzeari ekingo diote.

Saloum irletako landa komunitatean, Foundiougne departamentuan dago Dionewar. 7.000 biztanle inguru ditu eta bertako jardura nagusia arrantza da Eskola 321 ikasle ditu (135 neska eta 186 mutil), 7 irakasle eta 6 ikasgela. Esandako moduan, bi ikasgela berritzeko lanak egingo ditu Ndank Ndank. Segurtasun eta ikasteko baldintzak hobetzea da helburua.

### Kontua zabalik Rural Kutxan

Erakundeetatik zein herritarren ekarpenetatik laguntza lortzen



Dionewar herrian berrituko duten geletako bat. | NDANK NDANK

saiatuko da Ndank Ndank. Rural Kutxan kontua zabaldu berri dute. Elkarteko kideek azpimarratzen dutenez, ekarpen guztiak ongi etorriak izango dira. 20 euro edo gorako ekarpenak

egiten dutenei elkarteko kamiseta oparituiko diote. Argibide gehiago 677 70 53 56 telefonoan edo [ndank.ndank.elkartea@gmail.com](mailto:ndank.ndank.elkartea@gmail.com) helbide elektronikoan.

## NIRE USTEZ

**AITZIBER AZKONDO**



## Hirigune historikoa koloretan

**K**risiaren ondorioz emandako egoera ezkor eta tamalgarriaz baliatu eta sormenari eta sortzaileei ezker, erdiguneak aldaketa aberasgarria jaso du *Hirigune historikoa koloretan* ekimena dela eta. Ez da txantxa, Britainia Handia lehenengoetarikoa izan zen, sormen edo kultur industrietan lor dezaketen hazkunde ekonomikoaz ohartarazi eta hainbat proiektu praktikan jartzen, bide batez, emaitza paregabeak lortuz.

Europar Batasunak, ia urtero, industria mota honen eraginez lorturiko hazkunde txostenak kaleratzen ditu. Uste

dezakegunaren baino garrantzitsuagoa da. Zehazki, herriko ekintza honen bitartez bisitariak erakartzea espero da, eta horrela izango da ziu-rrerik beharrezko zabalpena emanez gero. Horra hor adibidea, horrelako ekintza txiki batek, herrian izan dezakeen eragina garrantzitsua izatera iritsi daiteke.

Horrela izanik, haratago jo beharko genuke. Sormen industriak herri mailan praktikan jarri ditzakegun hainbat proiektuen oinarri izan daitezke.

Sortzaileek ez da falta Bergaran. Betidanik herria bere kultur maila handiagatik eza-gutu izan da eta berandu baino lehen, balore hori, herriari bizitasuna itzultzeko erabili beharko genuke.

**"Ekintzaren eragina garrantzitsua izatera iritsi daiteke"**

## Kultura taldeendako dirulaguntza eskaerak egiteko epea uztailearen 23ra arte izango da zabalik

Bergarako irabazi asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2012. urtean garatuko dituzten jardura eta egitarauetarako dirulaguntzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude eskuragarri. Era berean, dirulaguntza eskaerak egiteko epea datorren uztailearen 23an, 13:00etan, amaituko da. Edozein argibidetarako 943 77 91 58 telefono zenbakira jo dezakezue.

## Jardun elkartearen 'Irakurzaletasun Astea' kanpaina parte hartu ahal izateko azken egunak

Jardun elkartearen *Irakurzaletasun Astea* kanpaina bihar, zapatua, amaituko da. Elkar dendan euskarazko liburuak (haur, gazte zein helduen literatura) merkeago erosteko aukera dago. Liburuak erosterakoan, saltzaileak emandako erosketari txartela Jardunera eraman behar da uztailearen 13rako, eta deskontua abonatu diete erosleei. Pertsona bakoitzak, gehienez, bi liburu erosi ahal izango ditu. Argibideak Jardunen, 943 76 36 61 telefonoan.

## Musika Eskolako udaleku musikaletan parte hartu duten gaztetxoek emanaldia gaur Zabalotegin

Bergarako Musika Eskolak antolatutako udaleku musikaletan 25 neska-mutikok jardun dute aurten. Bi aste lanaren ostean, gaur, egubakoitza, azken saioa izango dute. David Azurzak egindako *Erlauntzaren sekretua* ipuin musikatu landu dute udaleku musikaletan eta gaur aurkeztuko dute emaitza, 12:00etan, Zabalotegiko aretoan.

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**Kayak Taberna**

**Gosari bereziak**  
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimakerak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



Iazko garagardo ferriako irudi bat. | GOIENA

# Hamar garagardo mota eta beste, garagardo ferian

Atzo zabaldu zituen ateak; domekara arte egongo da

MIREN ARREGI | OÑATI

Atzo, eguena, zabaldu zituen ateak, seigarrenegoz, Aloña Mendik antolatzen duen garagardo ferriak. Arratsaldeko zazpitan izan zen hori, eta domeka gauerdira arte ez da garagardorik, jatekorik eta festarako aukerarik falta izango Oñatiko plazako karpan.

Aloña Mendi Kirol Elkarteak duela sei urte ekin zion garagardo feria antolatzeari. "Modu polita da herriari zerbait desberdina eskaintzeko, eta Aloña Mendi taldeko sail desberdinen arteko harremana sendotzeko balio izaten du", dio Aloña Mendiko presidentek Anton Intzak. Izan ere, talde edo sail guztiek laguntzen dute antolakuntzan; hori bai, ardura egun bakoitzean talde batena izango da. Hala, atzo eskubaloit talde-

koak aritu ziren; gaur, berriz, futbol taldekoak; bihar, igeriketakoak; eta domekan, saskibaloikoak. Sukaldean, aldiz, lantalde finko bat arituko da lau egunetan zehar. Garagardo ferian jasotzen duten dirua Aloña Mendi osatzen duten sail guztien artean banatuko da, aurrez finkatutako irizpide batzuen arabera.

Gainera, hori guztia aurrera ateratzeko diruz edo bestela laguntzen duten denda eta lantegiak eskertu gura izan ditu Aloña Mendi Kirol Elkarteak.

**10 garagardo mota eta jatekoa**  
Egunotan jateko eta edateko aukera ederra egongo da ferian. 10 garagardo desberdin, eta jatekoa ere ugari; ukondoa, saltxitxak, oilasko izterra eta txitxi-burrun-

tzia. Atzo, irekiera eguna izanik, moxala ere eskaini zuten eta garagardoa 3 eurotan saldu zuten. Gaurtik, baina, 4 euro balioko du garagardoak.

**Musika ere bai**

Nola ez, musikarik ere ez da falta izango. Atzo eskubaloikoek antolatutako kontzertua izan bazen, gaur herriko trikitilariak alaituko dute giroa. Bihar, aurreko urteetan bezala, Hator taldea arituko da.

**Aurten, ontzi-garbigailua**

Iaz, lehenegoz, plastikozkoak ez, betiko platerak erabili zituzten. Aurten, ukondoa jateko, mahaitresna metalezkoak erabiliko dituzte. Horregatik, aurten, lehenegoz, ontzi-garbigailu bat ere ipini dute.

## Beste hiru urrezko domina eskuratu ditu Marisol Ramosek

Murtziako Aguilas herrian eskuratu zituen, beroa protagonista izan zen txapelketan

M.A | OÑATI

Marisol Ramosek beste hiru urrezko domina ekarri ditu etxera. Joan den asteburuan irabazi zituen horiek, Murtziako Aguilas herrian. Aire zabaleko pistako beteranoren txapelketan hartu zuen parte, hiru probatan, eta hirurak irabazi zituen korrikalari oñatiarrek.

Zapatu goizean egin zuen 5.000 metroko proba, eta horretan, 19.18ko denbora behar izan zuen helmugaratzen. Arratsaldean hartu zuen parte 800 metrokoan, eta 2.44an helmugaratu zuen. Domeka goizean, berriz, 1.500 metroko lasterketa egin zuten eta horretan, 5.18 markatu zuen. Ez dira horiek

Ramosen denbora onenak; izan ere, errekorra denbora laburragoan du hark. Hala ere, pozik dago lortutakoarekin. "Oso bero handia egiten zuen, eta, testuinguru horretan, egin ditudan denborekin oso pozik nago", adierazi digu.

**Bigarren urtea Aguilasen**

Iaz ere hartu zuen parte Murtziako lasterketa horretan; beraz, harentzat ezaguna zen dagoeneko. Parte-hartzeari dagokionez, iaz baino korrikalari gutxiago aritu dira aurretan, baina guztiek ere oso maila ona erakutsi dutela dio Marisol Ramosek. Bere burua ere ondo ikusi zuela dio, eta, beraz, oso gustura dagoela.

## Magia eta umorea batuta Antton tabernan etzi

Dexter mago valentziarrak emanaldia egingo du etzi, 19:30ean, heldu zein haurrendako

IRATI GOITIA | OÑATI

Antton tabernan ohiko bilakatu dira kontzertu eta emanaldiak. Bada, asteburu honetarako ere beste hitzordu bat prestatu dute: domekan magia erakustaldia izango da, 19:30ean.

**Magia eta umorea**

Orain dela hilabete batzuk, Josu Zubia oñatiarrak egin zuen magia emanaldia Antton

tabernan. Domeka honetan, berriz, Dexter mago valentziarra izango da bere esku abilez ikusleak txundituta utziko dituen.

Umorea eta magia uztartzen ditu ikuskizunean valentziarrek. Horrenbestez, barre algarak ziurtatuta daude. Ikuslearen parte-hartze zuzena ere bilatzen du magoak trukuak egiteko orduan. Heldu zein umeendako emanaldia da.



TXANTXIKU IKASTOLA

**Uda sasoian jolasez ikasi, ikastetxeetako udalekuetan**

Etxeo txikienek opor sasoian ere badute ikasten jarraitzeko eta disfrutatzeko aukera. Izan ere, Udalak antolatzen dituen udaleku irekiez gain, badira beste eskaintza batzuk ere: Txantxiku Ikastolan *Enjoy English*-en XVII. ekitaldia egiten dabilten aurtengo udan; Elkar Hezi ikastetxean, bestalde, ingelesezko eta euskarazko udalekuak antolatu dituzte. Lagunekin jolastuz ikasteko aukera paregabeak.



ELKAR HEZI

# Kiroldegia irailaren 3an zabalduko dute; astelehenean hasita ate irekiak

Helduen abonua 25,72 euro hilean; gurasoak abonatuta, umeak debalde

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Ibarra kiroldegiak badu irekiera data: irailaren 3a, astelehena. Halaxe jakinarazi zuten udal ordezkariak eta kiroldegia kudeatuko duen hirukoaren ordezkariak, eguaztenean. Aurretik, uztailean, instalazioak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek.

Pozik agertu zen Ana Bolinaga alkatea irekiera dataren berri ematerakoan: "Urtebeteko atzerapenarekin dator, baina iritsi da. Eta uste dugu iraila data egokia dela zabaltzeko", jakinarazi zuen. Eta gaineratu: "Punta-puntako instalazioak ditugu eta proiektu polita dauka hirukoak; gainera, esfortzu handia egin du prezio egokiak izan ditzan. Hortaz, herritarrek animatu behar dute orain erabiltzera".

## "Prezio egokiak"

Datorren astetik aurrera eraikina ezagutu ahal izango da. Ate irekiak egingo dituzte astelehenean hasi eta hilaren 26a bitartean: batetik, herriko elkarteetako kideendako bisita gidatuak egongo dira; eta bestetik, herritarrendako zabalik zazpi egunean. Kiroldegiko zuzendari Iker Etxeberria herritar guztiak gonbidatu gura izan zituen: "Guztiak



Iker Etxeberria, Amagoia Barandiaran, Ana Bolinaga, Tomas Fernandez, Asier Muxika eta Garazi Etxeberria. | M.A.

daude gonbidatuta: etorri ikustera, galdetzeraz eta probatzeraz".

Abonatze kanpaina ere datorren astean jarriko dute abian, baina abonua batzuk aurreratu egin zituzten, garestia den zurrumurruari erantzun guran. Helduen

hileko abonua 25,72 euro da, eta horren barruan zerbitzu hauek sartuko dira: igerilekua, spa gunea, rokodromoa eta fitness gela. Abonua horri jarduerak bat gehituz gero -aerobika...- 35,72 euro izango da hilean. "Inguruko gimnasio batzuekin alderatuz gero, ez da neurri-gabea", zioen alkatea. Gurasoak abonatu gero, umeak -12 urte arte- debalde izango dute.

Erretiratuek eta langabeek kuota murriztua izango dute, 17,28 euro hilean, ordutegi murriztua erabilita -16:00ak arte.

## Hamahiru langile

Etxeberria zuzendariak argitu zuen uztailean matrikulatzen direnak abuztuaren 27an hasi

ahal izango direla kiroldegia erabiltzen, nahiz eta ordu guztiak ez egon zabalik. Hona irailetik aurrerako ordutegia: astelehenean egubakoitzera, 08:00-21:30; zapatuetan, 08.30-14:00 eta 16:00-20:00; eta domeketan, 09:00-14:00.

## DATUA

# 25

EURO

Helduek 25,72 euro ordainduko dituzte hilean, eta jarduerak batekin, 35,72 euro. Gurasoak abonatuta, umeak (12 urte arte) debalde dute.

## ESANAK

**"Punta-puntako instalazioak eta proiektu polita ditugu; orain, erabili egin behar dugu"**

ANA BOLINAGA | ALKATEA



Kantxa handia eta harmailak. | ADOX



Sauna solariumari begira. | ADOX

## Batzar orokorra egingo du UDAk gaur Arkupen (18:00)

Aretxabaleta kirol elkarteak batzar orokorra egingo du gaur Arkupe kultura etxeko Zarama aretoan, eta bazkide guztiak, 900 inguru, daude deituta bertara. Lehenengo deialdia ezohiko batzarrerako da (18:00), eta elkarteak proposatutako estatutuen aldaketa eztabaidatuko dute.

Ondoren (18:15) ekingo diote batzar orokorrari, 2011-2012 denboraldiko kontuen berri emanda; gero, 2012-2013 denboraldia eta diru kontuak aurkeztuko dituzte. Erreko- nozimendu araudia eztabaidatuko dute eta galderen ostean elkarte kirolariak sarituko dituzte.

## San Kristobal eguna ospatuko du bihar Larrinoko elkarteak

Larrino auzoan dagoen San Kristobal elkartearen zaindarien eguna ospatuko dute bihar, zapatua. Arratsaldean umeendako jolasak izango dituzte (17:30): aulki-jolasa, sokatira, zaku-lasterketa, entzierroa, buruhandiak... Eta ondoren (19:00) txokolata-jana. Eta gauean afaltzera elkartuko dira elkarte bazkideak eta beste hainbat gonbidatu (21:00).

Larrinoko auzotarrek, osteraz, martitzenean, zaindarien egunean, ospatuko dute San Kristobal eguna. Meza izango dute lehenengo (19:00) eta ondoren mokadutxo eskainiko diete elkartutakoiei.

## Barriketana-eko kideek agur esan diote ikasturteari

Untzilla auzoko elkartearen agurtu zuten ikasturtea Barriketana taldeko lagunek joan den astean. 20 lagunetik gora elkartu ziren bertan, eta bolotan jokatu, kantuan jardun eta giro ederrean afalduta eman zioten bukaera. Hori bai, datorren ikasturtean berriro elkartzeko gogoz esan zuten agur guztiak.



BARRIKETANA

## Ate irekiak

### ELKARTEENDAKO BISITAK

**Uztailak 9:** Basotxo, 11:00etan eta Aretxarte, 13:00etan.

**Uztailak 12:** Gastronomi elkarteak, 17:15ean.

**Uztailak 17:** Atzegi, 11:00etan eta herriko kirol elkarteak, 17:15ean.

**Uztailak 18:** Abesbatza, 17:15ean.

**Uztailak 23:** Loramendi kultur elkarteak, 17:15ean.

### HERRITARRENDAKO BISITAK

**Egunak:** uztailak 10, 11, 13, 16, 18, 19 eta 26.

**Ordutegia:** 11:00 eta 17:15.

Eta gaineratu: "Punta-puntako instalakuntza da eta proiektua haren neurria diseinatu. Berezi azpimarratuko genituzke: wellness gunea igerilekuan; rokodromoa dimentsio eta diseinugatik; fitness gela, puntako makinekin ekipatuta; eta ekintza programa berritzailea". Jarduerak horiek irailen zehaztuko dituzte. Zuzendariarekin batera hamahiru lagunek jardungo du lanean, guztiak aretxabalarrik edo aurretik Zainduzen jardundakoak.

## Esperientzia pilotua

LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoaren ordezkari Amagoia Barandiaranek adierazi zuen Mondragon taldeak kirolaren esparruan dituen egitasmoen artean dagoela Ibarra proiektua: "Behin lehenengo urteak gaindituta, gure nahia da hiruko kooperatiba bihurtu eta langileek parte hartzea izatea bertan".





Alberka txukuntzen auzolandegietan dabilzan gazteak. | A.T.

# Auzolandegian 15 gazte dabilta Alberka ingurua txukundu eta konpontzen

- ▶ Datorren egubakoitzera arte egongo dira gurean
- ▶ Aranzadi zientzia elkarteak eta Kutxak antolatu dute

## AMAI TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Aurten lehen aldiz egin dute auzolandegia Eskoriatzan eta 13 lagun eta bi begirale dabilta lanean. Gazteak, besteak beste, Tolosa, Deba, Idiazabal, Gasteiz eta Bizkaia ingurukoak dira.

Alberka ingurua txukundu eta konpontzen dabilta. Momentuz, urez gainezka zegoen albertatik ura atera eta bertan zeuden harri eta kristalak kendu dituzte. Hamar zentimetrotako lokatza ere bazegoen bertan eta palekin atera egin dute. Baserri ondoko txabola bota egin dute eta baserriko pareta garbitzen ibili dira egunotan, gero, zementuarekin berdindu eta margotzeko. Ingu-

rumena zaindu eta mantentzeko, ibai ingurua ere garbitzen dabilta. Lan horiek guztiak goizetan egiten dituzte gazteak.

### Aisialdirako tartea

Arratsaldeak, berriz, bailarako inguruak ezagutzeko aprobetxatuko dituzte. "Asmoa da gazteek hemengo inguruak ere ezagutzea, eta toki hauetara joan nahi dugu, besteak beste: Urkulura, Oñatiko Usakora, Eginora eskalatzera...", esan digu Miriam Azpeitia begiraleak.

### Guztiak pozik

Datorren egubakoitzera arte egongo dira gurean, hilaren 13ra arte,

eta ikusten denez ez zaizkie ekinzarik ezta lanerako gogorik ere falta. Momentuz behintzat esperientzia aberasgarria dela azaldu digute gazteak eta Eskoriatzako Ibarraundi museoko Eneritz Zubia teknikaria ere oso pozik dago gazteak egiten dabilzan lanarekin: "Lehenengo aldia da auzolandegia Eskoriatzan egiten duguna eta oso pozik gaude, beraz, nik uste errepikatzen moduko esperientzia dela".

Gazteak Luis Ezeizan lo egiten dute eta otorduak plazan dagoen erretiratuaren sukaldean egiten dituzte. Lehenengo egunak pasata, lagun arteko giroaz disfrutuzten dabilta orain.



**MIRIAM AZPEITIA**  
DONOSTIA

"Begirale moduan nago eta gazteak oso langileak dira. Begiraleok goizetan besteen moduan egiten dugu lan eta arratsaldeetako ekintzak antolatzeaz arduratzen gara. Ez zaigu ekintzarik ezta lanerako gogorik ere faltako".



**MATTIN INTXAUSTI**  
IDIAZABAL

"Jendeari esan nahi diot horrelako auzolandegietan parte hartzea animatzeko. Lana gutxienezkoa da; lagun asko egiten dira eta segituan pasatzen da denbora. Esperientzia oso aberasgarria da, merezi du".



**MIREN IBAÑEZ**  
DONOSTIA

"15 urterekin hasi nintzen auzolandegietara joaten eta aurretik Zumaian eta Zestoan egon izan naiz. Hasierako nerbioak normalak izaten dira, baina azken egunean negar ere egiten dugu lagunak agurtzeko orduan".

## Igerilekuak ixteagatik, herritarrak haserre

Alkateak konpromisoa hartu du igerilekuen garbiketa lanen eragina ahalik eta txikiena izateko

### A.T. | ESKORIATZA

Joan den astean Eskoriatzako igerilekuak (kanpoko eta barrukoa) itxita egon ziren garbiketa lanak egiteko, eta eguraldi beroarekin batera etorri den itxiera horrek igerilekuen erabiltzaileei kaltea eragin die. Horren aurrean, Beñat Herce alkateak aurrerantzean igerilekuen garbiketa lanen eragina ahalik eta txikiena izateko neurriak hartzeko konpromisoa hartu du.

### Beharrezko garbiketa

Higiene arazoak direla-eta, Eskoriatzako Udala behartuta dago igerilekuak urtean behin sakon garbitzera. Kanpoko igerilekura joateko kiroldegi barruko aldagelak eta barruko igerilekuen ertza erabili behar izaten da. Ondorioz, barruko igerilekuko garbiketa lanek irauten zuten bitartean, kanpokoaren erabilera ere ez da

baimendu ahal izan, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, garbiketa lanetan produktu toxiko eta arriskutsuak erabiltzen baitira.

Kanpoko igerilekua ixteak nolabaiteko haserre sortu du erabiltzaileen artean, baina "urtero igerilekua garbitu beharra dago eta data baten ez bada beste baten egin beharra" dagoe la adierazi dute Udaletik. "Dena den, uste dugu hurrengo urteei begira garbiketa lanak egin bitarteko astean kanpoko igerilekuen zerbitzua eskaintzeko alternatibaren bat planteatzeko aukera egon daitekeela eta aukera horri bide ematen saiatuko gara, garbiketa lanek Udalak eskaintako zerbitzuari ahalik eta gutxien eragin dakien" diote Udaletik.

Beraz, joan den astean zehar igerilekura erabiltzera joan ziren guztiei barkamena eskatu nahi diote Udaletik.



Eskoriatzako kanpoko igerilekua zabalik dago berriro ere. | A.T.

## Martitzenean bukatuko da ondasun higiezinaren gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea

Ondasun higiezinaren gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea martitzenean, hilak 10, bukatzen denez, helbideratutako ordainagiriak eguaztenean, hilak 4, kargatu ziren zergadunaren banketxe kontuan. Norbait konturatzen bada egun horretan ez zitzaizola kargatu, udaletxera joan daiteke ordainagiria jasotzera, eta horrela, kopurua bankuan ordain dezake martitzena baino lehen. Gogoratu beharra dago epe hori pasatu ostean dagokion erretegia ordaindu beharko dela.



# Udal Gobernuak pozik dago urteak eman duenarekin

Parte-hartzea eta gardentasuna dutela oinarri azaldu du alkateak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urtebete da Udal Gobernuak eratu zela. Hala, Udal Gobernuak osatzen duten Bilduko zinegotziak eta Ima Beristain alkateak balorazio positiboa egin dute.

"Udal Gobernuak pozik dago lehen urte honetan egindako lanarekin. Guztiontzat berria izan da Udaleko jarduna, baina Antzuolaren eta antzuolarren alde lan egiteko dugun ilusioak laguntzen ditu. Elkarrekin ikasi dugu eta ikasten ari gara. Taldean konpartitu dugu guztia, ilusioak eta desengainuak, eta horri esker lantalde ederra sortu dugu". Gaiki

eta proiektuak bideratzen dihardutela ere azaldu gura izan digu Ima Beristainek martitzeneko osoko bilkuraren ostean egindako adierazpenetan: "Balorazio ona egiten dugu. Pozik gaude, egia da inbertsioetarako ez dugula dirurik; bai, ordea, mantentzeko. Daukagun diru apurrarekin ea zer egin daitekeen aurreikusen ere bagabiltza. Herriari zabaltea da asmoa; gure ideiak denekin artean aztertzeko".

Izan ere, parte-hartzea bultzatu nahi dutela azaldu digute, betiere herriari begira. "Herriarendako erakargarria izateko lan

egin behar dugu batzordeetan; hala, gu ere ikasten eta prestatzen gabiltza mintegietara eta ikastaroetara joanez, fruituak eman ditzan epe laburrean", dio Beristainek. Bestetik, gardentasunaren aldeko apustua egin dutela azaldu digu Ima Beristainek. "Guk gardentasunaren aldeko apustua egin dugu. EAJkoek batzordeetara joateko deialdiak ez zaizkiela iritsi esan digute osokoa. Gure helburua denekin parte-hartzea da, eta ez inor kanpoan uztea. Hori konpontzen saiatuko gara, zalantza gabe, eta nahi badute parte-hartzeko aukera ere izango



Antzuolako Udal Gobernuak udaletxe aurrean. | MAIDER ARREGI

dute, noski", azpimarratu gura izan du alkateak.

## Herria eta Udala bateratzea

"Udalan gehiengoa eduki arren, nahiago genuke Udaleko beste taldeekin gehiago jorratu, baina

hau ez dago gure esku bakarrik", diote bilduko zinegotzi antzuolarrek. "Ez goaz orain banan-banan urte honetan egindakoak eta egin gabekoak zerrendatzera. Aurrera begiratu nahi dugu, eta askotan hain urrun gelditzen den Udala herritarrengana gerturatu. Gure asmoa herria eta Udala bateratzea da", azpimarratu dute.

Antzuolarren iritzia ere aintzat hartu gura dute: "Herritarrekin konpartitu nahi ditugu gure asmo eta nahiak, eta herritarren iritzia ere ezagutu nahi dugu. Horretarako, uda ostean parte-hartze prozesua jarri nahi dugu martxan 2013ko aurrekontuak guztion artean egiteko. Parte-hartze prozesu hau ez da egun bateko lorea izango, etorkizunean ere auzolanean egin nahi dugu lan, antzuolar guztion artean erabaki dezagun nolako Antzuola nahi dugun", nabarmendu du Udal Gobernuak.



## OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA

### Maria Eugenia Arrizabalaga: "Udala, proiekturik eta gardentasunik gabe"

"Bilduk Antzuolako Udala hartu zuenean, gobernatzeko beste era bat ekarri behar zuela zioen, eta gardentasunean eta parte-hartzean oinarritzen zuen. Azken osokoa izan dugu azken adibidea ez dela horrela gertatzen ari. Gehiengo nagusia du Udalan eta gu gutxiengoan gaude. Baina herri ordezkariak gara eta guri botoa emandako jendearen alde begirunea erakutsi beharko luke. Izan ere, zenbait batzorde ez dituzte egin; parte-hartzailea, esaterako. Eta beste batzuen deialdia ez zaigu iritsi ere egiten. Berdin Mankomunitatean. Bestetik, sumatu izan dugu jendeak antzeman duela Udala geldirik dagoela. Hau da, eguneroko arazo txikiei aurre egiten saiatzen dela, baina ez duela inolako etorkizuneko proiekturik egiten. Krisia arrazoia izan daiteke, baina aitzakia gehiago dela uste dugu."

### Carlos Urrestarazu: "Bilduren gobernu kudeaketa negatiboa izan da"

"Antzuolako alderdi sozialistak modu negatiboan baloratzen du Bilduren gobernuaren kudeaketa urtebeteko agintaldiaren ostean. Udalerria inolako inbertsiorik gabe eta pulsu gutxiarekin ikusten dugu. Bilduk ez du ezer egin eta ilusio eta gogo falta antzematen zaio herriko arazoak konpontzeko eta hobetzeko garaian. Zenbakiak adierazten duten moduan, egoera ekonomikoa ona da, diru soberakinak daude-eta. Diru hori ez da inbertsioak egiteko erabiltzen. Eta Udal Finantzaketa Foru Fondora dirua epeka ez itzultzeak Udala itotzen duela uste dugu. Atez atekoak esan behar da etsipen sentimendua dagoela antzuolarrengan; Bilduk inposatu egin du. Gainera, dokumentu ofizial guztiak euskaraz bidaltzen dituzte, guk itzulpena eskatu arren; ez da legezkoa, oposizioaren lana oztopatuz."

# Itzar

LIBURU DENDA  
ESTANKOA

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel. / Faxes: 943 76 60 62



Lantegia: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35

Jai zoriontsuak  
antzuolar guztioi!

# Nerea

Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97  
Kalebarren 13 ANTZUOLA



**DESKARGA  
AUTOAK**

Jai zoriontsuak  
antzuolar guztioi!

Antigua auzoa z/g Antzuola.  
Tel.: 943 76 62 75

Ile apaindegia


Cost

Edertze  
aretoa

Germaine de Capuccini produktuak

**Laser bidezko depilazioa**  
Informa zaitez!

Ondo pasatu  
Antzuolako jaixetan!





Koadrilen arteko pikean giro ederra jarri zuten parte hartu zuten lau taldeek. Irudian, probetako bat. | MIREN ARREGI

## San Martinak "oso ondo" joan dira, "pozik" dago jai batzordea

Ekintzek harrera ona izan dute orokorrean; asteleheneko azken traka, ederto

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioarrek agurtu dituzte San Martin jaiak datorren urtera arte. Urtero moduan, azken egunean herrikoek bertakoek izan zuten protagonismoa. Jone Arriolabengo jai batzordeko kideak azaldu digu zergatik den hain berezia azken eguna: "Bertako jendea egoten da gehienbat eta ekintzak ere horren araberakoak izaten dira. Azken eguna denez, jaiak aprobetxatzeko gogoia da jendea animatzen duena".

Gaszte Asanbladak antolatutako umeendako jolasekin hasi zen azken eguna. Ondo joan ziren: "Ume nahikotxo agertu zen jola-

setan eta giro polita egon zen. Bertako jolasak izaten dira astelehenekoak: guk guztiok umetan jolastutakoak", dio Arriolabengoak. Arratsaldean, berriz, koadrilen

txanda izan zen. Urteroko pikean, lau koadrila lehiatu ziren eta ohiko probekin giro ederra jarri zuten parkean. Euskal Telebista ere han izan zen, *Yes we jai* saio berrirako irudiak eta adierazpenak hartzen. *La roja me la trae floja* koadrila izan zen onena.

### Jaiak hobetzeko, parte-hartzea

Gauean, 120 lagun elkartu ziren herri afarian, mozorro eta guzti. Afalostean batukadak dantzan jarri zuen Herriko plaza. "Garrantzitsua da herritarren parte-hartzea jai batzordean, denon ideia eta ikuspuntuarekin jaiak hobetzeko", deritzo Arriolabengoak.

DATUA

**120**

LAGUN HERRI AFARIAN

Asteleheneko herri afarian  
120 lagun batu ziren  
plazan, haur zein heldu.

## Juan Falu musikari argentinarren saioa gaur

J.B. | ARAMAIO

Juan Falu Argentinako musikari ospetsuaren gitarra kontzertuaz gozatzeko aukera izango da gaur Sastiñan, 19:00etan hasita. Musikari autodidakta, Argentinako musikan oinarritzko erreferentea da, konpositore zein gitarra jole moduan. Hainbat sari eta errekonozimendu jaso ditu bere ibilbide oparoan zehar: Argentinako

Musika Nazionaleko saria 2000. urtean, Argentinako musika folkloreko artista onenaren Clarin saria 2001 eta 2007an eta Gardel saria lau alditan, besteak beste. Modu sortzaile eta inprobisatua du oinarri eta horregatik Eduardo Fernandez gitarra joleak "denbora errealeko konpositore" moduan definitu zuen. Goi mailako saioa izango da, beraz.

### Gaur, kale antzerkia ere bai

Bestalde, 18:00etan Panta Rhei taldearen *Monsters show* kale antzerkia ikusteko aukera egongo da plazan. Haurren kontrako tratu txar eta abusuen mundua du oinarri ikuskizunak, hainbat ikuspegiarekin eta umeendako horren erakargarriak diren munstroen ahotik. Hori guztia, noski, umore ukitu nabariarekin.

## 115 umek hartuko dituzte kaleak hilaren 17ra arte, udaleku irekietan

J.B. | ARAMAIO

Eguaztenean hasi ziren udaleku irekiak eta uztailearen 17ra arte luzatuko dira. Aurten 115 umek eman dute izena eta Aramaio haurrekin batera Saharako bi ume eta Ukrainako bat dabilta. Goizez hartuko dituzte kaleak, 10:00etatik 13:00etara. 3 eta 12 urte arteko haurrak dira guztiak eta horien zaintza eta heziketaz 12 begirale arduratuko dira, aramaioarrak guztiak. Urtero moduan, denetari-ko ekintzak egingo dituzte.

### Ekintzak, berrikuntzekin

Ana Muñoa arduradunaren arabera honako ekintzak egingo dituzte, besteak beste: Otxan-

dioko igerilekuetara, Etxaguen auzoko errotara eta Aramaio Basarri Barri fundazioaren Ikerketa eta Berrikuntzarako zentrorara bisitak egingo dituzte; ogia eta gazta egiten ikasiko dute eta Pablo Beitiaren txanpon-bilduma ezagutuko dute. Eta noski, Aramaion bertan hainbat irteera egingo dituzte.

Lehen egunean elkar ezagutzeko jolasak egin zituzten eta adinen arabera bederatzi taldeetan banatu ziren, talde bakoitzari bere izena jarritz. Horma-irudia egin, aurpegiak margotu, jolastu, ipuinak entzun... "oso ondo" hasi ziren udalekuak, Muñoak dioenez. Hori, bada, hasi besterik ez direla egin.



Talde bat, eguaztenean; lehen eguna elkar ezagutzeko izan zen. | ANA MUÑOA



JOKIN BEREZIARTUA

## Murugain: auzolanerako deia

Murugaingo indusketak bigarren fasean sartuko dira. Auzolana oinarri, iazko indusketekin jarraituko dute, Burdin Aroko eta 36ko gerrako arrastoak aurkitzeko. Eguaztenean lehen bileran lau egun zehaztu zituzten: hilaren 18a, 21a, 25a eta 28a. Parte hartu gura duenak honako bi telefonoetara dei dezake: 945 44 50 16 edo 625 70 63 74.

**HORTZ KLINIKA**  
Ana Sainz Malkorra  
Mediku estomatologoa  
Elkargokide zk.: 20000437

**PADI • Odontologia orokorra**  
Periodontzia eta inplanteak

**ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!**

Herriko Plaza 4, behea 20577  
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**MUJKA HARATEGIA**



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zeorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

## ELGETA

## Jaien inguruko herritarren iritzia jaso gura du Udalak

L.Z. | ELGETA

Datorren astean batuko da Jaien batzordea Ferixa Nagusiko jaien balorazioa egiteko, eta ordurako herritarren iritzia zein den jaso gura du. Herritarrei [ferixanagusixak@elgeta.net](mailto:ferixanagusixak@elgeta.net) helbide elektronikora euren iritzia bidaltzeko eskatzen diete. "Zer kenduko luketen, zer igarri duten faltan... Elgetarren iritzia jakin gura dugu Jai batzordetik", esan dute.

### Bandalismoa eskolan

Udalak, bestalde, jakinarazi du jaietako barikutik zapaturako gauean jendea ibili zela Herri Eskolaren instalazioetan. Baime-nik gabe eraikinaren ganbaran dagoen psikomotrizitate gelan sartu, guztia nahaspilatu eta eskolako su-itxalgailu bat atera zuten kalera. Su-itxalgailuaren hautsa Maala kalean hustu zuten ondoren.

### Jone Elkorok jaso du tableta opari

Martitzenean jaso zuen Jone Elkorok Jai batzordeak lehenengo aldiz antolatutako argazki lehiaketako saria. Tablet eder bat eraman zuen etxera.

Jai Batzordeak, bestetik, zozketan sarituak izan diren zenbakiak eman nahi ditu aditzera: 1020, 064, 528, 1001, 1009, 1006, 542, 507, 514, 540 eta 1003.

Eta ordezkioak honakoak dira: 509, 2501, 3016, 3045, 3032, 2074, 069, 2071, 2068, 1041, 505.

Sariak uztailaren 15a baino lehen jaso behar dira.



Jone Elkorok, tabletarekin. | L.Z.



Herritarra, Herri Eguneko bazkarian, plater berrerabilgarriekin. | J. CALLEJA

### Plater eta edalontzi berrerabilgarriak

Elgeta Zero Zabor taldeak Herri Eguneko bazkarian herritarrek izandako jarrera baikorra eskertu eta zoriondu nahi izan du. "Udalaren onarpenarekin eta laguntzarekin Elgetako Zero Zabor taldekook kudeatu genuen edalontzi eta plater berrerabilgarrien sistema. Bazkalostean herritarrek hondakin guztiak sailkatu zituzten, eta ontzitegia berriz ere erabiltzeko prest utzi zuten", adierazi dute.

## Elgetako pilota saila desagertu egin da

Bertan behera gelditzen dira pilotarien prestaketa saioak eta gaztetxoendako pilota eskolak

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Uztailean desagertu da Ozkar-biko pilota saila. Amaitu dira Elgetako frontoian, bai Ozkar-biko pilotarien entrenamendu saioak, bai gaztetxoendako pilota eskolak. Ikasturte honetan 13 pilotarik zuten fitxa Ozkar-birekin, eta datorren denboraldian Soroluzen sortu duten elkarte baten segituko dute ibilbidea.

Ozkarbiren pilota eskolan, berriz, 12 gaztetxok jardun dute amaitu berria den ikasturte honetan, eta datorren ikasturterako beste eskola bat aurkitu beharko dute pilotan jarraitu nahi badute.

Albiste tristea da, baina administrazioak exijitutako baldintza berriek eta errelebo faltak erabaki hori hartzera eraman ditu arduradunak.

### Lau t'erdiko txapelketa

Ozkar-biko pilota saila desagertzeak badu beste ondorio bat: kolokan dago Elgetako lau t'erdiko txapelketa. Ozkar-biko pilota sailak antolatu du urte hauetan guztietan, eta kontuan hartuta edozein txapelketa antolatu ahal izateko federatutako elkarte batek egon behar duela oinarrian, zaila izango da datorren urtean Elgetan lau t'erdiko txapelketa egitea.


AITOR ELKORO  
PILOTARI OHIA

### "Klub bat desagertzen denean gauza asko desagertzen da herritik"

"Kontatu didate zelan izan den kontua, eta nola Ozkarbi barruan zegoen pilota saila elkartetik banantzea eskatzen zuen Eusko Jaurlaritzak.

Penagarria iruditzen zait, batez ere klub bat desagertzen denean gauza asko desagertzen direlako herritik. Kluben lana oso garrantzitsua da jende gaztea formatzeko, eta horrelako klub bat desagertzen denean, gero zaila izaten da jende berria sartzea.

Juan Luis Uberak bizi guztia darama, bai pilota munduan, bai Ozkarbi elkartearrekin lanean. Sekulako lana egin du, eta uste dut eskertu egin behar diogula urte hauetan guztietan egindako lana".

AITOR MENDIZABAL  
PILOTARIA

### "Ni egon nintzen denboran ekipo polita ibili ginen entrenatzen"

"Klub bat desagertzea beti da gauza txarra. Azkenean, etorkizuna dago klub batean; mutikoak hortik hasten dira pilotan ikasten.

Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa kolokan egotea gauza txarra da, baina baita kluba bera desagertzea ere; izan ere, azkenean, garrantzitsuak dira herri bati bizitasuna ematen dioten taldeak.

Ni egon nintzen denboran ekipo polita ibili ginen entrenatzen. Juan Luis Uberak, berriz, dena eman zigun. Lan handia egin du, eta pilotaren inguruan dakien behar diogula erakutsi digu. Dena, berak zuen guztia eman zigun".

### Gaur egingo dute urteroko entzierroa udalekuko haurrek

Aste osoa eman dute entzierroa prestatzen, eta bi egingo dituzte gaur, San Fermin bezperan. Eguerdian partean irtengo dira kalera, eta, lehenengo, txikienek egingo dute lasterketa kartoizko zezenaren aurrean. Jarraian, nagusiek buruhandien aurrean egingo dute korrika.

### Astelehenean KZguneko dinamizatzailea kultura etxean izango da

Uztailean ere bi bisita egingo ditu KZguneko dinamizatzaileak Elgetara, biak arratsaldean. Astelehenean, hilak 9, egingo du lehenengoa, eta uztailaren 23an bigarrena. Kasu bietan ordutegi bera izango du: 16:00etatik 20:00etara. Ikastaroak edo kontsultak doan egiteko aukera emango du.

### Kantsatzeke taldeko ordezkariak kultura etxean eguaztenean

Eguaztenean, uztailak 11, Kantsatzeke mendi elkartean bazkide egiteko eta federatuzko aukera izango da. Federatuta daudenek, bestalde, euren aseguruaren estaldura zabalteko aukera ere izango dute. Hitzordua kultura etxean da, 19:00etatik 20:00etara.

## LEINTZ GATZAGA

## Hondakinen gainean jarduteko beste bilera bat egingo du Udalak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Hiri hondakinak konposta eginda kudeatu gura ditu Udalak, eta horren berri ematen jardun zuen joan den astean. Herritarrekin egin zuen lehenengo bilera, eta bi konpostagailu handi jarriko dituela jakinarazi zien. Ondoren, baserritarrekin elkartu zen Zerbitzuetako zinegotzi Juan Luis

Zabala, eta azkenik, ostalariekin eta enpresetako ordezkariarekin. Azken bi bilera horietara, baina, oso gutxi agertu ziren, eta berriro deitzeko asmoa du Zabalak.

Hondakinen gaineko erakusketak jarri du abian Mankomunitateak astean, eta hilabete bukatu ondoren Gatzagara iritsiko da. Orduan aprobeztatuko du Zabalak berri-

ro bilerak deitzeko. "Baserritarrendako ez da izango aldaketa handia; etxean konposta egiteko eskatu diegu, eta gainerako hondakinak herriko edukiontzietara ekartzeko orain legez", dio.

Ostalariek, ostera, zer egin gura duten erabaki behar dute: "Mankomunitatearen proposamena da atez atekoa egitea ostalaritza zerbitzuetan ere; eta guk eskaintzen diegun aukera, konposta egitea herrian jarriko ditugun konpostagailuetan", argitu du zinegotziak.

### Ordutegi berezia dute udaletxeko zerbitzuek uztailean eta abuztuan

Udal langileek gogorarazi dute udaletxeko zerbitzuek ordutegi berezia izango dutela uztailean eta abuztuan. Hala, herritarrek goizez bakarrik hartuko dituzte: 09:30etik 13:30era. Eta telefonoz ere ordutegi horren barruan deitu behar dute. Bestela, helbide elektronikora idatz daiteke: [udala@leintzgatza.com](mailto:udala@leintzgatza.com).

### Andramaixak antolatuzko batzarra dago gaur (19:00)

Iraileko Andramaixa jaiak gertatzen hasita dago Udala, urtero legez, herritarrekin elkarlanean, eta gaur, egubakoitza, bigarren bilera egingo du, elkartean, 19:00etan. Jaientarako proposamenak dituen edonondako izango dituzte ateak zabalik, eta poliki-poliki egitarauko ekintzak lotzen hasiko dira.

## ARETO FUTBOLA

# Akabaoak eta Desastre, Labegaraietako finalean

Bihar jokatuko dute, 19:00etan, Labegaraietako 25. finala

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Joan den asteko finalerdietan aurrera eginda, bihar jokatuko dute Labegaraietako torneoko finala UD Akabaoak eta Desastre Team taldeek. Lehenago, finalaren atarian geratu diren La12 eta Beti Gorri taldeen arteko lehia izango da, hirugarren postua norendako izango den erabakitzeko.

## Omenaldiak izango dira

Aurtengo finala, baina, berezia izango da. Antolatzaileek ahalegin berezia egin nahi izan dute txapelketak 25 urte betetzen dituelako. Hala, omenaldiak izango dira, eta baita DJ festa ere.



Joan den asteko irudia, finalerdian. | GOIENA



1987ko irabazle Madura Zuhaitz taldea. | BKE



88-89an, Lola taldea izan zen nagusi. | BKE

## 25 urte Labegaraietan, areto futboleko jokatzeko

Bergarako koadrilen artean kirola sustatzeko asmoz sortu zuten 1987an Labegaraietako areto futbol txapelketa. Hastapenetan Labegaraietako txatarrazko parkean jokatzeko zuten, eta ondoren pasa ziren kiroldegira. Hala, 1994an Lagunak Kirol

Elkarteak hartu zuten torneo antolatzeko ardura. Lehenengo torneo hartan liga erregularra Eroak taldeak irabazi zuten, baina play-off-etan Zuhaitzik eta Txibistok jokatu zuten finala. Luzapenean gola eginda irabazi zuten torneo Zuhaitzik.

## AUTOMOBILISMOA

# Gatzaga igo beharrean, Arlaban igoko dute bihar

Ibilbidea erabat aldatu dute antolatzaileek, proba errazago antolatu ahal izateko

X.U. | ESKORIATZA

Biharko Arlabango igoeran nobedade handiak izango dira, Gatzagako errepide zaharretik gora egin beharrean lasterketa Arlabango bihurguneetan egingo dute-eta.

## Harrera oneko proba

Hainbat urtez Gatzagako Igoerak hutsune handia utzi ostean duela bi urte hasi ziren Eskomotor taldeko lagunak osterera ere lasterketa antolatzen. Proba motza izan arren (3 kilometro eskas) oso harrera ona izan zuen pilotuen eta ikusleen artean. Baina, antolatzaileek urte hauetan arazo bat baino gehiago izan dute, eta gauzak errazte aldera, Arlabanen egingo dute bihar igoera: "Ezkontza sasoa ere bada, eta Dorletako Santutegian ospakizuna zegoen bakoitzean arazoak izaten geni-

tuen. Horrekin batera, Gatzagako jatetxeak ere kexu ziren, eta horregatik erabaki dugu aldaketa egitea.

Hala, bihar 14:00etan hasita 63 pilotu izango dira irteera puntuan, eta bailarako 12 pilotu hartuko dute parte: "Oraingo igoerak sei kilometro izango ditu, eta pilotuek izugarri gozatu dutela uste dugu; bidean chicane bat ere jarriko dugu".

## DATUA

# 6

KILOMETRO

Igoera berriak sei kilometro izango ditu, eta oso azkarra izango da



Idigoras, iazko Gatzagako igoeran. | JOSETXO ARANTZABAL

## TXIRRINDULARITZA

# Antzuolako saria jokatu dute amateurrek domekan

Aiastu lagunartekoek antolatuko duten txirrindularitza probak 130 kilometro izango ditu

X.U. | ANTZUOLA

Amateur mailako ziklistek -23 urtez azpikoak- Lehendakari Txapelketa barruan dagoen

Antzuolako saria jokatu dute domekan, 67. edizioa. Ziklistek 09:30ean hasiko dute proba, eta

txirrindulariek 130 kilometro izango dituzte. 61. kilometroan Deskarga igoko dute, eta Udantik bueltan Asentziarako bidea hartuko dute, azken igoera erabakigarriak. Hain zuzen, eta azken edizioetan gertatu den moduan, Asentzioko igoerako bi kilometroak erabakigarriak izango dira, eta gizonik indartsuenek baino ez dute aurrera egingo. Azken hitza, baina, Antzuolara bidean dauden azken kilometroek izango dute.



Iazko irabazle Aitor Gonzalez, Antzuolako helmugan. | JOSETXO ARANTZABAL

## UZTAILEKO SARIAK



HENRY BENGOA INVENTARIUM diska



NAIROBITARRA, mundua ezagutzeko jokua



GOIKOBALUKO 20. urteurreneko DVDa



GERRAKO IPUINAK. Sunti Amilibiaren ipuin sorta.

Animatu eta parte hartu!

## IRABAZLEAK

## EUSKALTELEKO KAMISETA

- Xabier Egaña Kortazar (Bergara)
- Ramon Ugalde Arrieta (Elgeta)
- Esteban Barandiaran (Arrasate)
- Mertxe Agirreurreta (Arrasate)
- Luis Malbadi Olano (Oñati)
- Elisabet Arregi Uriarte (Bergara)

goienakluba<sup>™</sup>  
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba<sup>™</sup> 2012

Tel.: 943 25 05 05  
e-posta: kluba@goiena.com  
goienakluba.com  
Urteko kuota: 50 €.

## BORROKA LIBREA

Maidar Unda | Borrokalaria

# "Urrearekin egiten dut amets, zergatik ez? Urte hauetan horretarako egin dut lan; gogor, gainera"

- ▶ Abuztuaren 9an hartuko du parte Londresko Joko Olinpiarretan, 72 kiloko kategorian
- ▶ Duela lau urte, Pekinen, bosgarren izan zen; gorenera iritsi nahi du orain

XABIER URTZELAI | GASTEIZ

Hilabete barru lehiatuko da Maidar Unda aramaioarra Londresko Joko Olinpiarretan. Abuztuaren 9an du hitzordu handia, eta martitzenean Gasteizen egindako prentsurrekoan, txapelketari begira dituen asmoen gainean egin zuen berba. Borroka librea ez du kolpean uzteko asmorik, baina badaki azken jokoak izango dituela. Bai, amets egiteko ordua da, eta errearekin egiten du amets.

**Domina bat irabaztea nahi duzula adierazi duzu garbi, eta errearekin amets egiten duzula.**

Kirolariok dugun ezaugarrietako bat anbizioa dela uste dut, beti nahi izaten dugu gehiago, eta horretarako egiten dugu gogor lan. Ni, behintzat, ez naiz Joko Olinpiarretara joatearekin konformatzen. Dagoeneko bizi izan dut esperientzia hori, eta orain, etxetik gertuago egonda, seguru nire aldeko animuak jaso ahal izango ditudala. Zerbait handia egitea demasa izango litzateke niretzako.

**Kirolari gutxi egiten dute horren garbi berba, euren burua ez presionatzeko-edo. Ez da zure kasua.**

Izan ere, zertarako entrenatzen naiz, bestela? Pausoz pauso joan nahi dudala esateko? Zu ez zara nirekin entrenatzen egoten, ezta? [Barre] Ba, egun batzuk oso gogorrak izaten dira. Oso gogorrak.

**Zure azken aukera da?**

Bai, geroago eta garbiago daukat hori. 35 urte dauzkat, eta Rioko Joko Olinpiarretan 39 urte izango ditut...

**Urrea irabazita ere ez zenuke beste joko batzuetan parte hartuko?**

Bueno... [Barre]. Egia da Londresen egingo dudanak datozen urteotako jarduna baldintzatuko duela, baina ez beste joko batzuetara joatea... Nire gorputzari atsedean eman nahi diot, batez ere lasaiago ibili. Garbi daukadana da Londresko jokoen ostean borroka librea ez dudala kolpean utziko, txapelketetan parte hartzen gozatu egiten dudalako.

**Azken parte-hartzea dela jakiteak kontrarioen aurrean arrakastuago egiten zaitu?**

Baliteke. Badakit nire azken aukera dela eta dena eman behar dudala. Ez dut inongo asmorik kontrarioei abantailarik emateko. Nik aprobetxatu behar ditut aukera guztiak.

**Duela lau urte, Txinako jokoen ostean, argi zenukan beste aukera bat izango zenuela?**

Hori sinetsi nahi nuen, baina egia da belauneko lesioaren ostean



Maidar Unda, martitzenean, Gasteizen egindako prentsurrekoan. | MAIDAR UNDA

gauzak dezente aldrebestu zirela. Nik eta nire entrenatzaileak garbi geneukan ondo errekueratze-ko eta hitzordura iristeko gauza izango nintzela, baina ordurako 33 urte nituen, lesio larria zen, eta ingurukoek ez dakit horren garbi ote zuten.

**Borrokalari guztiek ezagutzen duzue elkar. Zeintzuk izango dira kontrario gogorrenak?**

Bueno, guztira, 18 borrokalari izango gara, baina hainbat selekzioetan azken orduko aldaketak egongo dira, eta denak ez ditut

**"Londresen ostean ez dut agur esango, baina eritmoa jaitsi nahi dut"**

**"Arlo psikologikoak garrantzi handia izango du, fisikoak baino gehiago"**

ezagutzen. Estatubatuarrek eta errusiarrek ez dute sailkatu zena eramango, Txinatik ez dakigu nor joango den... Horiek albiste onak dira, euren herrietan borrokalari ezagunak direlako, baina nazioartean ez direlako puntako borrokalariak. Faboritoak, baina, gutako edozein gara. Denok iritsiko gara gorputzaldi onean, eta sekulako gogoarekin.

**Zozketa bidez erabakiko dira kontrarioak?**

Bai, eta oso erabakigarria izan daiteke hori. Ea zortea dugun.

**Duela lau urteko Olinpiar Jokoein alderatuta, fisikoki zelan zaude?**

Nik uste dut oso egoera onean iritsiko naizela Londresera. Gainera, lau urteko esperientzia daukat, eta halakoetan balio handia du horrek. Pekinen, esaterako, Kanadako borrokalariarekin indar guztiak xahutu nituen, ez nuen uste horrenbeste kostatuko zitzaidanik hura mendean hartzea, eta orain badakit indarrak hobeto neurtu behar ditudala, kanporaketa bat bestea ostean dato-rra.

**Jokoetarako sailkapen fasea oso gogorra izan zen, munduko alde batetik bestera ibili zinen hilabetez. Indarberrituta?**

Bai, bai. Bi asteko oporraldia eman zidaten, eta oporrak amaitu aurretik itzultzeko gogoz nintzen. Fisikoki ondo errekueratu naiz, eta psikologikoki ere konfiantza hartu dut. Nahiz eta azken orduan sailkatu naizen, ondo erantzun dudala ikusteak indarra eman dit.

**Londresera joan aurreko hilabete hau zelakoa izango da?**

Egubakoitzean [gaur] Madrileranoa lehiatzea, eta Joko Olinpiarretan izango garen hamar borrokalari batuko gara bertan. Gutako bakoitzak indartsu dagoela erakutsi nahiko du, eta txapelketa gogorra izango da. Ondorengo egunak Madrilen egingo ditugu entrenatzen, eta etxera itzuliko naiz gero. Azken asteak lasaiagoak izango dira, intentsitatea mantentzea komeni da, baina entrenamendu motzak izango dira. Hala, abuztuaren 5ean abiatuko gara Londresera.

**Aipatu duzu Londresen ez duzula agur esateko asmorik.**

Ez, horrenbeste urtez lehiatzen eta gogor entrenatzen ibili ostean ez diot nire gorputzari halakorik egin nahi; hau da, kirol hau bat-batean utzi. Garbi daukat eritmoa jaitsi nahi dudala, bizimodu normalagoa izan nahi dudala, elitean gabiltzanon bizimodua ez da eta oso erakargarria.

**Ez dira bateragarriak elite maila eta eguneroko bizitza?**

Urteek aurrera egin ahala, geroago eta gutxiago. Gaztea zarenean eta ez dazunean besterik, oso ondo dago elite mailako kirolari izatea. Baina orain, beste gauza batzuk igartzen ditut faltan; gehiago kostatzen zait gogor entrenatzea, urteotako lesioak igartzen ditut, lagunak ikusten ditut seme-alabekin lasai-lasai... Guk, berriz, gogor entrenatu eta atsedean hartu, sasoi hauetan ez dugu besterik egiten, eta nekagarria da.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe  
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA  
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

### AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22  
amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11  
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKU KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

# KULTURA

## Igo zaitez Biblioparren olatura!

- Bergarako Udal Liburutegiak izan du 2012ko Biblioparren gida koordinatzeko ardura
- Azal freskagarria eta dibertigarria egin du, beste behin, Iraide Olaizola diseinugileak

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Udako oporrak iristear daude eta oporrak une aproposa dira esku artean liburu bat hartzeko. Ibarreko liburutegiek, aurten ere, Biblioporrak egitasmoa jarri dute martxan esku artean har ditzakegun liburuen gomendioa egiteko. Drama, komedia, abentura... genero guztiak dira onak udako oporretarako, baina ba omen dira batzuk beste batzuk baino egokiagoak direnak. Horiek dira Biblioporrak gidak jasotzen dituenak, beste behin. Helburua, irakurketa bultzatzea da. Baina ze motatako gaiak izaten dute arrakasta? Asun Agiriano Arrasateko Udal Liburutegiko arduradunarekin hitz egin dugu. "Udarekin batera iritsi da Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Oñati eta Legazpiko udal liburutegiek kaleratzen dugun 2012ko Biblioparren gida. Gustura jasotzen dugu, gainera, Biblioparren eskaintza", azpimarratu digu Agirianok. Baina lana uda iritsi baino askoz lehenago hasten dute liburutegiko langileek. "Aste Santuaren bueltan, gure ingurukoekin elkartu eta liburu berrien artean hasten gara arakatzeko, irakurtzeko eta saltzeko; oso gustura egiten dugun lana da, pozik hartzen dugu Debagoieneko eta Legazpiko liburutegikoek ardura hori; 20 urte bete dira Biblioparren ekimena abiatu genuenetik", azaldu digu Asun Agirianok.


Hala, irakurleei galdetu, adin tartea osatu eta aukeraketa eginez osatzen joan dira haur, gazte eta helduendako liburu, musika eta filmen urteroko gida.

"Oso garrantzitsua da liburutegiko erabiltzaileen iritzia ere. Batzuetan merkatuak eskaintzen duen guztia irakurtzea ezinezkoa egiten zaigu; beraz, gure erabiltzaileei iritzia eskatzen diegu. Irakurle fidelak ditugu, edo musika eta zinema genero konkretu baten zale direnak. Haiei eskatzen diegu laguntza", dio Agirianok.

Aukeraketa egitean, baina, zer hartzen da kontuan?: "Euskara eta gaztelaniako edukien arteko oreka mantentzen saiatzen gara; adin tarte bakoitzeko 16 aholku egiten ditugu, zortzi hizkuntza bakoitzeko; argitaletxeen artean ere oreka mantentzen dugu. Hala, hemengo eta atzerriko argitaletxeak, ezagunak direnak, eta ez hain ezagunak aukeratzen ditugu. Generoka ere egiten dugu



**AMATXO ETA NI** Elefanteen bidez amaren eta haur txikien lotura jorratzen duen liburu sakona.



**LA OLA** Institutuan zein erraza den faxismo egoera eta jarrerak jaiotzea kontatzen duen komikia.

bildumaren sailkapena, askotarikoa izan dadin".

**Argitaletxe eta liburutegietara** PDF formatuan, interesa duten guztiak bidaltzen diete aukeraketa. "Zerbait argitaletxetara, eskolatarara... bidaltzen dugu Biblio-



Aurtengo gidaren azala.



**DRAGOIA** Kultura aniztasuna, adiskidetasuna eta beldurra jorratzen duen album ilustratua.



**BAITA HONDAKINAK ERE** Arina, baina oso sakona; poesiari beldurra kentzeko egokia da.

porren gida. Argitaletxeek, esaterako, gure lana zein den ikusteko aukera dute; asko eskertzen dute eurek kaleratutako liburuak gure gomendioen artean egotea. Gainera, ikastetxeetan umeei gomendio horiei jarraituz, irakurri egiten dute eta batzuek erosi ere egingo dute. Argitaletxeendako garai zail hauetan ona da gure irizpideen arabera euren liburuak aukeratuak izatea. 650 ale banatu ditugu Arrasaten Lehen Hezkuntzan soilik". Agirianok azaldu digu jendeak ere gomendioa egiteko eskatzen diola liburutegian, eta pozik egiten duela, gainera.

### Diseinu freskagarria

Diseinua Iraide Olaizola artista azpeitiarrarena da; urtero diseinatu du Biblioparren gidaren azala. Aurten, ideia originala eta freskagarria egin duela azaldu



**PINOTXOREN ABENTURAK** Pinotxoren klasikoa eta historia osoa ezagutzeko liburu egokia.



**NACHO VEGAS** Bakarlariak kaleratu duen azken lana: *La zona sucia*. Egungo gaiak jorratzen ditu.

digu Agirianok: "Urte asko dira, eta diseinu asko. Urtero sekulako lana hartzen du. Aurten surfa aukeratu du, modako gaia da, eta itxura ezberdina eman nahi izan dio. Olatu gainean egiten du jauzi surflariak, eta non eroriko eta liburuen orri bitartetara salto egiten du. Oso diseinu bitxia eta erakargarria egin digu, beste behin, Iraide Olaizolak".

### Bergarako liburutegia

Urtero, udal liburutegi batek izaten du ardura Biblioparren gida koordinatzeko. Aurten, Bergarako liburutegiari egokitu zaio ardura hori. "Uztailan, gainera, bibliopisina zerbitzua igerilekuko kanpoaldean emango dugu astelehenetik egubakoitzera. Lehen Hezkuntzako ikasleak dira gure erabiltzaile ohikoenak", azaldu digu Mila Agirrezabalek, liburutegiko arduradunak.

### UDAKO ORDUTEGIA

#### ARAMAIO

Astelehenetik egubakoitzera:

**Uztailak 3-13:**

17:00-19:00

**Uztailak 16-27:**

13:20-13:00

**Abuztuan itxita.**

#### ARETXABAETA

Ekainak 23-irailak 30:

10:00-13:00 eta

16:00-20:00

**Abuztuaren 4tik 20ra itxita.**

#### ARRASATE

Astelehenetik egubakoitzera:

Ekainak 22-irailak 14:

10:00-13:00 eta

16:00-20:00

**Abuztua: 09:30-14:30**

#### BERGARA

Astelehenetik egubakoitzera:

Uztaila: 08:30-13:30 eta

18:30-20:00

**Abuztua: 08:30 - 13:30 (4tik 26ra itxita)**

#### UDAKO ZERBITZU BEREZIA

Bibliopisina (Agorrosin)

Uztaila: 15:00-18:00

Udaletxeko arkupeetan

**Abuztua: 18:00-20:00**

#### ESKORIATZA

Astelehenetik egubakoitzera:

10:30-13:00 eta

18:30-20:00

**Uztailak 28-irailak 2 itxita**

#### OÑATI

Astelehenetik egubakoitzera:

Uztaila: 10:30-13:00 eta

17:00-20:00

**Abuztua: 09:30-13:30**

**Haur liburutegia:**

Uztaila: 10:00-13:00

**Abuztuan itxita**



Juan de Diego | Tronpeta jotzailea

# "Abesti beroak eta nostalgikoak, biak joko ditugu gaur Espoloian"

Trakas taldearekin zabalduko da gaur gauean Berumuga, 22:00etan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

*Erbestea* (Errabal 2012) izeneko tituluarekin proiektu berri bati ekin dio Juan de Diegok, Katalunian bizi den tronpeta jotzaile bilbotarrak. Trakas taldearekin dator gaur Bergarara. Aurtengo Berumuga zikloa zabalduko du. **Nolakoa da *Erbestea* lana?**

Entzule batzuek nostalgikoa dela esan didate, eta beste batzuek, berriz, alai. Eta uste dut biek dutela arrazoiak; izan ere, abesti sutuak eta nostalgikoak, biak ditu. *Erbestea* izenak berak ere badu nostalgia ukitua.

**Eta nortzuek zarete Trakas?**

Aurreko diskoa atera nuenean, *Panza de burro* (Errabal 2008), banda bat egiteko gogoarekin bukatu nuen. Horretan pentsatzen hasi eta taldekide bila hasi nintzen. Abel Boquera organo jotzaileari eta Caspar St. Charles bateriari jotzaileari deitu nien, nire asmoaren berri emateko, eta animatu ziren bandako kide izateko. Jordi Matas gitarra jotzailea da taldeko laugarrena. Blues, soul eta antzeko doinueta maisu dira hirurak eta nik egindako kantuetara nola moldatuko ote ziren kezka txikia banuen, baina ondo baino hobeto egiten dute.

**Zeure neurria egindako banda.**

Bai. Grabazioetan, esaterako, Dani Dominguez bateriari jotzailea ere izan da gurekin, eta diskoa Bartzelonan aurkeztu genuenean, hango Jamboree dantzalekuan, bateriari jotzaile birekin egin genituen kontzertuko azken bi kantuak. Ondo elkar ulertu zuten, berotu ziren eta primeran atera zen kontzertua. Entzuleei ere asko gustatu zitzaizen.



Juan de Diego, erdian, Trakas taldeko lagunak atzean dituela. | RAFAEL AROCHA

**"Banda bat egiteko gogoan nuen, eta neuk aukeratu ditut Trakasko kideak"**

**Zergatik jazz?**

Ni baino lau urte zaharragoa den anaia Bitorrek ekarri zuen doinu hori etxera. Egutero entzuten genuen musika hori gauetan; behin eta berriz entzuten genituen diskoak. Nik 10 urte nituenean, saxoa ekarri zuen, eta iraultza izan zen hori. 12 nituela, musika banda bat ikusi nuen Bilboko Aratusteetan jotzen, eta tronpe-

**"Anaiarekin ezagutu nuen jazz, eta 12 urterekin tronpeta eskatu nion aitari"**

ta erosteko eskatu nion aitari. Handik aurrera musikari lotuta egon naiz. Ingeniaria eta peritu industrial ikasketak bukatu nituenean Bartzelonara joan nintzen. Anaia han zegoen eta musikatik bizi zitekeela esan zidan. Ez nuen sinesten. 19 urte pasa dira.

**Hemen bestelako musika gehiago entzuten da jazz baino.**

**BERUMUGA 2012**

**UZTAILAK 6, EGUBAKOITZA**  
Juan de Diego TRAKAS

**UZTAILAK 13, EGUBAKOITZA**  
Txus Blues&Joe Bluefingers.

**UZTAILAK 20, EGUBAKOITZA**  
Nico Waine Toussaint.

**ABUZTUAK 2, EGUENA**  
The Mighty Calacas.

**ABUZTUAK 23, EGUENA**  
Aire Ahizpak.

Kontzertu guztiak Espoloian dira, 22:00etan, eta doan.

Donostia, Getxo edo Gasteizko jazz jaialdiak egiten dira, eta oso ondo dago, baina sarea sortu behar da. Hor inbertitu behar da.

**Nolakoa izango da Bergarako gaurko kontzertua?**

Gure azken diskoko kantuak joko ditugu, noski. Eta denetariko piezak entzungo dituzte entzuleek: groove kutsukoak, abesti beroak, eta baita nostalgikoak ere.

**Pozik Bergarara zatoztelako?**

Oso pozik. Bai Euskal Herrira gatzelako, eta bai Bergarara gatzelako ere. Egia esan, ni neu uste dut behin bakarrik egon naizela Bergaran. Galartzaren eta Zeziagaren arteko pilota partidua ikusten egon nintzen. Askok gustatzen zait esku pilota.

## Anttoneko kontzertuek jarraipena izango dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Jendeari gustatu zaio formatu txikiko kontzertuen, emaldiaren, ideia. Oñatiar askok ohitura moduan hartu dute egubakoitzetan Antton tabernako kontzertura etortzea, eta hori pozgarria da. Gustura gaude, oso erantzun ona izan du ekimenak", dio Antton tabernako Xabi Elortzak.

Herritarren eta taldeen erantzun ona ikusita, datorren urriaren bigarren egitaraua martxan jartzeko gogoz dago Elortza. Dagoeneko baditu ideia batzuk martxan.

**Dexter magoa domekan**

Egubakoitzetako kontzertuen zikloa bukatu da, baina domekarako Dexter magoaren ikuskizun dibertigarria antolatuko dute, 19:30ean. Antton tabernako hurrengo hitzordua udazkenean izango da.



Ain\_1, Arrasaten. | GOIENA

**Ain\_1-en 'Musika kaxa' Internetez ere entzun daiteke orain**

Ainara, Ixaso, Amaia, Maialen eta Iraitz dira Ain\_1 taldea. Musikaz gain, ikuskizuna eskaintzen duen proiektua da Ain\_1; izan ere, dantza, ikus-entzunezkoa, poesia eta gehiago uztartzen dituzte emandietan. *Musika kaxa* izena du ekimen horren lehen diskoak. 12 kantu ditu eta orain *Ekaitzaldi* webgunean ere entzun daiteke.

**Behi Bi Blues proiektu berria ezagutzeko aukera gaur Arrasaten**

Gaizka Azkarate harmonikan eta Azkarter Pelox gitarran eta ahotsean. Horixe da Behi Bi Blues proiektu berria. Forma ematen ari dira oraindik. Bikoteak sortutako berezko kantuekin eta 50eko hamarkadako blues abesti euskaratuekin datoz gaur, Arrasateko Iluntz tabernara, 22:00etan.

## Mikel Markez eta Erramun Martikorena gaur Huhezin

Uztailaren 28ra arte iraungo duen Errekan Gora ekimeneko lehen hitzordua da

O.E. | ESKORIAITZA

Mikel Markez eta Erramun Martikorena musikariek elkarrekin joko dute gaur Eskoriatzako Huhezi faktultateko klaustruan, 22:30ean, Aitzorrotz kultura elkarteak gonbidatuta. Aurtengo Errekan Gora kultur ekimeneko lehen hitzordua izango da.

Markez eta Martikorenak, baina, ez dute bakarrik joko. Hainbat musikari ezagunek, Pello Ramirez tartean, osatzen duten banda batek lagunduko die. Ema-

naldiak, gainera, argiteria eta muntaia berezia izango ditu, Huheziko klaustrak dituen baliabideak lagun.

**Bolibarren ere bai**

Aurtengo Errekan Gora antolatzeke orduan, aurrekontua murriztu egin behar izan dute, baina, hala ere, egin duten ahaleginarekin aurreko urteetako emanaldi kopuru bera mantentzea lortu dute. Euskal Herriko talde eta bakarlari ugari parte hartuko dute eta kontzertuak



Mikel Markez gitarra jotzen eta Erramun Marikorena abesten. | MUSIKAZUZENEAN

herriko esparru desberdinetan izango dira, urtero moduan. Aurten, gainera, Bolibarko elizatean ere izango da kontzertua. Fadoa entzungo da han, hilaren 20an.

Mikel Urdangarin eta Tom Tom Makuts dira Eskoriatzara etorriko diren beste bi talde. Eta 28an, Hesian, Des-kontrol eta Lauroba datoz Nafarroa Bizirik kantaldi akustikora.



Andoni Ugarte | Realeko jokalaria

Andoni Ugarte, Realeko kamisetarekin, Oñatiko Antixena parkean.

MAIALEN REGUEIRO

# "Realarekin amaituz gero, oso gustura bueltatuko nintzateke Aloña Mendi taldera"

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Andoni Ugarte (1995) futbolari oñatiarra Aloña Mendi taldean jokatzen hasi zen, egun Realean dihardu eta etorkizunean, gustura etorriko litzateke Aloñara.

**Zenbat urte daramatzazu Realean?**

Datorren denboraldia liga jokatzen dudan bosgarren urtea izango da. Dena den, aurretik bi urtean hainbat torneo jokatu ditut.

**Nolatan Realean?**

11 urterekin Aloñan jokatzen nenbilen eta Zubietara entrenamendu batzuk egitera joateko proposatu zidaten. Infatiletako bigarren urtean taldea sortu zen eta ordutik hona kontuan hartu naute.

**Ikusten zenuen zure burua Realean?**

Lehenengo aldiz deitu zidatenean espero ez nuen zerbait izan zen, baina notizia oso gustura hartu nuen.

**Nola sentitzen zara Realeko jokari izanda?**

Realean mutil gazte asko gaude eta beste bat gehiago bezala sentitzen naiz. Sakrifizio eta ardura handia eskatzen duen zerbait da. Batzuetan, gogorra egiten da, baina gustura nabil.

**Ikusten duzu zure burua etorkizunean talde nagusian?**

Momentu honetan futbol maila nola dagoen ikusita, oso zaila da, baina esperantzarik ez da inoiz galdu behar.

**Ez da berdina izango Aloñan edo Realean jokatzea.**

Realean jokatzeak desabantaila asko ditu erosotasun aldetik,

asteen lau aldiz Donostiara joan behar izaten dudalako. Eskakizun maila handia eskatzen du. Bestalde, Aloñan nuen lagun arteko giroa faltan igartze n dut.

**Penarik eman zizun Aloña uzteak?**

Bai. Herriko taldea da eta lagunak bertan daude. Zaila egiten da talde berri batera mugitzea.

**Aloñatik oroitzapen onak dituzu?**

Bai, oso onak. Giroa oso ona zen gure artean. Gainera, urte onak egitea lortu genuen. Haiekin harremana izaten jarraitzen dut, eta, batzuetan, haiekin entrenatzera joaten naiz.

**Nolakoak dira entrenamenduak eta partiduetak?**

Urteek aurrera egin ahala, gogorrak dira. Exijentzia maila handia eskatzen dute. Gehiengotan, gu baino zaharragoak dire-

nen aurka jokatzen dugu eta partiduetak gogorrak izaten dira.

**Nola joaten zara entrenatzera eta partiduetara?**

Entrenamenduetara taxian joaten naiz. Taxia hainbat herritatik igarotzen da eta jokariak batzen ditu. Partiduen kasuan, Gipuzkoan badira, gurasoekin joaten naiz, baina Gipuzkoatik kanpo jokatzen dugunean, taldekoak autobusean joaten gara.

**Zer da Realean egotearen onena eta txarrena?**

Jende berria ezagutzeko eta gus-tuko duzuna goi mailan egiteko aukera ematen dizu. Txarrena, Oñatitik Donostiara bidaiatzea eta egun batzuk sakrifikatzea.

**Realean esperientzia onak eta txarrak izango zenituen.**

Lehenengo urteak oso politak izan ziren, gogo handirekin hasi nintzelako esperientzia berri

honetan. Gainera, jokatu nituen hasierako torneoetatik oroitzapen onak ditut. Momentu txarrak ez ditut izan, baina torneo bateko finala galdu genuen eta pena eman zidan.

**Zenbat urtean egongo zara Realean?**

Hurrengo urtean ere jokatuko dut Realean, baina hortik aurrerakoak ez dago jakiterik.

**Etorkizunean Aloñara bueltatzeko asmorik?**

Realarekin amaituz gero, oso gustura bueltatuko nintzateke.

**Zer aldatu da Aloñan zegoen Andonitik Realean dagoen Andonira?**

Egia esan, nahiko gutxi. Orain arduratsuagoa naizela esango nuke, konpromiso bat baitaukat.

**Hurrengo denboraldirako ze asmo?**

Hurrengo urtean gazteen oho-rezko mailan jokatzeo aukera eman didate.

## PERTSONALA

**Herriko txoko bat:** Usako.

**Euskal Herriko txoko bat:** Oñati.

**Futbol talde bat:** Reala.

**Futbol jokari bat:** Iñigo Martinez.

**Ametz bat:** Realeko talde nagusiarekin jokatzea.

**Gorrotu duzuna:** azterketa aurreko egunak.

**Bidaiatzeko leku bat:** Monako.

**Janari bat:** Paella.

**Udako plana:** Lagunekin egotea eta entrenatzea.

# ANTZUOLAKO JAIAK 2012

Umeen ikurrin-dantza  
Udalbatzaren aureskua  
Larrain-dantza  
Herri bazkaria... eta afaria  
Hontzaren jaitsiera... eta igoera  
Umeendako ekintzak  
Mairuaren Alardea  
Gozategiren kontzertua  
Eta gauza gehiago!



Mairua, bere  
izena duen  
alardean, iaz.

BIXI



## ELAY Taldea

**BIKANTASUNARI BEGIRA  
EGINDAKO LANA**

Lizarragako Hiribidea z/g  
20577 Antzuola  
Gipuzkoa  
Tel.: 943 76 61 00  
Faxa: 943 76 62 62  
[www.elay.com](http://www.elay.com)

## AGURRA

IMA  
BERISTAIN  
Antzuolako  
alkatea



## Alkatearen agurra

Urtebete pasa da lehenengo aldiz txoko honetan idatzi nuenetik. Zein azkar pasa den urtea, eta zenbat gauza ikasi ditugun, zenbat egin eta zenbat ditugun oraindik ere egiteko. Eta talde guztia buru-belarri, dauzkagun erronkei aurre egiteko ilusioz. Baina beti izan dugu argi: zuek gabe ezin dugula ezer egin.

Orain jaiak iritsi dira eta denok gozatzeraz! Bizi ditzagun alaitasunez jaietako lau egun hauek, programan azaltzen diren ekintzetan parte hartuz eta kaleak irribarrez betez. Hori da hainbat herritarrek egitarau hau prestatzen egindako lana eskertzeko modua.

Bestalde, Espainiako Estatua, bere itsutasunean, irtenbideari ate guztiak ixten ari den garai hauetan, helarazi diezaiozun gure besarkadarik beroena itsukeria horren ondorioak jasaten ari den Eltzikorta gure herrikideari eta bere senitartekoei.

Amaitzeko, txoko honetatik, azkenaldian hondakinen kudeaketan egiten ari garen aurrerapenei jai hauetan ere bultzada emateko eskatu nahi dizuet. "Zero zabor"-en bidean, jaietan ere ahalik eta zaborrik gutxien sortuz eta sorturikoak fin bereziz.

# ANTZUOLAKO JAIEN EGITARAUA

## EGUENA

12

**12:00** JAIEN HASIERA: kanpaiak, umeen bertsoak, alkatearen hitzak...

**12:00** Umeekin KALEJIRA.

► Ondoren, umeek gertatutako ikuskizuna eskainiko dute.

**13:30** umeen HERRI BAZKARIA.

**18:00** Buruhandi, txistulari eta trikitalariek KALEJIRA.

**19:00** MEZA. Abesbatzak Hilarion Eslavaren SALBEA kantatuko du.

**19:45** IKURRIN dantza umeekin eta Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea. UDALBATZAREN AURRESKUA.

**22:00-23:50** KALE AFARIA plazan Bentzaharreko Mutiko Alaiak taldearen eskutik.

**23:50** Mahai eta aulkiak jasoko dira.

**00:00** HONTZAREN JAITSIERA

**00:20** KANTU SAIOA

Bentzaharreko Mutiko Alaiak-ekin.

## EGUBAKOITZA

13

**10:00** Txistularien GOIZERESIA.

**10:45** GASTRONOMIA lehiaketa. Aurten protagonista patata-tortilla.

**11:00-13:30** Umeendako JOLAS PARKEA eskolako patioan.

**12:00** MEZA NAGUSIA.

**12:45** SARI BANAKETAK: gastronomia eta balkoi eta leihoetako lore apainketenak.

**13:00** PATATA-TORTILLA dastatzeko aukera.

**14:30** HERRI BAZKARIA Kalebarrengo arkupeetan.

**16:30-18:30** JOLAS PARKEA.

**18:30** PONEYAK, ZEZENTXOAK eta KOADRILEN JOKOAK Zurrategin.

**22:30** ZESUMA taldearen erromeria

**00:00** ZEZENSUZKOA plazan.

**00:15** ZESUMA taldearen erromeria

## ZAPATUA

14

**09:55** Kanoiak sutzea.

**10:00** Txistularien GOIZERESIA.

**11:30** BERGARAKO BANDAREN kalejira.

**12:30** BERGARAKO BANDAREN kontzertua, Zurrategin.

**19:00** MAIRUAREN ALARDEA. Oinarinen dantzak ikusi ahalko dira.

**21:30** HERRI AFARIA Zurrategin.

**22:30** JOSELU ANAIK plazan.

**00:00** ZEZENSUZKOA plazan.

**00:30** JOSELU ANAIK taldearekin erromeria herriko plazan.

## DOMEKA

15

**12:00** ERIZ MAGOA plazan.

**12:00** Debagoieneko Lehen TXAKOLIN Eguna. SALDA erretiratuen eskutik.

**17:00** PILOTA partiduak:

► Ongay-L. Galarza/  
Gorka-Larrinaga

► Aritz Lasa-Zabaleta/  
Mendizabal Iii.A-Laskurain

**19:00** KLOWN saioa plazan.

**20:30** LARRAIN DANTZA Ondarreko gaitariek lagunduta.



FACEBOOK.COM

**KONTZERTUA** | ZAPATUA | HERRIKO PLAZA | 00:30 Aurten ere, gau giroa alaituko dute erromerian Joselu Anaiak.

**20:45-22:30** DJ saioa Bidusoundekin, herriko plazan.

**23:00-00:00** DJ saioa Bidusoundekin, herriko plazan.

**00:00** HONTZAREN IGOERA.



ARGAZKI PRESS

**PILOTA PARTIDUAK** | DOMEKA | PILOTALEKUAN | 15:00. Aritz Lasa eta Zabaleta Iii.a bikotea Mendizabal Iii.aren eta Laskurainen aurka ikusteko aukera izango da hilaren 15ean.

**Aixa**  
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!



## TXOMIN GARAJEA

ZORIONAK  
GUZTIO!!

Mekanika orokorra



Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

# Dantzak izango dira nagusi jaien lehenengo egunean

Ikurrin-dantza egingo dute txikienek; udalbatzak, berriz, aurrekua

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Eguenean, uztailaren 12an, 19:45ean, herriko bandera eta ikurrina jasotzea egingo dituzte plazan, eta ekitaldi horretan parte hartzeko ohorea izango dute lehen aldiz herriko 26 umek. Izan ere, urtero moduan, Oinarin dantza taldeko txikienek egingo dute ikurrin-dantza eta horien artean egongo dira ikasturte honetan dantzan hasi diren umeak. Guztira, 26 izango dira dantza egingo duten umeak.

Aratuste-domekan egin ohi den dantzaldian dantzatu zuten lehen aldiz Antzuolako herritarren aurrean ume horiek, baina jaien hasierako ikurrin-dantza egiteak umeendako garrantzi berezia izaten du. Udaleku irekietan topatu ditugu horietako batzuk, eta jaietan dantza egiteko "irrikan" daudela kontatu digute. Ea, bada, ondo irteten zaien guztia.

## Udalbatzaren aurrekua

Udalbatzaren aurrekua izaten da lehen egun horretan ikusmina pizten duen beste ekintzetako bat. Joan den urtean bezala, aurten ere Bilduko zinegotziek bakarrik parte hartuko dute aurrekuan, Oinarin dantza taldeko kideekin batera.

Ima Beristain alkateak esan digunez, dagoeneko hasi dituzte



Udalbatzaren aurrekua, iazko jaietan. | USOA AGIRRE

DATUA

26

UME

Dantza-taldean ikasturte honetan hasi berri diren 26 umek egingo dute lehenengo aldiz ikurrin-dantza jaietan.



Dantza lehenengo aldiz egingo duten umeak. | USOA AGIRRE

## Larrain-dantza jaien bukaeran

Azken urteotako ohiturari jarraituz, larrain-dantza egingo dute aurten ere domekan, jaien azken egunean.

Urtero jendez betetzen da plaza larrain-dantza egiteko, eta aurten ere hala izango dela espero dute dantza taldeko kideek. Duela urte batzuk egin zituzten larrain-dantza ikasteko ikastaroak, baina aurten ez dute ikastarorik egin. Dena dela, larrain-dantza egin nahi dutenek aurreko egunetan entseatzeko aukera izango dute Oinarinekoekin.

eguneko dantza prestatzeko entseguak.

## Oinarinen lana

Aurtengo kurtsoan 26 lagun berrik eman dute izena Oinarin dantza taldean, eta, aurreko kurtsoetatik dabilzanak kontuan hartuta, 73 gaztetxo ari dira dantzak ikasten Antzuolan; 44 nesken taldean eta 29 mutilenean. Horiei guztiei irakasten nagusien taldeko 11 dantzari aritzen dira. Neska eta mutilen taldeek bereizita egiten dituzte entseguak astean behin, eta batera egin beharreko dantzaren bat prestatu behar dutenean elkartzen dira guztiak. Urtean zehar inguruko herrietako dantzari egunetan egiten dute dantza, baita herriko beste zenbait jaietan ere: Aratusteetan, Ondarreko jaietan, Kalebarrengo jaietan, San Martzialetan, herriko jaietan...

# ILAIA

Ile apaindegia · Estetika

JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33

**LO** altzariak  
**GARITANO**

Ondarre, 9 ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 45  
Faxa: 943 78 71 16  
garitanocb@euskalnet.net

JAI  
ZORIONTSUAK  
ANTZUOLAR  
GUZTIOI!





Iazko herri afariko une bat. | JOSETXO ARANTZABAL

## Azpiegitura, Udalaren kontu; janaria, koadrilen ardura

Iazko ekimenari eutsiz, herritarrek hilaren 12an kalean afalduko dute eta 13an, bazkaldu

M.B. | ANTZUOLA

Antzuolako jaietako egubakoitzean Koadrilen Eguna ospatzen dute. Aurten ere horrela izango da, eta hala gura duten guztiek Udalak ipiniko dituen mahaietan bazkaltzeko aukera izango dute. Udala arduratuko da azpiegitura ipintzeaz –mahaiak eta aulkiak– eta koadrila bakoitzak eraman behar du menua. "Koadrilek herriko tabernetan bazkaldu izan dute Koadrilen Egunean. Iaz pentsatu genuen guztiok elkarrekin ospatzea, eta deialdia egin genuen. Udalak ipini zuen azpiegitura eta koadrila bakoitzak bere janaria. Erantzun polita izan genuen, kontuan hartuta deialdia egin genueneko askok tabernetan lekua hartuta zutela", esan digu Maddi Elortza zinegotziak.

Aurten deialdia garaiz egin dute, eta herritar asko batzea espero dute. Interesatuak uztaillaren 6a baino lehen eman behar dute izena Kultura Sailean. "Zenbat lagun etorriko diren jakitea ezinbestekoa da, zenbat mahai eta aulki behar ditugun jakiteko", esan digu Elortzak.

Izena ematerakoan txartel batzuk jasoko dituzte, eta horiek erakutsi behar dituzte bazkari egunean.

Uztaillaren 13an bazkaldu ez ezik, 12an kalean afaltzeko aukera ere izango dute herritarrek, eta Bentazarreko Mutiko Alaiaren konpainia izango dute. "Egueneko kantua-afaria da, Urretxuko taldeak alaituko du. Kantatzeko aukera izango dugu. Giro ona eta alai egoten da. Egun polita izaten da", esan digu Elortza zinegotziak.

# Hontza jaitsi bai, baina igo ere egingo da kanpandorrera

Elizatik udaletxerainoko bidea egingo du, bi noranzkoetan, 12an eta 15ean

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Antzuolako jaien hasiera ofiziala txupinazioak markatzen du, baina askorendako, hontzaren jaitsiera da lehen eguneko ekitaldi esanguratsua. Aurten ere hontzak egingo die ongietorria Antzuolan daudenei. Zergatik hontza? "Bada, antzuolarrak hontzak garelako". Parrokiako kanpandorretik udaletxerainoko bidea egingo du, jaitsiera bidea. Antzuolarrak eta herrian dauden guztiek txalo artean hartuko dute. Kanpandorretik udaletxera kable bat ipiniko dute, eta handik egingo du hontzak kalerako bidea.

Aurten, baina, igo ere egingo da. Kontrako bidea egingo du: udaletxeko balkoitik kanpandorrera. Hori da aurtengo jaietako berrikuntzetako bat. "Jaietako bukaera borobilagoa emateko igoko dugu hontza. Ikusi genuen jaien hasiera indartsua genuela, baina bukaera galdu samar geratzen zela. Ez genuen ekitaldirik bukaera ofiziala emateko. Hori horrela, hontzaren igoera egitea erabaki genuen. Kontrako bidea egingo du hontzak: udaletxetik kanpandorrera igoko da jaiak bukatzeko, uztaillaren 15ean, 00:00etan", esan digu Maddi Elortzak, Antzuolako Kultura zinegotziak.

Hontzaren jaitsiera, eta aurtengo igoera, herriko talde batek egingo du. Urtero aldatzen dute.



Hontza kanpandorretik jaitsen, iazko jaien hasieran. | IKER AIZKORBE

ESANAK

**"Jaietako bukaera borobila emateko igoko dugu hontza"**

MADDI ELORTZA | ZINEGOTZIA

"Jaietako bukaera emateko balio du, eta herritar oso animatuta egoten dira. Ekitaldi jendetsua da, eta ume eta gurasoak elkartzen dira. Baita nagusiagoak diren pertsonak ere", dio Elortzak.

Uztaillaren 12an gauerdian helduko da hontza Antzuolara, eta uztaillaren 15ean igoko da berriro kanpandorrera; tarte horretan, askotariko ekintzak ikusi ahal izango ditu udaletxeko balkoitik: musika emanaldiak, umeendako ekintzak, tailerrak, eta, noski, Mairuaren Alardea. Horiei guztiei egingo die lekua Antzuolako hontzak.

Errotutako ekitaldia

Hontzaren jaitsiera ekintza berria da. Orain dela hiruzpalau urte hasi ziren, baina dagoeneko errotuta dagoen ekitaldia da.



*Gabilondo - Arregi*

harategia - urdaitegia

**Zorionak antzuolar guztioi!**

KALEBARREN 5
943 76 62 90
ANTZUOLA



**Ondo pasau jaixak!**

IGELTSEROTZA S.L.

**ZAHARBERRITZEAK:** Fatxadak • Bainugela eta sukaldea • Lokal komertzialak • Teilatuak

Kalegoi 9-1 • ANTZUOLA  
Tel./ Faxa: 943 76 60 89 • Sakelakoak: 615 76 56 50 / 615 76 56 51  
E-posta: [zabalos@hotmail.com](mailto:zabalos@hotmail.com)



Umeendako jolas parkea egongo da zabalik egubakoitzean. | GOIENA

## Jolas parkea, barrakak eta magia saioa txikienendako

Frontoiaren inguruan beharrez, barrakak Sagasti kalean jarriko dituzte aurten

EDU MENDIBIL | ANTZUOLA

Txikienendako ere aukera zabalago izango da jaietan. Haiek dira jaietako ondoren pasatzen dutenak, eta zer egin eta nora joan izango dute jaietako asteburuan.

Barrakei dagokionez, aurten, nobedade moduan, frontoiaren inguruan kokatu beharrez Sagasti kalean jarriko dituzte, eta, zalantzarik ez, txikien topaleku nagusietakoa bilakatuko da jaietan.

Era berean, jolas parkea izango da eskolako patioan jaietako

egubakoitzean. Puzgarriak eta bestelakoak izango dira aukeran, goizez, 11:00etatik 13:30era, eta arratsaldean, 16:30etik 18:30era.

### Magia eta ilusioa

Domekan, uztailaren 15ean, Eriz Magoaren saioa izango da Herriko Plazan, eguerdiko hamabietan. Urte asko daramatza Eriz magoak umeak zein helduak gozarazten. Afizioz hasi omen zen magia ikasten eta praktikatzan, eta, azkenean, afizioa ofizio bilakatu zaio Eriz magoari. Haren hitzetan, "abilezia kontua baino gehiago,

psikologia kontua da magia, askotan; hau da, jendea nola engainatu asmatu behar duzu. Eta umeen kasuan hori zailagoa da". Antzuolara ere magia eta ilusioa ekarriko ditu Erizek, eta ziur egon neska-mutikoak –eta ez hain gaztetxoak– txundituta utziko dituela. Fantasia apur batekin ia guztia posible dela erakusten saiatuko da.

Era berean, txikienendako antolatutako ekitaldien artean, egunerako, jaietako lehenbiziko egunerako, umeen herri bazkaria iragarri dute, 13:30erako.

## Aurtengo gastronomia lehiaketan, patata-tortillak

Uztailaren 13an bosgarren gastronomia lehiaketa; izen-ematea gaur itxiko dute

EDU MENDIBIL | ANTZUOLA

Dagoeneko bosgarren ekitaldia beteko du jaietako gastronomia lehiaketak, urtetik urtera sendotzen doan hitzordua. Aurreko urteotan marmitakoa, paella, haragi gisatua eta patatak txorizoarekin gertatu behar izan dituzte partaideek. Bada, aurten, patata-tortillarekin sukaldari lanak egingo dituzte gazte eta nagusiek.

Patata-tortilla lehiaketa egubakoitzean, hilaren 13an, jokatu da, 10:45etik aurrera, Kalebarrengo arkupeetan. Meltxor Legorburuk eta Juanita Zabalok dihardute antolaketa lanetan, eta lehiaketaren aurretik partaide guztiekin bilera egingo dute, lehiaketaren nondik norakoak azaltzeko. Gastronomia elkarteek, herriko beste edozein elkarte edota herriarrek eurek osatutako

taldeek parte hartu ahal izango dute (iaz 11 partaide izan ziren). Bizpahiru laguneko taldeak osatu beharko dira. Txapelketaren ostean, 13:00etan, tortillak dastatzeko aukera izango da Kalebarrenen bertan.

### Jai kutsua

Izena emateko epea gaur, egubakoitza, itxiko dute. Parte hartzeko interesa dutenek udal txerera jo dezakete. Juanita Zabalok azpimarratzen duenez, tortilla ona egiteko sekretua patata eta arrautza onak izatea da. "Eta mimo handiz gertatu tortilla, besterik ez, horrekin nahiko", dio Juanitak. Jai kutsua eman nahi diote lehiaketari, eta horregatik erabaki dute aurten tortillak gertatzea, askorentako sekreturik ez duen platera delako. Baina sukaldean demostratu behar hori...



laz patatak txorizoarekin gertatu zituzten partaideek. | GOIENA



ANTZUOLA  
JAIXETAN.  
ONDO PASA!



Antzuolako udala  
[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)

## Kalebarren janari-denda

**Amaiak jai zoriontsuak opa dizkizue herritar guztioi!**

Kalebarren 11 ANTZUOLA Tel.: 649 66 27 91



Mairuaren Alardearen ekitaldia Antzuolako plazan. | GOIENA

# 130 lagunek hartuko dute parte Mairuaren Alardean

Ibilbidea urterokoa izango da eta antolatzaileek euririk ez egitea espero dute

MAIALEN REGUEIRO | ANTZUOLA

Uztailaren 14an ospatuko da Mairuaren alardea Herriko Plazan, 19:00etan. Alardearekin batera, Oinarinen dantzak ikusi ahal izango dira.

Alarde horretan 130 lagunek hartzen dute parte. Fusilari, danbor-jole, dantzari, txistulari, abesbatza, mairuaren eta buruzagiaren guardia eta segizioa bere musikarekin, kanoi eramailak... Horiek jendaurrean bistan egoten direnak dira, baina Mairuaren Alardea antolatzekeo lantalde bat dago, urte osoan lanean

egoten dena. Parte-hartzaileak adin guztietakoak dira; alegia, haurrak zein erretiratuak ikus daitezke. Dena den, antolatzaileek jende gazte gehiago egotea nahiko lukete.

## Entseguak

Ekain bukaeran hasi ziren entseguak, eta taldekakoak izaten dira. Denborari erreparatu, aipatu behar da alardean irteten den pertsona bakoitzak badakiela zein den bere eginkizuna. Hori dela eta, parte-hartzaileak bi aste lehenago hasten dira entseuetan.

Alarde egunean, 18:00etan frontoian elkartzen dira azken entsegu egiteko.

## Ibilbidea

Ibilbidea ez dute aldatuko, eta urterokoa izango da. Plazan hasiko dira eta Antigua auzora igoko dira. Handik, herriko beheko auzoetara joango dira eta berriz plazara itzuliko dira. Plazan ekitaldia egingo dute. Egun horretan euria eginez gero, normalean ibilbidea egiten saiatzen dira, baina euririk ez egitea espero dute.

JOSEBA IPARRAGIRRE | BURUZAGIA

## "Garrantzitsua da jakitea alardean zer ospatzen den"

Joseba Iparragirre antzuolarra da eta Mairuaren Alardean buruzagi moduan hartzen du parte.

### Zenbat urte daramazu Mairuaren Alardean parte hartzen?

Buruzagi moduan 13 aldiz hartu dut parte Mairuaren Alardean.

### Orain arteko alardeetako esperientzia nolako izan da?

Ona. Orokorrean, ez da gorabeherarik egon. Euria egin zuen urtea nabarmenduko nuke. Izan ere, 25 urtean ez zuen euririk egin alarde egunean eta egun hartan asko busti ginen.

### Nork bultzatu zintuen alardean parte hartzea?

Nire aurretik, Jose Luis Kortabarrria ibili zen buruzagi lanetan eta buruzagi moduan irteteko proposamena egin zidan. Nik ezin izan nion ezetzik esan.

### Gustura irteten zara alardean?

Bai. Gustura irtengo ez banintz, ez nuke alardean parte hartuko.

### Noiz arte daukazu asmoa Mairuaren Alardean irteteko?

Ez dakit. Hori ez dago jakiterik.

### Alardea ekintza garrantzitsua da jaietan? Zergatik?

Nire ustez, bai. Garrantzitsua da jakitea alardean zer ospatzen den. Ez da garai bateko antzuolarrak parte hartu zuten bataila, alegia, mairuaren erregea preso hartzearen ospakizuna. Hori kondaira besterik ez da. Alarde honen bitartez, Antzuolak daukan herri izaera eta independentzia aldarrikatu nahi



Joseba Iparragirre. | GOIENA

ditu. Izan ere, jende askok oraindik alarde honetan Valdejunkerako batailan parte hartzea ospatzen dela uste duela esango nuke, nahiz eta okerra izan.

### Nola bizi duzu alardea?

Alarde eguna gerturatuz doan

heinean urduri egoten naiz, baina ilusioa ere bizirik dago. Azkenengo urteetan aldaketa garrantzitsuak egin dira; besteak beste,

mairuaren agerpena zeharo aldatu da azken urteetan, diskurtsoa laburtu da, dantzarien agerpena aldatu da, segizioan musikariak gehitu dira... Hala ere, aldaketa garrantzitsuak alardearen izaeran eta bertan gordetzen diren balioetan daude. Esaterako, berdintasunaren kasuan, emakumeen parte-hartzea naturaltasun osoz egin da. Mairuaren papera duindu egin da, beste herri batzuekin daukagun senidetzea eta solidaritatea erakutsiz...

# ANTZUOLAKO JAIK

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA ETA JAIK | ANTZUOLAKO JAIEN SAIO BEREZIAK

UZTAILAK 16, 20:15 | MAGAZINEA

UZTAILAK 20, 22:15 | JAIK

TXOMIN MADINA ETA MIREN ARREGIK AURKEZTUA





## 'Larrialdia, pronostiko erresebatua' saioa plazan

Oihulari Klown taldea Antzuolan izango da, beste behin, 'clown' saioa eskaintzeko asmoz

MAIALEN REGUEIRO | ANTZUOLA

Oihulari Klown taldea gonbidatu dute Antzuolara *clown* saioa eskaintzeko. Hitzordua jaien azken egunean izango da, uztailearen 15ean, 19:00etan. Saioa Herriko Plazan izango da eta gazteak zein helduak daude gonbidatuta.

*Larrialdia, pronostiko erresebatua* da izenburua, eta, beti bezala, antzuolarrek ondo pasatzea izango da helburua. Saio horretan, mediku talde ganoragabe bat iritsiko da larrialdi bat gertatu delako: etsipen epidemia. Medikuek jendeari azterketa egingo diote, *clown* kodigoa erabilita. Medikuek ez dakite gaixoez nola erantzun duten. Karmelo Muñoz, Jose Antonio Rodriguez, Andurriña Zurutuza eta Maider Galartza arituko dira sendagile lanetan.

### 'Clown' taldea

Oihulari Klown antzerki taldea 1988an sortu zen, legez, Virginia Imazen (taldeak egiten dituen saioen zuzendari eta gidolaria) eta Jose Carmelo Muñozen eskutik. Taldea elkarte kultural gisa sortu zen eta egiten dituzten ikuskizunak haurrei eta gazteei zuzenduta daude.

Hasierako taldean bost pertsona zeuden lanean, baina 1997an 15 pertsonako lantaldea sortzea lortu zuten.

*Oihulari Klown* beste antzerki talde batzuekin elkarlanean hasi zen. Are gehiago, 2000. urtean, Virginia Imaz eta Jose Carmelo Muñoz Kanadara eta Ameriketako Estatu Batuetara joan ziren, hango hainbat proiektutan parte hartzeko. Proiektu horietan ikasitakoak erronka berriak sortzeko balio izan die.



Elgoibarren egindako saioan. | OIHULARI KLOWN

## Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du txosnagunean

Gaztetxeko kideek jaien ostean erreka garbitzeko deialdia egin dute

MAIALEN REGUEIRO | ANTZUOLA

Uztailaren 12an egingo dute txosnen irekiera, 19:00etan, eta 22:00ak arte euro baten truke pintxo-poteoa egongo da. Ondoren, Jon Plazaolak monologo saioa eskainiko du.

Egubakoitzean, hilaren 13an, jolasak egongo dira txosnetan, bazkalostean. Iluntzean, 19:30ean, elektrotxaragaren txanda izango da. Eguna amaitzeko, 23:00etan, Los Galerna eta A Fight to Live kontzertua eskainiko dute eta Joxioai taldeak, aldiz, erromeria. Gaupasa egiten dutenentzat, 07:00etan txokolata egongo da.

Zapatuan 21:30ean herri afaria egongo da. Afari horretarako tiketak Mox, Larrea eta Arin tabernetan daude salgai 14 euroren truke. Afariaren ostean, Klak!son, Gozategi eta Skasti taldeek kontzertua eskainiko dute eta gaupasa egiten dutenek txokolata izango dute 07:00etan. Azkenik, domekan, 20:30ean, triki-poteoa egongo da.

### Nobedadeak egongo dira

Aurten herriko jaiei lehen egunetik indarra eman nahi izan diete gaztetxeko kideek. Horretarako, egunerako, txosnen irekierarekin batera, pintxo-poteoa antolatuko dute. Bertan, edaria eta pintxo euro baten truke izango dira.

Beste nobedade bat ere aipa daiteke; izan ere, gaztetxeko



Gozategi, Bergarako gaztetxean. | GOIENA

kideek aurreko urteko kontzertuek izan zuten erantzun ona ikusita, aurten ere kontzertuak egubakoitz eta zapatu gauetan jartzeko erabakia hartu dute.

### Erreka garbituko dute

Gaztetxeko kideek jaien ostean erreka garbitzeko deialdia egin dute. Izan ere, jaien ostean erreka nahiko zikina egoten da, eta uztailearen 22an 10:00etan plazan elkartuko dira, erreka garbitzeko. Garbiketa auzolanean eta bertaraten direnen artean egingo dute,

eta erreka garbitu ostean, parte hartu duten guztien artean bazkaria egingo dute. Horrez gain, aurtengo apustu potenteena Gozategi taldearen kontzertua da. Izan ere, hitzordu horren helburua herriko adin askotariko jendea jai giroan murgiltzea da.

### Antolakuntza

Aurten txosnagunea gaztetxeko kideen artean kudeatuko dute, jaien antolakuntzarako adin askotariko gazte ugari elkartu direlako.



Zabalo Iturgintza S.L.U.

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel.: 943 78 71 78 / Faxe: 943 76 64 73



# Antzuolako jaietan

## ZATOZ GURERA!

Gorosti • Larrea • Arin • Mox  
Gailur • Ongi Etorri • Surpe



# HIRU

## ARROZTEGIA

ATEAK - LEHIOAK - ZORUAK  
HORMA ARMAIRUAK

Antigua auzoa z/g  
ANTZUOLA  
Tel./ Faxe: 943 76 63 59

*Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!*



# GOIZPER<sub>KOOP. ELK</sub>

*Goizper-ek antzuolar guztioi jai zoriontsuak opa dizkizue!  
Ondo ibili jaietan!*

#### ● IHINZTADURA DIBISIOA



#### ● INDUSTRIA DIBISIOA



**MATABI**

**OSATU**

**inter**



Goizper S. Koop. – Antigua kalea 4 - ANTZUOLA – Tel.: 943 786000  
www.goizper.com - goizper@goizper.com





## ASTEAGOIENAN



GOIENA

## Gatzagako auto igoeraren laburpena

Aste honetako *Harmailatik* saioan Gatzagako auto igoeraren berri izango dugu Xabi Urtzelai aurkezlearen eskutik. Lasterketako irudiak eta unerik ikusgarrienak ikusi ahal izango ditugu. Baita sailkapen orokorrak eta bestelako adierazpenak ere.

## 'Harmailatik'

Astelehena, 21:31



GOIENA

## Etorkizunari nola aurre egin Arrasaten

Arrasateren etorkizunari buruz arituko dira *Tertulia* saioan. Ubane Madera izango da aurkezlea eta etorkizunari nola aurre egin izango dute mintzagai gonbidatuek. Besteak beste, etxebizitza, euskara, gazteak, eta halako gaiak jorratuko dituzte.

## 'Tertulia'

Eguaztena, 22:04

## GOIENA TELEBISTA

## EGUBAKOITZA 6

12:20 Magazinea  
13:05 Zorion Agurrak  
13:10 Altxor Txokoa  
13:48 Onein  
14:16 Beranduegi.tv  
14:41 Zorion Agurrak  
14:46 Berriak  
15:06 Eguraldia  
15:11 Planik bai?  
15:21 Bizitegia  
15:47 Berbaz  
16:55 Berriak  
17:15 Eguraldia  
17:20 Planik bai?  
17:40 28.Klip  
18:03 Harira  
18:35 Tertulia  
19:35 Beranduegi.tv  
20:00 Berriak  
20:20 Eguraldia  
20:25 Planik bai?  
20:45 Harira  
21:17 Berriak  
21:37 Eguraldia  
21:42 AsteON  
22:15 Jaiak  
23:10 Berriak  
23:27 Eguraldia  
23:30 Planik bai?  
23:50 Jaiak  
00:40 AsteON  
01:15 Planik bai?  
01:35 Berriak  
01:55 Eguraldia

## ZAPATUA 7

10:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak  
10:50 Zorion Agurrak  
10:55 28.Klip  
11:19 Planik bai?  
11:29 AsteON  
12:04 Bizitegia  
12:30 Erreportajea: Batelak  
12:53 Onein  
13:13 Berriak  
13:28 Magazinea  
14:28 Tertulia  
15:28 Harira  
16:00 Planik bai?  
16:10 Zorion Agurrak  
16:15 Berriak  
16:30 Onein  
17:02 Nere herrie  
17:35 Goierri Creation Center  
18:03 Jaiak: Debagoieneko jaiak  
18:53 Zorion Agurrak  
18:58 Berbaz  
20:06 Beranduegi.tv  
20:31 Magazinea  
21:31 Planik bai?  
21:41 Walker  
22:03 Harira  
22:35 AsteON  
23:10 Planik bai?  
23:20 Tertulia  
00:09 Tertulia

## DOMEKA 8

10:00 Hamaika.bit  
10:30 Jaiak: Bestak Arizkunen  
10:55 Zorion Agurrak  
11:00 Onein  
11:28 Magazinea  
12:28 Bizitegia  
12:54 Berriak  
13:09 Onein  
13:34 Nere herrie  
14:07 Tertulia  
15:07 Zorion Agurrak  
15:12 Berriak  
15:27 AsteON  
16:02 Walker  
16:24 Berriak  
16:39 Magazinea  
17:39 Harira  
18:11 Beranduegi.tv  
18:36 Magazinea  
19:36 Tolosandblues  
20:13 Erreportajea: Batelak  
20:38 Zorion Agurrak  
20:43 Jaiak: Debagoieneko jaiak  
21:08 Magazinea  
21:43 Goierri Creation Center  
22:10 Berriak  
22:25 Bizitegia  
22:51 Beranduegi.tv  
23:09 Magazinea  
00:06 Eguraldia

## ASTELEHENA 9

12:30 Magazinea  
13:30 Zorion Agurrak  
13:35 Onein  
13:57 Ikusten  
14:10 AsteON  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:10 Zorion Agurrak  
15:15 Jaiak: Debagoieneko jaiak  
16:05 Ur eta lur  
16:50 Berriak  
17:10 Eguraldia  
17:15 Zorion Agurrak  
17:20 Onein  
17:52 Berbaz  
18:59 AsteON  
19:39 Ikusten  
19:50 Zorion Agurrak  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:08 Berriak  
21:28 Eguraldia  
21:31 Harmailatik  
22:16 Magazinea  
23:01 Harmailatik  
23:46 Berriak  
00:14 Eguraldia

## MARTITZENA 10

12:25 Magazinea  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harmailatik  
14:05 AsteON  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:10 Harmailatik  
15:55 Onein  
16:15 Goierri Creation Center  
16:40 Zorion Agurrak  
16:45 Berriak  
17:05 Eguraldia  
17:08 Bizitegia  
17:34 Harmailatik  
18:19 Beranduegi.tv  
18:37 Hamaika.bit  
19:07 Ur eta lur  
19:52 Berriak  
20:12 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Zorion Agurrak  
21:05 Berriak  
21:25 Eguraldia  
21:30 Harira  
22:02 AsteON  
22:35 Musikaz Gain: Lauroba  
22:47 Magazinea  
23:32 Walker  
23:54 Berriak

## EGUAZTENA 11

12:15 Magazinea  
13:00 Zorion Agurrak  
13:05 Harira  
13:40 Beranduegi.tv  
14:00 Harmailatik  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:10 Ur eta lur  
15:55 Onein  
16:23 Goierri Creation Center  
16:48 Berriak  
17:08 Eguraldia  
17:11 Harmailatik  
17:56 Zorion Agurrak  
18:01 Musikaz Gain: Lauroba  
18:12 Beranduegi.tv  
18:37 Harira  
19:12 Nere herrie  
19:45 Zorion Agurrak  
19:50 Berriak  
20:10 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
20:53 Lehiaketa  
21:01 Berriak  
21:21 Eguraldia  
21:24 Magazinea  
22:04 Tertulia  
23:04 Berriak  
23:24 Eguraldia  
23:29 Harira  
00:00 Planik bai?

## EGUENA 12

12:25 Magazinea  
13:10 Zorion Agurrak  
13:15 Bizitegia  
13:41 Tertulia  
14:41 Zorion Agurrak  
14:46 Berriak  
15:06 Eguraldia  
15:11 Hamaika.bit  
15:41 Goierri Creation Center  
16:06 Musikaz Gain: Lauroba  
16:18 Tolosandblues  
16:55 Berriak  
17:15 Eguraldia  
17:20 Tertulia  
18:20 Onein  
18:48 Planik bai?  
19:08 Walker  
19:30 Ikusten  
19:45 Zorion Agurrak  
19:50 Berriak  
20:10 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
20:55 Planik bai?  
21:15 Berriak  
21:35 Eguraldia  
21:38 Hamaika.bit  
22:08 Walker  
22:30 Planik bai?  
22:50 Magazinea  
23:35 Berriak  
23:55 Eguraldia  
00:30 Planik bai?  
00:50 Berriak  
01:10 Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

## Udarako proposa den mahai jokoa zozketan

Aste honetako zozketa poltsan udarako oso proposa den mahai jokoa zozketatuko dugu. Udan lagunekin une dibertigarriak pasatzeko aukera bikaina. Zozketan parte hartzeko: deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat: [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) edo [@arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena). Zorte on!

## Josu Martinez gurean asteko gainbegiratuan

Asteazken zehar jasotako gaien gainbegiratu ekarriko dizuegu gogora. Zapatu eta domekan, 10:00etan, besteak beste, *Barrura begiratzeko lehioa* dokumentalaz arituko gara Josu Martinezekin. Dokumentalak jasotzen duen bost istorietako zuzendarietako bat eta proiektuaren koordinatzailea.

## OROIGARRIA

## Pablo Pascual Duano



Segovian hil zen 2012ko ekainaren 29an, 76 urte zituela.

*Aitxitza, inork badu zerua irabazita, hori zeu zara. Beti izango zara gura bihotzean.*

Maitasun handiz, zure bilobak, Ion eta Monica, Mikel, Uxue, Maria, Elisa eta Aner.

Bergaran, 2012ko uztailearen 6an.

## OROIGARRIA

## Fernando Nafarrate Unzueta



Juan Luis Nafarrate langilearen aita

Aramaion hil zen 2012ko ekainaren 30ean, 83 urte zituela.


*Ez agurrik, ez adiarik, gero arte bakarrik.*



Arizmendi ikastolako lankideak. Leitz bailaran, 2012ko uztailearen 6an.

## OROIGARRIA

## Ane Treku de Miguel



Gurasoak: Ion eta Maider

Donostian hil zen 2012ko ekainaren 27an, 20 hilabete zituela.

*Izar berri bat sortu da zeruan.*

Arrasateko familia. Arrasaten, 2012ko uztailearen 6an.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

## OROIGARRIA



## Marcelina Ruiz de Azua Kortabarria

Gregorio Arrizabalagaren alarguna

Aixelan hil zen 2012ko uztailearen 2an, 94 urte zituela.

*Ama eta amama maitxie, betireko geure artien.*

Senideak. Aramaion, 2012ko uztailearen 6an.

## OROIGARRIA

## Tere Irazabal Gorosabel



*Izeba Tere, Gure enbar eta ejenplu. Zure bihotza utzi diguzu, betirako ondare.*

Irazabalgo ilobak: Idoia eta Miel, Iriigo eta Nerea, Amaia eta Xabi, Aintzane eta Bixen, Alazne, Maialen, Juanjo, Onintza, Ane eta Jon.

Oñatin, 2012ko uztailearen 6an.



### Rufina eta Enrique

Rufina Igarzak eta Enrique Iturriagak ekainaren 14an urrezko ezteiak bete zituzten eta datorren zapatuan ospatuko dugu. Seme-alaben, iloben eta Aitzako familiaren partetik, zorionak eta ondo-ondo pasatu, bikote!



### Ane eta Unai

Ane Agirrezabalaga aretxabaletarra eta Unai Biain oñatiarra San Fermin egunean ezkonduko dira, Oñatin. Ondo ospatu eguna eta ondo ibili Kenya aldean! Zorionak, bikote, familiakoen eta lagunuen partetik!



### Marta eta Patxi

Marta Parra eta Patxi Alonso astelehenean, hilaren 9an, ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean. Eztei-bidaian Kenyara, Tanzaniara eta Zanzibarrera joango dira. Familiaren partetik, ondo-ondo pasatu, bikote!

## HILDAKOAK

**Justo Ezpeleta Goikoerrotea.** Eskoriatzan, ekainaren 27an. 76 urte.  
**Ane Treku de Miguel.** Donostian, ekainaren 27an. Urtebete.  
**Pablo Pascual Ruano.** Bergaran, ekainaren 29an. 67 urte.  
**Iñaki Erroka Gabilondo Irala.** Bergaran, ekainaren 29an. 78 urte.  
**M. Carmen Omar Monasterio.** Arrasaten, ekainaren 30ean. 83 urte.  
**Fernando Nafarrate Unzueta.** Aramaion, ekainaren 30ean. 83 urte.  
**Migel Odriozola Mujika.** Arrasaten, uztailaren 1ean. 82 urte.  
**Tere Irazabal Gorosabel.** Oñatin, uztailaren 2an. 75 urte.  
**Marcelina Ruiz de Azua Kortabarria.** Aramaion, uztailaren 2an. 94 urte.  
**Marisol la Fuente Madariaga.** Bergaran, uztailaren 3an. 75 urte.  
**Fermina Donoso Sanchez.** Arrasaten, uztailaren 3an. 76 urte.  
**Luciana Biain Biain.** Arrasaten, uztailaren 4an. 91 urte.  
**German Barrena Zubia.** Oñatin, uztailaren 4an. 50 urte.  
**Pablo Pascual Duano.** Bergaran, uztailaren 5ean. 76 urte.



### Joana eta Ganix

Joana Gil eta Ganix Garcia arrasatearrak uztailaren 7an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. "Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen eguna, zuen lagunuen partetik! Disfrutatu Vietnamenten!"



### Judith eta Lander

Judith Larrañaga eta Lander Larrauri. Uztailaren 14an. "Azkenian, heldu da eguna! Egun benetan zorionsua izatia! Espero dou eta hementik aurrerako egunak be halakotxiak izatia! Irrikitan gare egun hori zuekin bizitzeko! Zorionak, bikote!" Bergarako koadrilakoen partetik.

## OROIGARRIA

### German Barrena Zubia

Zuazola Larraña institutuko gurasoa



Oñatiko Eskola Publikoko irakasle, ikasle eta langileok bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Oñatiko Eskola Publikoa.  
Oñatin, 2012ko uztailaren 6an.

## OROIGARRIA

### German Barrena Zubia

2012ko uztailaren 4an hil zen, 50 urte zituela.



Zuk zenuen bizitzeko gogua eta lanerako inkernua guk hemendik jarraituko dugu.

Agur, German

Bengoa senideak.  
Oñatin, 2012ko uztailaren 6an.

## ESKER ONA

### Justo Ezpeleta Goikoerrotea



Eskoriatzan hil zen 2012ko ekainaren 27an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Zuk erakutsitakoak bizirik dirau.  
Eskerrik asko, aitxa.

Eskoriatzan, 2012ko uztailaren 6an.

## URTEURRENA

### Benito Bergaretxe Errasti



2011ko uztailaren 3an hil zen, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 8an, 12:30etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian ospatuko da.

Duela urtebete alde egin arren gure artetik sekula etzara joango gure bihotzetik.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

### Eladio Arando Zanguitu



2011ko uztailaren 6an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 8an, 12:00etan, Osintxuko elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## ESKER ONA

### Ana Mari Zabala Ayala



Iñaki Txintxurretaren alarguna

Arrasaten hil zen 2012ko ekainaren 27an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko bere seme Iñigoren izenean.

Arrasaten, 2012ko uztailaren 6an.

## URTEURRENA

### Amaia Aguirre Gallastegi



2011ko uztailaren 27an hil zen, 50 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Gure artean egon ez arren, ez zaitugu ahazten.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko Gallastegi familiaren partetik.

## URTEURRENA

### Casimiro Irazabalbeitia Laskurain



2011ko uztailaren 28an hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak


Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net

**ESKORIATZA Erramun Martikorena eta Mikel Markez**

Errekan Gora musika jaialdia hasiko da gaur, kantari birekin. Nork bere disko berria aurkeztuko du, baina elkarrekin abestuko dituzte bai bataren zein bestearen abestiak. Markezen ohiko musikariak izango dituzte lagun emanaldi berezia osatzeko. Gaur, HUHETZIKo klaustroan, 22:30ean.



EUSKALETXEA.CAT



CLUB-DEPORTIVO.COM

**BERGARA Juan de Diego**

*Erbestea* tituluarekin proiektu berri bati ekin dio Juan de Diegok, Bartzelonan bizi den tronpeta jotzaile bilbotarrak, Trakas taldea lagun duela. Jazz groovea egiten dute. Gaur, Espoloian, 22:00etan.

**MUSIKA****ARRASATE Behi Bi Blues**

Gaizka Azkarate harmonikarekin eta Azkater Pelox gitarra eta ahotsarekin elkartu eta proiektu berri bati forma ematen ari dira: Behi Bi Blues. Bikoteak sorturiko berezko kantuez eta 50eko hamarkadako blues abestiak euskaratuz osatutako erreperitorio berriarekin datoz oraingoan. Gaur, egubakoitza, Iluntz tabernan, 22:00etan.

**ARAMAIO Juan Falu musikariaren gitara kontzertua**

Juan Falu musikari argentinararen kontzertua. Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:00etan.

**BERGARA 'Erlauntzaren sekretua' ipuin musikatua**

Begarako Musika Eskolan udaleku musikalak egin dituzte 25 bat haurrek. Bada, horren guztia emaitza egubakoitzean ikusteko aukera egongo da: David Azurzak sortutako *Erlauntzaren sekretua* ipuin musikatua ikusteko aukera egongo da. Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 12:00etan.

**ANTZERKIA****ARETXABALETA 'Orsai' antzezlana Malas Compañias taldearekin**

Malas Compañias zirkua taldeak *Orsai* antzezlana eskainiko du. "Jokoz kanpo ere jokatu egiten da" esaldia abiapuntutzat hartuta, zirkua eta antzerkia uztartuko dituzte herritarren gozagarri: Irudimenaren eta jolasaren laguntzarekin, hiru pertsonaiek bidaia ikusgarri batean murgilduko gaituzte, eta akrobazia eta esku-jolasen bidez, eguneroko objektu zein ekintzarik sinpleenek beste zentzu bat hartuko dute. Eguaztenean, uztailak 11, herriko plazan, 19:00etan.

**IKUSKIZUNAK****OÑATI Dexter magoa Oñatin**

Dexter magoak ikuskizun dibertigarria aurkeztuko du Antton tabernan. Domekan, uztailak 8a, Antton tabernan 19:30etan.

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen. Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

UZTAILAK 06  
UZTAILAK 12

**JAIK****ARETXABALETA San Kristobal jaik Larrinon**

San Kristobal eguna ospatuko dute Larrinon auzoan. 19:00etan meza eta ondoren luncha. Uztailaren 10ean, martitzena, Larrinon elizatean, 19:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ARETXABALETA San Kristobal elkartearen eguna**

Larrinon auzoan dagoen San Kristobal elkartearen zaindariaren eguna ospatuko dute. Egitaraua: 17:30ean umeendako jolasak: aulki-jolasak, sokatira, zaku-lasterketa, entzierroa, buruhandiak. 19:00: txokolate-jana; 21:00: afaria elkartearen. Uztailaren 7a, zapatua, Larrinoko San Kristobal elkartearen, 17:30ean.

**IRTEERA**

**ELGETA Intxortara bisita gidatua**  
Bisita gidatuak igandero dira maiatzetik uztailera.

Gutxienez 12 laguneko taldeen-tzako bisita gidatuak: beste edozein egunetan bisitak antolatzen dira, aurrez erreserba egitea beharrezkoa da. Irteera ordua eta lekua: 10:00etan Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik, Espaloian. Iraupena: 3 ordu eta erdi. Prezioa: 6 urte artean doan; 6-16 urte artean, 2 euro; eta 16 urtetik gora 5 euro. Parte hartzeko: aurrez izena eman behar da. Tel.: 943 718911 edo 943 79 64 63. E-posta: turismo@deba-goiena.net.

Uztailaren 8an, domeka. Irteera: Interpretazio Zentrotik (Espaloia), 10:00etan.



JESUS VALLINAS

**ARRASATE Natxo Montero dantza konpainia**

*Carni di prima qualità* izeneko ikuskizuna ekarriko du Bilboko dantza taldeak. Bikotea ikusiko dugu kalean dantzan, gorputzak eta

indar fisikoak garrantzi handia izango duen ikuskizunean. Bi gorputzen arteko dantza konbatea planteatzen da. Gaur, Seber Altubena, 20:00etan.

**DEIA****OÑATI San Andres etxebizitza kooperatibaren urteko batzarra**

Gai zerrendan dator: 2011ko balantzea, kooperatibako lokalen egoera eta kontseilu errektoreko kideen berritzea, besteak beste. Gaur, egubakoitza, Kultura etxean, 19:30ean.

**LEINTZ GATZAGA Andramaixak gertatzeko batzarra**

Bigarren batzarra egingo du Udalak herritarrekin iraileko Andramari jaik gertatzeko. Gaur, egubakoitza, Kultur etxean, 19:00etan.

**AARETXABALETA UDAREN batzar orokorra**

Aretxabaleta kirol elkarteak batzar orokorra egingo du. Gai-zerrenda, besteak beste: 2011-2012 denboraldiaren eta diru-kontuen berri ematea; 2012-2013 denboraldiaren aurkezpena eta diru kontuen onarpena; Errekonozimendu Araudiaren onarpena; Eskakerak eta galderak; Klubeko kirolari oso-osokoak sari bana-keta. Aurretik (18:00) ezohiko osoko bilkura egingo dute estatutuak aldatzeko. Gaur, Arkupe kultura etxean, 18:00etan.

**BERGARA EkoBira azoka jasangarria**

Kontsumo jasangarri eta solidarioa bultzatzeko helburua duen azoka ibiltaria egingo dute San Martin plazan. Produktu eta zerbitzu ekologikoak, ingurumenean eragin edo inpaktu txikiagoa dutenak, kontsumitzeko aukerak... azalaraziko dituzte. 22 postuk parte hartuko dute Kutxa Ekoguneak antolatutako azoka horretan. Hitzaldiak eta tailerrak ere izango dira eta taberna ekologikoa ere bai, besteak beste. Bihar, zapatua, 11:00etatik 18:30ak arte, San Martin plazan.

**IZENEMATEA****ELGETA Kantsatzeke mendi taldea**

Kantsatzeke mendi elkartearen bazkide egiteko eta federatzeko aukera izango da. Federatuta daudenek, bestalde, beraien aseguruaren estaldura zabaltzeko aukera ere izango dute. Eguaztenean, Kultura etxean, 19:00etan.





# goiena

2012-07-06

BUKATZEKO

## Ondo irakurtzen jakitearen garrantzia

- Prakagorri metodologiak irakurtzeko arazoak dituztenei beste modu baten irakurtzen erakusten die
- Debagoiengan bi hilabeteko ikastaroa eman dezaten 20 lagun inguruko taldea osatu behar da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

"Txikitatik nire umeak arazoak izan ditu irakurtzeko. Gainontzeko haurrek baino polikiago irakurtzen du eta irakurtzen ari dena ulertzeko zailtasunak ditu". Lorea Alberdi bergararraren hitzak dira, baina, seguruenik, guraso askoren eta askoren ahotan ipini ahal dira. Uste baino askoz ohikoagoa da irakurtzeko zailtasuna izatea eta uste baino askoz arazo gehiago sortzen ditu ondo irakurtzen ez jakiteak. Alberdik badaki hori eta bere umearen arazoa konpondu edo hobe dezakeen metodologia bat ezagutu berri du: Prakagorri metodologia. "Getxoko enpresa bat da eta jakin dut erabiltzen duten metodologiak oso emaitza onak ematen dituela. Debagoienera etor daitezten, 15-21 pertsonako taldea osatu beharra dago, eta horixe da nire nahia. Nire egoera berean dauden pertsonak batzea taldea osatu ahal izateko".

### Arazoak badu konponbidea

Prakagorriko Gorka Aurrek azaldu digu euren lanaren gakoa litzatekeela irakurtzeko modu zaharra alboratu eta berria erakustea: "Gure helburua izaten da ikus-eremu periferikoa zabaltzea



Ama eta semea elkarrekin liburu bat irakurtzen parkeko eserlekuan. | TALIESIN

eta buruari eta begiei beste modu baten irakurtzen irakastea".

Arazoa konpon daitekeela eta oso emaitza onak lor daitezkeela azaldu du: "Kasu askotan, irakurtzeko abiadura hiru edo lau bider bizkortzea lortzen dugu, eta ulermen maila ere asko hobe-

tzen dugu. Beti esaten dugu garrantzitsuena dela zure egoera ezagutzea, zure zailtasun maila zehaztea. Hori eginda, ondoren etor daitezkeen guztia hobekuntza izango da. Beraz, gurasoek ez dezatela beldurrik izan. Arazoak, askotan, konponbidea du".

### Egoera berean daudenei deia

"Debagoiengan taldea osatzeko interesa duen edonork dei dezala 690 39 44 92 telefono zenbakira, eta emango dizkiot beharrezko azalpen guztiak", dio Alberdik. [www.prakagorri.es](http://www.prakagorri.es) helbidean ere izango dute informazioa.

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



### Ideiak desarmatu

Mahai-inguru bat hizkuntza politiken gainean. Mahaiari lau gizon garrantz, gaian gutxi-asko ibilitakoak. Ezagutza eta erabileraren kontua lauren ahotan. Batak gora egin ahala besteak zergatik ez duen berdin egiten. Eta bueltan-bueltan, lehergai-lua: "Euskaldun batzuek ez dute euskaraz egiten ez dutelako nahi, eta eskubidea dute horretarako".

Burura etorri zitzaidan: "Eta esango bagenu tratatu txarra jaso eta salatzen ez duen emakumeak ez duela tratatu txarra salatu nahi?". Berehala letorke euskararena esan duen hori azalpenarekin: "Ez, ez, badaude arrazoi estrukturalak hori azaltzeko, gizonen aldeko dominazio egiturek utzi dute emakume asko konfiantzan ahul, ez dute aukera berdintasunik ikusten gizonen parean jartzeko, menpekotasuna barneratzen dute eta horregatik jasaten dute zigorra".

Euskaldunok ere ondo asko dakigu euskaraz ez duela aukera berdintasunik eta horrek zaildu egiten digula euskararekin nonahi eta sueltu ibiltzea. Eta horren atzean dominazio egiturak egon direla eta menpekotasuna barneratuta daukagula. Hori guztia konpondutakoan, nahi ez duenak ez dezala euskaraz egin. Bitartean, desarmatu ditzagun ideiak ere.

# POLTSIKOAN

## Goiena.net prest sakelako telefonoan!

- Albistek
- Gaiak
- Iritziak
- Parte hartzeko atala
- Blogak
- Gida komertziala
- Irratia
- Tebista

### Deskargatu!

Behoko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



[m.goiena.net](http://m.goiena.net)

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

# goiena